

# Euskal Herriko Gizarte-Ekintza. Iraganeko oinarrietatik etorkizuneko ahalbideetara

FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle doktorea, Deustuko Unibertsitatea

JOSUNE LÓPEZ RODRÍGUEZ

Zuzenbidean lizentziatua (Ikertzailea)

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 2011/12/10

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 2011/12/22

**Resumen:** En este estudio se analizan las distintas técnicas de protección que a lo largo de la historia se han utilizado para materializar la acción social en Euskal Herria. De este modo, en primer lugar, se concretan las distintas técnicas de protección que han existido a nivel internacional, dentro de lo que actualmente se denomina la Protección Social. A continuación, se explica cómo se han aplicado dichas técnicas en Euskal Herria, partiendo de sus especificidades. A efectos de dicha aplicación se diferencian claramente dos etapas: la anterior a la pérdida del sistema foral público y la posterior a dicha pérdida. Precisamente, durante la segunda de esas etapas, surgen los seguros sociales como técnica de protección específica y pública para enfrentarse a la cuestión social. En ese sentido, se expone la importancia que esa circunstancia tiene para la acción social propia de Euskal Herria; es más, se hace hincapié en los esfuerzos realizados por los territorios históricos vascos por mantener sus competencias en los primeros momentos de los seguros sociales. Por último, se hace referencia a las posibilidades que Euskal Herria tiene a futuro en el ámbito de la Protección Social

**Palabras clave:** Acción social en Euskal Herria; técnicas de protección en Euskal Herria; beneficencia; mutualismo; seguros sociales; Seguridad Social.

**Laburpena:** Ikerlan honetan aztertzen dira historian zehar Euskal Herrian gizarte-ekintza gauzatzeko baliatu izan diren babes-teknika desberdinak. Bada, lehen-dabizi, nazioarte-mailan izan diren babes-tekniken berri ematen da, gaur egun Gizarte Babesa deritzonaren baitan. Eta, ondoren, babes-teknika horiek Euskal Herrian nola aplikatu diren azaltzen da, bertako berezitasunak oinarri. Aplikazio-ondoretarako, bi garai bereizten dira argiro: foru-sistema publikoa galdu aurrekoa eta sistema hori galdu ondorengoa. Hain zuzen ere, bigarren garai horretan agertzen dira gizarte-auziari aurre egiteko babes-teknika berezi eta publiko gisa gizarte-aseguruak, hots, Gizarte Segurantzaren zuzeneko aurrekariak. Esangura horretan, egoera horrek Euskal Herriko gizarte-ekintza propioarentzat duen garrantziaren berri ere ematen da; areago, nabarmentzen da euskal herrialdeek gizarte-aseguruen hastapenetan egindako ahaleginak eskumen propioei eusteko. Bukatzeko, etorkizunari begira Euskal Herriak Gizarte Babesari dagokionez dituen ahalbideei erreparatzen zaie.

**Gako-hitzak:** Gizarte-ekintza Euskal Herrian; babes-teknikak Euskal Herrian; ongintza; mutualismoa; gizarte-aseguruak; Gizarte Segurantza.

**Abstract:** The aim of this study is to analyze the types of techniques that have been implemented to achieve social protection in the Basque Country throughout history. Firstly, the different types of protection techniques are explained. Secondly, the study focuses on how they have been implemented in the Basque Country, taking the region's peculiarities into account. Two time periods are clearly differentiated: before and after the Basque Country lost its regional public liberties. During the second period, public social insurance emerged in the form of specific protection techniques to solve social issues. These were the precursors of today's Social Security System and played a key role in the independent development of social protection in the Basque Country. The study emphasizes the Basque region's endeavors to maintain control of social insurance from the beginning. Lastly, it discusses the Basque Country's future possibilities in the field of social protection.

**Key words:** Social action in the Basque Country; protection techniques in the Basque Country; beneficence; mutualism; social insurance; Social Security.

LABURDURAK. 1. GIZARTE-EKINTZAREN DEFINIZIOA. 2. GIZARTE BABESERA BILDUTAKO BABES-TEKNIKAK 2.1. *Babes-teknika zehaztugabeak*. 2.1.1. Ongintza eta laguntza. 2.1.2. Aurrezkia. 2.1.3. Mutualismoa. 2.1.4. Aseguru pribatua. 2.2. *Babes-teknika zehaztuak*. 2.2.1. Lan-istripuen legeak. 2.2.2. Gizarte-aseguruak. 2.2.3. Gizarte Segurantzaren. 3. EUSKAL HERRIKO BABES-EKINTZA. 3.1. *Foru-sistema publikoa galdu aurretik*. 3.1.1. Lurraren gaineko jabetzaren garrantzia babes-teknikek eratorritako babes-ekintzari begira. 3.1.2. Ongintzan oinarritutako babes-ekintza. 3.1.3. Mutualismoan oinarritutako babes-ekintza. 3.2. *Foru-sistema publikoa galdu ondoren*. 3.2.1. Lan-istripuen Legea, 1900eko urtarrilaren 30ekoa, onartzea. 3.2.2. 1908ko otsailaren Legea, Aurreikuspeneko Institutu Nazionala (INP) sortzekoa, eta bere testuingurua. 3.2.3. II Errepublika eta Franco garaia. 3.2.4. Demokrazia berrezartzea eta 1978ko Konstituzioak Gizarte Segurantzari begira eratorritako ereduak. 3.2.5. Euskal Herriak etorkizunari begira babes-ekintzan dituen ahalbideak. BIBLIOGRAFIA.

## LABURDURAK

EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
<i>op. cit.</i>	<i>opere citato</i>
Koord.	Koordinatzailea/k
Zuz.	Zuzendaria
zk.	zenbakia
RT	<i>Revista de Trabajo</i>
or.	orrialdea
orr.	orrialdeak
or. eta h.	orrialdea eta hurrengoak
RISS	<i>Revista Internacional de Seguridad Social</i>
INP	Instituto Nacional de Previsión
RSS	<i>Revista de Seguridad Social</i>
GSLOTB	Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onestekoa
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
NAO	Nafarroako Aldizkari Ofiziala

## 1. GIZARTE-EKINTZAREN DEFINIZIOA

1. Esparru edo herrialde jakin bateko gizarte-ekintza zehazteko nahi-taetzkoa da aldez aurretik berau argitzea, hots, kontzeptu hori behar bezala definitzea. Bada, horrek berarekin dakar abiapuntu hartzea Gizarte-Babesa eta, zehatzago, horretara biltzen diren babes-teknika desberdinak. Hain zuzen, teknika horien agerpenek osatzen dute gizarte-ekintza. Labur zurrean esanda, gizarte-ekintza babes-tekniken ondorio da: babes-tekniken aplikazioak duen eragina beraien esparruko subjektuengan.

2. Gaur egun, argi dago babes-teknika horien artean Gizarte Segurantzza dela nagusi, batik bat, eskainitako babesaren norainokoarengatik eta babestutako subjektu kopuruarengatik. Hori berori ondorioztatzen da nazioartean giza eskubideez diharduten testurik garrantzitsuenetatik ere<sup>1</sup>. Alabaina, Europar Batasunaren oinarritzko testu batzuek aipatu dute Gizarte Babesa, zuzenean edo zeharka. Horrek erakusten du Gizarte Segurantzaz gain badirela aintzat hartu beharreko beste teknika batzuk ere. Horren adibide dira hurrengo testuak:

---

<sup>1</sup> Kontuan hartu behar da giza eskubideei buruz nazioarte-mailan dauden testurik garrantzitsuenentzat Gizarte Segurantzza oinarritzko eskubidea dela, gizakiaren duintasunari estu lotzen zaion neurrian. Esangura horretan, 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, bere izaera programatikoa gorabehera, ezarri du pertsona orok Gizarte Segurantzarako duen eskubide orokorra (22. artikulua), bai eta, zehatzago, pertsona orok aseguratuko duen eskubidea ere, langabezia, gaixotasuna, baliaezintasuna, alarguntasuna, zahartzaroa eta bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako (25. artikulua). Nazio Batuen esparrutik irten gabe, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak xedatutakoa garatuz, 1966ko abenduaren 16ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunak ezarri ditu pertsona orok Gizarte Segurantzarako duen eskubidea (9. artikulua), bai eta familia babesteko (10.1 artikulua), amen babeserako (10.2 artikulua) eta osasun-babeserako (12. artikulua) eskubideak ere. Halaber, gogorarazi behar da Nazioarteko Itun horretara bildutako eskubideak zuzenean erreklama daitezkeela auzitegietan (2.1 artikulua), nahiz eta, praktikan, zaila izan horiek zehaztea, kasuan kasuko estatuak ez baldin baditu barne antolamenduan garatu. Azkenik, Europako Kontseiluari dagokionez, 1961eko urriaren 18ko Europako Gizarte Agiriaren 12. artikulua ere Gizarte Segurantzarako eskubidea aitortu du.

(a) Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Egia esan, testu horretako 34. artikulua Gizarte Segurantzaz eta gizarte-laguntzaz ari da, hots, bereizi beharreko bi babes-teknikaz, bi-  
biak ere ikerlan honetan jorratuko direnak. Alabaina, testuaren atariko kontuan hartuta, argiro ondoriozta daiteke horrek oinarri hartzen duela 1989ko abenduaren 9ko Europako Erkidegoko Gutuna, Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialei buruzkoa. Egin-eginean ere, azken testu hori Gizarte Babesaz ari da 10. artikuluan, arestian aipatu bi babes-teknikak jasoz.

(b) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu. Horren X. tituluan, gizarte-politikari buruzkoan, 151. artikuluan, ezarri da Batasunak eta estatu kideek xedetzat izango dutela «Gizarte Babes egokia». Ildo horretatik, xede hori erdiesteko, 153. artikuluan jaso da Batasunak estatu kideen ekintzak babestu eta osatuko dituela hainbat esparrutan, eta horien artean, beren-beregi, «langileen Gizarte Segurantzaz eta Gizarte Babesean» (1. paragrafoko c idatz-zatia) eta «Gizarte Babeseko sistemak modernizatzean» (1. paragrafoko k idatz-zatia). Are gehiago, ondore horretarako «Europako Parlamentuak eta Kontseiluak zuzentza bidez onetsi ahal izango dituzte arian-arian aplikatu beharreko gutxieneko xedapenak, kontuan harturik estatu kide bakoitzeko baldintza eta arauak teknikoak...» (2. paragrafoko b idatz-zatia).

Baina egia esan hori ez da batere erraza, hurrengo arrazoiak direla bide: bateko, Kontseiluak aho batez erabaki behar du hori, aurretiaz kontsultatuta Ekonomia eta Gizarte Komitea eta Eskualdeetako Komitea (2. paragrafoa). Besteko, esanbidez ezarri da kasuan kasuko zuzentzauek ezin izango diotela kalterik egin estatu kideei aitortu zaien ahalmenari, beraien Gizarte Segurantzako Sistemaren printzipioak zehazteko (4. paragrafoa); ezbairik gabe, horrek erabat baldintzatzen ditu Gizarte Babesaren inguruan ere hartu beharreko gutxieneko neurriak.

Azken buruan, hori berori da orain arte halako zuzentzarurik onetsi ez izanaren arrazoia. Orobat, ezertan hasi aurretik, nabarmendu behar da estatu kideen barne antolamenduetan Gizarte Babesa behar bezala sistematizatu eta egituratzeko premia dagoela. Beharbada, oztopo horiek guztien jakitun, Batasunak etorkizunera begira dihardu. Horregatik, ezarri da Kontseiluak, gehiengo soilarekin, eta Europako Parlamentua kontsultatu ondoren, Gizarte-Babeserako Komite aholku-emailea sortuko duela, estatu kideen artean eta Batzordearekin lankidetzat sustatzeko, Gizarte-Babesaren arloan (160. artikulua)<sup>2</sup>.

3. Edonondik begira dakiola ere, testu horiek ez dute definitu zer den Gizarte-Babesa. Espainiako antolamendu juridikoan ere ez dago horren arrastorik. Hala eta guztiz ere, bada definizio-ondoreetarako baliagarri izan daitekeen bestelako iturririk, honakoak kasu:

(a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 458/2007/EE Erregelamendua, 2007ko apirilaren 25ekoa, Gizarte Babesaren Estatistika Integratuen Europako Sistemari buruzkoa<sup>3</sup>. Erregelamendu horren ondoreetarako besterik ez bada ere, modu honetara definitu da Gizarte Babesa (2.b artikulua): «erakunde publikoen nahiz

<sup>2</sup> Komite horren egitekoak lirarteke: (a) estatu kideetako eta Batasuneko gizarte-egoera eta Gizarte Babeseko politiken bilakaera gainbegiratzea; (b) estatu kideen artean eta Batzordearekin informazioa, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko direla ahalbidetzea; eta txostenak egitea, irizpenak luzatzea edo bere eskumeneko esparruetan bestelako jardueri ekitea, dela Kontseiluak edo Batzordeak hala eskatu diolako, dela bere ekimenez hala erabaki duelako.

<sup>3</sup> 2007ko apirilaren 30eko EBAO, L 113. Erregelamendu hori 2000. urtean Lisboan egingandako Kontseiluaren ondorio da. Bada, Kontseilu horretan estatu kideek konpromisoa hartu zuten euren Gizarte Babeseko sistemak hobetu eta modernizatzeko. Halaber, konpromiso horri estu lotzen zaio 1997an enplegu-politikaren eta Luxenburgoko prozesuaren esparruan sortutako metodoa, Koordinaziorako Metodo Irekia deritzona; izan ere, metodo horrek nabarmendu du beharrezkoa dela Gizarte Babesaren esparruan ere estatistika eguneratu eta ziurrak izatea, estatu kideen artean kasuan kasuko konparazioak egin ahal izateko.

pribatuen esku-hartze oro, halakoen xedea denean familiari eta norbanakoei arintzea aurretiaz zehaztutako arrisku- edo beharri-  
zan-multzoa, betiere, aldi berean ez badago elkarrekiko eta bana-  
kako akordiorik. Gizarte Babesa eragin dezaketen arriskuen edo  
beharriaren zerrenda hitzarmen bidez ezartzen da, hurrengoan  
arabera: gaixotasuna edota osasun-arreta, desgaitasuna, zahartzaroa,  
bizirik irautea, familia/semi-alabak, langabezia, etxebizitza, eta bes-  
te kontzeptu baten arabera sailkatu gabeko gizarte-bazterketa».

(b) Doktrinari erreparatuz gero, AGUILERA IZQUIERDO, BARRIOS  
BAUDOR eta SÁNCHEZ-URÁN AZAÑAK emandako definizioa ere  
guztiz aproposa da: «neurri heterogeneoen multzoa (neurriak izan  
daitezkeela zehatzak eta zehaztugabeak), halakoak antolamendu ju-  
ridikoan jaso direnean eta hirugarren batek gauzatu ohi dituen-  
nean (erakunde publikoek nahiz pribatuek) gizarte-beharrizanak  
edo -arriskuak saihesteko»<sup>4</sup>.

4. Hartara, bi dira definizio horietarik atera daitezkeen ondorioak: au-  
rrena, gizakiak arrisku edo beharri-egoera batzuk jasan ditzakeela;  
hurrena, halakoak saihesteko babes-teknika desberdinak daudela.

Ildo horretatik, ezin ahantz daiteke teknologiak aurrerapauso garrantzi-  
tsuak eman arren, gizakiak beti izango dituela zenbait arrisku, naturak, giza-  
kiak edo bi-biek batera eragindakoak. Gainera, arriskuok beharri-egoera  
sortzen dute, ezbehar bihurtzen badira<sup>5</sup>. Horrenbestez, esan bide da gizakia-  
ren bizitza, jaiotzatik heriotzaraino, etorkizunak sortu ohi duen segurtasunik  
ezaren mende dagoela, alegia, bere osasun fisikoa eta ahalbide ekonomiko  
mehatxatuko dituen ezbeharren bat gertatzeko ziurgabetasunaren mende<sup>6</sup>.

<sup>4</sup> AGUILERA IZQUIERDO, R., BARRIOS BAUDOR, G. eta SÁNCHEZ-URÁN AZAÑA, Y. *Protección Social Complementaria*. Madril: Tecnos, 2005, 2. argitaraldia, 25. or.

<sup>5</sup> Esangura horretan, ikusi ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S. *Compendio de Seguridad Social*. Madril: Tecnos, 1991, 4<sup>a</sup> argitaraldia, 15. or.

<sup>6</sup> DONATI, A. *Los Seguros Privados. Manual de Derecho*. Bartzelona: Librería Bosch, 1960, 8. or. (Gaztelaniazko itzulpena eta oharra: VIDAL SOLÁ, A.).

Hori gorabehera, gizakiak historian zehar beti borrokatu du beharrian-egoera horiek sor ez daitezen, horietatik babesteko. Hain justu ere, helburu horrekin babes-teknika desberdinak baliatu ditu, garaian garaiko inguruabarren eta ahalbideen arabera.

Bada, askotarikoak dira gizadiaren hastapenetatik gaur egunera arte sortu diren teknikak. Baina horrek ez du esan nahi horietariko bakoitza modu espontaneoan sortu denik, osterantzekoekiko inolako loturarik gabe. Hurrean ere, teknika bakoitzak aurrekoa hartu du oinarri, berau egokitu eta hobetzeko asmoarekin, modu kualitatiboan, eskaintako babesari dagokionez, nahiz modu kuantitatiboan, babestutako pertsona-kopuruari dagokionez. Beraz, babes-mota desberdinen artean ez dago inolako aurkakotasunik, ezpada osagarritasuna.

Bilakaera horretan, Gizarte Segurantzaren artean sortu den azkena eta duda-mudarik gabe garrantzitsuena. Baina gainerako babes-teknikak ez dira soil-soilik horren oinarri izan. Haatik, gaur egun ere Gizarte Segurantzarekin batera dihardute<sup>7</sup>, gizarte-aseguruen salbuespenarekin, azken horiek desagertu baitziren hura sortzeko<sup>8</sup>. Azken finean, horrek indartu egiten du arestian azaldutako ideia, hau da, Gizarte Babesa generoa bada, babes-teknika desberdinak espezia lirateke<sup>9</sup>.

5. PAUL DURAND frantziarraren hitzak ere ildo horretatik doaz, Gizarte Segurantzari begira dioenean hori ez dela bat-batean sortu, eta, nabarmentzean, Europako herrialde bakoitzean beharrezkoa izan dela bilakae-

<sup>7</sup> ORDEIG FOS, J.M. *El Sistema Español de Seguridad Social (y el de la Comunidad Económica Europea)*. Madril: Editorial Revista de Derecho Privado. Editoriales de Derecho Reunidas, 1993, 5. argitaraldia, 68. or.

<sup>8</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 33. or.

<sup>9</sup> Horrekin bat datoz, besteak beste, ESCUDERO RODRÍGUEZ, R. eta NOGUEIRA GUASTAVINO, M. Acción Protectora (I). Contingencias protegidas. In *Derecho de la Seguridad Social*. DE LA VILLA GIL, L.E. (Zuz.) eta GARCÍA-PERROTE ESCARTÍN, I. eta MERCADER UGUINA, J.R. (Koord.). Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999, 2. argitaraldia, 294. or.



ra historiko luzea. Are gehiago, bilakaera hori gogora ekarri behar omen da gaur egungo Gizarte Segurantzaren ulertzeko<sup>10</sup>.

Zinez, beste horrenbeste esan daiteke Gizarte Babesaren inguruan ere. Arean ere, Gizarte Segurantzaren aurrekariak aztertzean nahitaez hartu behar dira kontuan Gizarte Babesaren gainerako teknikak.

Halatan, erraz ondoriozta daiteke herrialde bakoitzaren oinarri historikoak zeharo baldintzatu duela bertako Gizarte Babesaren bilakaera. Horregatik, ikerlan honen helburua da Gizarte Babesak Euskal Herrian izan duen bilakaera aztertzea, horren agerpen izan diren babes-ekintza zehatzen berri emateko<sup>11</sup>. Baina ikerlana ez da iraganera mugatzen, iragana oinarri harturik jorratu nahi direlako Euskal Herriak etorkizunari begira Gizarte Babesaren esparruan dituen ahalbideak. Hortik bada ikerlanaren izenburua.

6. Edonola ere, ohartarazi behar da, oro har, Euskal Herriko Gizarte Babesaren oinarri historikoa bitan bananduta dagoela, banantze horren inflexio-puntua izanik euskal herrialdeek euren foru-sistema publikoa galdu zuten unea. Gainera, une horrek bat egiten du Gizarte Babesaren teknikak bereizteko premia sortzen den unearekin. Arean ere, Gizarte Babesaren definizioa ematean azaldutakoaren haritik, babes-teknikak bi

---

<sup>10</sup> DURAND, P. *La política contemporánea de Seguridad Social*. Madril: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 1991. Gaztelaniazko itzulpena VIDA SORIA, J., 69. or.

<sup>11</sup> ALONSO OLEARI jarraituz, esan behar da erakunde juridikoak ezin direla ulertu, baldin eta ikuspuntu historikotik ez badira azaltzen beraien jatorria eta garapena, bi-biek baldintzaten duten heinean erakundeok duten egoera azterlana egiteko unean, eta bi-biei esker antzeman daitezkeelako erakundeok dituzten ezaugarri eta berezitasunak (ALONSO OLEA, M. *Introducción al Derecho del Trabajo*. Madril: Civitas, 1994, 5. argitaraldia, 125. or.). Modu berean, MONTOYA MELGAR-en ustez, edozein erakunderen azterketa ulertzeko, horren inguruko gogoeta sozioekonomiko eta juridikoa egiteaz gain, berebizikoa da horrek antolamendu juridikoan duen historia edo izan duen ibilbidea kontuan hartzea (MONTOYA MELGAR, A. *La Seguridad Social española: notas para una aproximación histórica*. In *RT*, 1976, 54-55. zk., 9. or.).

multzo edo kategoria nagusitan sailka daitezke: babes-teknika zehaztuetan eta babes-teknika zehaztugabeetan<sup>12</sup>. Hortaz, bi garai bereizi behar dira. Lehenengoan, 1839ko urriaren 25eko Legea artekoan<sup>13</sup>, euskal herrialdeetako Gizarte Babesak ibilbide eta nortasun propioak ditu. Bigarrenean, teoriaran aipatu legetik aurrera, baina, praktikan, Espainian lan-arloko lehenengo legeak aldarrikatzen direnetik aurrera —eta kontura bedi une horrek bat egiten duela 1876ko uztailearen 21eko Legearekin—, euskal herrialdeetako Gizarte Babesaren historia Espainiako estatuarenaren eskutik doa. Hala ere, horrek ez dio kalterik egiten Espainiako legeriaren barruan ere, Euskal Herriko iraganeko babes-teknikek modu batera edo bestera irauteari. Hain zuzen, horretan oinarritzen dira etorkizunera begira Euskal Herriak Gizarte Babesari dagokionez dituen ahalbideak, eman ditzakeen urratsak. Areago, Europar Batasuneko arautegiari buruz azaldu-takotik ondoriozta daitekeenaren arabera, ezinbestekoa da estatu kideetako bakoitzak lehendabizi bere Gizarte Babesaren egitura behar bezala zehaztea, gerogarrenean estatu kideen artean lankidetzan aritzeko. Beraz, eta hori guztiori hurrengo ataletan zehaztuko bada ere, esan behar da badagoela bidea non egin.

Bestalde, kontuan hartu behar da Gizarte Babesa, eta bere baitara bildutako teknikak, abiapuntua besterik ez direla Euskal Herriko gizarte-ekintza aztertzeko. Hori dela eta, egokitzen jo da babes-ekintza zehatz-mehatz, kasurik kasu, zertan datzan azaldu aurretik, Gizarte Babesaren teknikak orokorrean jorratzea; izan ere, babes-teknikek egitura bera dute herrialde orori begira. Era berean, babes-tekniken jardunbidea ulertzea funtsezkoa da gerora bere agerpen den babes-ekintza modu egokian kokatu eta koherentziaz azaltzeko. Azkenik, hurrenkera hori lagungarri izango da, babes-teknika desberdinen arteko koordinazioa bultzatzeko ahaleginean.

<sup>12</sup> ALMANSA PASTOR, J.M<sup>a</sup>. *Derecho de la Seguridad Social*. Madrid: Tecnos, 1991, 7. argitaraldia, 29. or. eta h.

<sup>13</sup> Euskal probintzien eta Nafarroaren foruak berrezten dituen.

## 2. GIZARTE-BABESERA BILDUTAKO BABES-TEKNIKAK

7. Klasikoa da babes-teknikak sailkatzeko irizpideen artean horiek bereiztea zehaztugabe eta zehaztuetan. Ondorenez, jarraian, bereizketa horri helduko zaio.

8. Teknika zehaztugabeen ezaugarri da, gehienbat, halakoak kapitalismoaren aurreko garaietan agertu ohi direla, nahiz eta kapitalismoaren ondoren ere bere horretan jarraitu, gaur egunera arte. Modu horretara, ezin dira kokatu gizarte-bilakaerako une jakin batean. Eta ez dira Industria Iraultzak eragindako gizarte-arazoei aurre egiteko beren-beregi sortutakoak; izan ere, edozein ezbehar-motari aurre egiteko balio ohi dute, babesten dena pertsona izan nahiz ondasun jakin bat edo animalia batzuk (hortik, bada, zehaztugabetasunaren ezaugarria). Teknika zehaztuak, aldiz, Industria Iraultzaren ondorioz nagusienari erantzutera datoz, alegia, gizarte-arriskuei, eta helburu dute soil-soilik pertsona babestea, horrek jasan ditzakeen beharrian- edo gabezia-egoeretatik<sup>14</sup>.

Bada, gizarte-arriskuak, Industria Iraultzaren zuzeneko ondorio gisa, hasieran bederen, lotzen zitzairen langileek jasandako arrisku guztiei, halakoek eratortzen zuten langileek lan egiteari uztea aldi baterako edo behin betiko. Arriskuak izan zitezkeen fisiologikoak, pertsona orok jasan ditzakeenak beti (gaixotasuna, baliaezintasuna, zahartzaroa, heriotza) edota lanbide-jarduerak sorrarazitakoak (langabezia, lan-istripua, lanbide-gaixotasuna)<sup>15</sup>.

Egia esan, bi arrisku-mota horiek bazeuden Industria Iraultzaren aurretik ere. Baina ordura arte ez zen agertu arrisku horien gizarte-izaeraren inguruko kontzientzia kolektiborik, eta, ondorenez, ezta arrisku horien aurka modu kolektiboan borrokatzeko premiarik ere<sup>16</sup>. Kontzien-

<sup>14</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 16-17. orr.

<sup>15</sup> DURAND, P., *op. cit.*, 58-59. orr.

<sup>16</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 15. or.

tzia kolektibo hori une jakin horretan agertzearen arrazoia ez da kasualitate hutsa edo bat-bateko fenomenoa. Guztiz kontrakoa. Industria Iraultzaren ondorek eta, bereziki, ezbehar bihurtutako arriskuen kopurua inoiz ez bezala igotzeak eragin zuten kontzientzia kolektiboa; izan ere, larria zen oso egoera berria: gero eta babes gutxiago zuen gizarteak ez zekien arazoei nola aurre egin.

9. Alabaina, Industria Iraultzarekin batera baziren beste hiru inguruabar ere, egoera berrian zerikusia izan zutenak: liberalismo politikoa, liberalismo ekonomikoa eta liberalismo juridikoa. Egin-eginean ere, lau inguruabar horien baturak berarekin ekarri zuen historiako gizarte-gatazkarik garrantzitsuenak, non sortutako tentsioak bi hitzetan labur daitzkeen: «gizarte-auzia»<sup>17</sup>.

Burgesiak, behin gizarteko klase nagusi bihurtuta, bere printzipio ideologikoak ezarri zituen arlo politiko, ekonomikoa eta juridikoa, liberalismoa oinarri izanik beti<sup>18</sup>.

Arlo politikoan, liberalismoak bazter utzi zuen pertsonaren eta estatuaren artean tarteka zitekeen erakunde oro: lehenengo, lanbide-elkar-goak edota gremioak; gero, langileen elkarte eta sindikatuak. Horren adibide, Ingalaterran, 1799 eta 1800. urteetako *Combination Acts* delakoek langileak sindikatueta biltzeko aukera debekatu zuten, konspirazio-delitutzat hartuz hori. Frantzia, 1776ko *Turgot* Ediktuak eta 1791ko *Chapelier* Legeak errotik debekatu zuten kategoria nahiz lanbide bereko herritarren arteko korporazio oro. Espainian, 1813ko ekainaren 8ko Dekretuak, Industria- eta Lan-askatasunei buruzkoak, sindikatuak debekatu

<sup>17</sup> Gizarte-gatazka horren ondorek Euskal Herrira heldu zirenean, gatazkari izen hori eman zion, izen berarekin 1935ean argitaratutako liburuan, JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE idazle euskaldunak (Ikusi EGUZKITZA, J.B. *Gizarte-Auzia*. Faksimile-edizioa: Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak bilduma, 1990, 42. zk., 170 orr.).

<sup>18</sup> PALOMEQUE LÓPEZ, M.C. eta ÁLVAREZ DE LA ROSA, M. *Derecho del Trabajo*. Madril: Editorial Centro de Estudios Ramón Aceres, S.A., 1999, 7. argitaraldia, 65. or.

zituena. Gainera, debeku-arau horiekin batera kasuan kasuko zigor-zehapenak arautu ziren garaiko zigor-kodeetan (esate baterako, Frantzia, 1810eko Napoleonen Zigor Kodean; eta, Espainian, 1822, 1848 eta 1870eko Zigor Kodeetan)<sup>19</sup>.

Ekonomiari dagokionez, eta liberalismo politikoaren ondorioz, estatutak jarrera pasiboa hartu zuen, inolako esku-hartzerik gabe, *laissez faire*, *laissez passer* formulapean. Testuinguru horretan, eskaintzaren eta eskariaren legea nagusitu eta erabateko ekonomia-askatasuna bihurtu zen ekonomia-aren eta gizartearen arau bakar<sup>20</sup>.

Eta garaiko legerian filosofia liberala sartzeko asmoarekin, burgesiak bere helburu politiko eta ekonomikoak erdiets zitzaizkion, antolamendu juridikoetan borondatearen autonomia buruzko dogma gailendu zen. Modu horretara, kontratu-harremanak alderdien arteko borondatearen arabera gauzatzen hasi ziren. Uste zen alderdiak berdinak eta askeak zirela kontratuko gorabeherak eta baldintzak zehazteko orduan.

Halaber, inguruabar horiek oinarri, Industria Iraultzak eragin zuen industriari aurrerapen teknologikoak edo makinismoa aplikatzea, baina, batez ere, ekoizpen-mota berri gisa kapitalismoa ezartzea. Ekoizpen-mota hori oinarritu zen lana eta alokairuak askatasunean trukatzeko harremanetan, merkatuaren ekonomia-arauak eta kontratu zibilararen printzipioak aintzat hartuta. Hortaz, estreinakoz, langileek alokairu batzuen truke askatasunean egindako lana ekoizpen-sistemaren osagairik esanguratsuen bihurtu zen<sup>21</sup>.

---

<sup>19</sup> Inguruabar horiei buruz ikusi PALOMEQUE LÓPEZ, M.C. eta ÁLVAREZ DE LA ROSA, M., *op. cit.*, 71. or.; MONTOYA MELGAR, A. *Derecho del Trabajo*. Madril: Tecnos, 1997, 18. argitaraldia, 111 eta 112. orr.; ZENBAIT AUTORE. *Lan-zuzenbidearen ikasgaiak* (RAMÍREZ MARTÍNEZ, J.M., Zuz.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004, 12. argitaraldia, 28-29. orr. Euskarazko itzulpena: ARRIETA IDIAKEZ, FJ.

<sup>20</sup> ORDEIG FOS, J.M., *op. cit.*, 22. or.

<sup>21</sup> PALOMEQUE LÓPEZ, M.C. eta ÁLVAREZ DE LA ROSA, M., *op. cit.*, 66. or.

Behin bizitzako esparru guztiak filosofia liberalak zipriztinduta, Industria Iraultzaren ondorioak XIX. mendetik aurrera antzeman daitezke argi eta garbi<sup>22</sup>:

(a) Makinak gero eta gehiago erabiltzeaz gain, makina horiek gero eta konplexuagoak eta arriskutsuagoak ziren, batez ere, esperimentazio- eta egokitze-jardueretan.

(b) Makinak erabiltzeagatik, lan-istripuak modu ikaragarrian gehitu ziren, biktimei heriotza edo zauri larriak eraginez.

(c) Ekoizpen-bideen jabetza eta ekoizpen-bide horiekin egin beharreko lana behin betiko banandu ziren (kapitalaren eta lan-indarraren arteko banantzea).

10. Horrela, aipatu lau inguruabar horiek —liberalismo politikoa, ekonomikoa nahiz juridikoa, eta Industria Iraultza— hedatu zirenean, gizarte-klase berria sortu zen: proletarioa.

Egiantan, gizarte-klase berria sortu zen, alokairu batzuen truke fabriketan lan egiten zuten langileak konturatu zirenean filosofia liberala eta horren postulatuak eurentzat hilgarriak zirela. Nolanahi ere, langileak horretaz jabetu aurretik, gizartean aldaketa sakonak gertatu ziren.

Ekoizpen-sistema kapitalistan, fabrika handietako masako ekoizpenak hasieran lan-esku piloa behar zuen. Horregatik, asko ziren, askatasunaren izenean, eta bizitza-baldintzak hobetzeko asmoarekin, nekazaritzako zereginak utzi eta hirietara joan zirenak, fabriketan lan egiteko. Hala ere, urte gutxitan, lan-esku gehiegi pilatu zen hirietan, fabriketan. Horrez gain, fabriketan gero eta makina gehiago zegoenez, lan-esku gehiegi zegoen.

---

<sup>22</sup> BORRAJO DACRUZ, E. Fundamento de la protección por accidente de trabajo: balance y perspectiva (Notas introductorias al estudio de la Ley de 1900). In ZENBAIT AUTORE. *Cien Años de Seguridad Social. A propósito del centenario de la Ley de Accidentes de Trabajo de 30 de enero de 1900*. Madrid: Fraternidad-Muprespa, 2000, 81. or.

Egoera horren ondorioz, ekoizpen-bideen jabeen eta langileen artean eztabaidak sortu ziren. Postulatu liberalak baliatu eta ahalik gehiena ekoizteko ahaleginetan, lehenengoek bigarrenen askatasuna murriztu eta zeharo baldintzatu zuten, lana eta alokairuak trukatzeko kontratu-harremantetan. Zinez, ekonomiaren arloan alderdietarik indartsuenak bakarrik izan zuen askatasuna. Egin-eginean ere, alderdi horrek nahi zuen bezala ezar diezazkiokeen kontratuko baldintzak beste alderdiari. Beste alderdiaren askatasun materialak, ordea, aukera gutxi zituen: lan-baldintzak onartzea ala langabetuen zerrendak handiagotzea<sup>23</sup>.

Bada, denbora gutxian, hutsaren hurrengo alokairuak eta emakumeen nahiz haurren lanaldi akigarriak nagusitu ziren. Langileek gizaki-izaera galdu eta merkatu-gai bihurtu ziren, merkatuaren esklabo alegia. Langileak orduantxe konturatu ziren seme-alabak baino ez zituztela, «proletario» zirela. Baina seme-alaben lana ere alferrikakoa zen bizimodua ateratzeko, horiek ere liberalismoaren ondorioak jasaten zituztelako.

Edonola ere, lan-istripuak izan ziren proletarioaren erantzun kolektiboa eragin zutenak, halakoan aurrean ez baitzuten inolako babesik.

Istripu bat gertatu ondoren, antzeko egoera latza errepikatzen zen beti. Langileek begi-bistan izan ohi zuten minutu batzuk lehenago euren lankide izandakoa giza hondakin bihurtuta; eta gero, egoera negargarri bera errepikatzen zen: alargunaren dolua, umezurtzen negarra eta guraso zaharren atsekabea<sup>24</sup>.

Gainera, gizarte-klase berriak bi arrisku garrantzitsuri egin behar zien aurre: alde batetik, langileen eta euren familien bizitza-baldintza pena-

<sup>23</sup> ZENBAIT AUTORE. *Lan-zuzenbidearen ikasgaiak* (RAMÍREZ MARTÍNEZ, J.M., Zuz.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004, 12. argitaraldia, 25. or. Euskarazko itzulpena: ARRIETA IDIAKEZ, FJ.

<sup>24</sup> DEL PESO CALVO, C. De la protección gremial al vigente Sistema de Seguridad Social. In *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad de Madrid*, 1966, X. liburukia, 25. zk., 13. or.

garriek, lanaldi nekagarriek eta desnutrizioak gaixotasunak gehitu zituzten, hala gaixotasun arruntak nola lanbide-gaixotasunak. Beste alde batetik, gero eta lan-esku gehiago zegoen soberan, batzuetan, eskaintza gehiegi zegoelako; beste batzuetan, ekoizpen-sistema kapitalista ziklikoki astintzen duten krisien ondorioz, fabrikak ixten zirelako.

Horrek guztiorrek berarekin ekarri zuen egoera berriak eratorritako arriskuak gizarte-izaerakoak zirela uste izatea, eta, ondorenez, horiei modu kolektiboan aurre egin behar zitzaizela uste izatea.

Ez zen gutxiagorako. Egoera horretan, proletarioa izututa bizi zen, aipatu arriskuak ezbehar noiz bihurtuko. Hausnarketa sakona behar zen. Benaz, ezbeharra gertatu aurretik langileen egoera negargarria izanda ere, inork ez bazuen horren gaineko ardurarik hartzen, nor arduratuko zen ezbeharren ondorioz lan egiteari uzten zioten langileen babesaz? Izan ere, egoera horri aurre egiteko estatuak ezin zuen eskurik hartu (liberalismo ekonomikoa) eta langileak ezin ziren elkartu (liberalismo politikoa). Testuinguru horretan sortu zen, bada, gizarte-auzia.

Ildo horretatik, proletarioa gizarte-klase berri zela jabetu eta egoera salatzen hasi zenean, langileen mugimendua sortu zen. Aurrerantzean, langileen xedea ez da izango soil-soilik seme-alabak izatea, ezpada ugazabekiko berdintasun eta askatasun materiala izatea.

Halatan, langileen mugimenduak hiru adar izan zituen. Horietarik lehenengo bat-batekoa eta bi aldiz pentsatu gabeko erresistentzia suntsizailea izan zen, anarkistek bultzatutakoa. Bigarrena, aldiz, aurretiaz eta ondo antolatutako erresistentzia iraultzailea baina moderatua izan zen, sozialistek sustatutakoa. Lehenengoak botere politiko oro ezabatzea zuen helburu; bigarrenak, ordea, botere legegilean sinesten zuen, langileen egoera aintzat hartuko zuen eraldaketa gauzatzeko. Baina bazegoen hirugarren adar bat ere, hain zuzen, Elizaren Doktrina Sozialak defendatutakoa, oinarri hartzen zituenak Leon XII.a Aita Santuak 1881ean aldarrikatutako *Rerum Novarum* Entziklika eta Pio XI.a Aita Santuak 1931n aldarrikatutako *Quadragesimo Anno* Entziklika; izan ere, entziklika hori-



etan jaso ziren: jabetza-eskubidea; gizarte-klaseen arteko borrokaren orde ez elkarlanaren printzipioa, gizarte-eraldaketa gauzatzeko lanabes gisa; ahulen eskubideak; txiroen duintasuna; aberatsen betebeharrak; lanbide-elkarteak sortzeko eskubidea; eta justiziaren perfektzionamendua<sup>25</sup>.

Gizarte-gatazkek aurrera egin ahala, mugimendu horien guztien presioa areagotu zenez, burgesiaren printzipio liberaletan oinarritutako gobernuek ere hasierako planteamendu hertsia ezari-ezarian malgutzeari ekin zioten. Horrelaxe aldarrikatu ziren lehenengo lan-legeak, halaberharrean, nolabaiteko oreka bilatu nahian, helburu filantropikoen eta defentsa-izaerakoen erdibidetik. Eta lege horien artean, gehienbat, nabarmendu behar dira gizarte-arriskuak borrokatzeko teknikak jaso zituztenak.

Zernahi gisaz, garai hartako inguruabarrek eta ordura arteko babes-tekni-ken baliorik ezak hasieratik agertu zuten gizarte-arriskuei aurre egiteko egoera berriarekin bat zetozen teknika zehatzak behar zirela. Hori dela eta, aurrerantzean, babes-teknika zehatzak izango dira gizarte-arriskuen aurkako tresnarik garrantzitsuenak<sup>26</sup>.

## 2.1. Babes-teknika zehaztugabeak

11. Babes-teknika zehaztugabeak dira Industria Iraultzaren ondorioz sortutako gizarte-arriskuei aurre egiteko sortu ziren babes-teknika zehaztuen aurrekariak. Dena den, ez da ahaztu behar azken horiekin batera iraun dutela, Gizarte Babesera bilduta.

Historian zehar gauzatu diren babes-teknika zehaztugabeen artean bi multzo nagusi bereiz daitezke: ongintzan edo laguntzan oinarritutako teknikak eta aurreikuspenean oinarritutakoak; azken horien artean

<sup>25</sup> Elizaren Doktrina Sozialaren inguruan ikusi PONTIFICIUM CONSILIUM DE IUSTITIA ET PACE. *Compendium of the social doctrine of the church*. London: Burns & Oates, 2011, 45. or. eta h.

<sup>26</sup> DURAND, P. La política de Seguridad Social y la evolución de la sociedad contemporánea. In *RISS*, 1953, 1. liburukia, 3. zk., 417. or.

daude, besteak beste, aurrezkia, batez ere, banakako aurreikuspen gisa, eta mutualismoa eta aseguru pribatua, aurreikuspen kolektibo gisa.

Ongintzan eta laguntzan oinarritutako teknikak aplikatzen dira behar-eragoera agertu ostean. Aitzitik, aurreikuspen-teknikak arrisku jakin bat ezbehar bihurtu aurretik aplikatzen dira edota ezbeharra gertatu ondoren baina behar-eragoera sortu aurretik; modu horretara, ezbeharra gerta daitekeela aurreikusteaz gain, behar-eragoerari aurre egiteko behar diren funtsak eratzen dituzte.

Halaber, ongintzan eta laguntzan, behar-eragoeran dagoen gizabanakoak joera pasiboa du babesari dagokionez, hirugarren baten laguntza jaso besterik ez duelako egiten. Bestela esanda, gizabanako horren babes bakarra kanpotik datorren laguntza da. Haatik, aurreikuspen-tekniketan, behar-eragoera saihestu nahi duen gizabanakoak modu aktiboan parte hartzen du babesean, aurretiaz egoera horretan izan daitekeela aurreikusitako duelako, eta balizko behar-eragoerari aurre egiteko eratu funtsetan parte hartu duelako, kasuan kasuko ekarpenak eginez. Nolanahi ere, bi teknika horiek behar-eragoera konpontzen dute, baina ez dute *ex origine* saihesten.

### 2.1.1. Ongintza eta laguntza

12. Beti izango dira gizakiak behar-eragoeran uzteko moduko arriskuak, behin arriskuok ezbehar bihurtuta. Baina gizakiak ere, banaka edo modu kolektiboan, berezko indar etikoa du behar-eragoeran daudenei laguntzeko<sup>27</sup>.

Hartara, hasierako zibilizazioetan ere badira indar etiko horren agerikoak, nahiz eta halakoak komunitate, hiri edo erlijio jakin batera mugatu.

<sup>27</sup> VENTURI, A. *Los fundamentos científicos de la Seguridad Social*. Madril: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 1994, 23. or. Gaztelaniazko itzulpena: TUDELA CAMBRONERO.

13. Edonola ere, Kristautasuna hedatu zenean, mugak gainditu ziren: Kristoren doktrinaren arabera, beharrian-egoeran zegoenari laguntzeko ardura bizitzako arau orokor bihurtu behar zen. Azken buruan, arau hori lagun hurkoarenganako maitasunean oinarritzen zen. Hori zela eta, Kristautasunak karitatera eta ongintzara jo zuen behartsuei laguntzeko.

Esangura horretan, ongintza gauzatzeko, Elizak hainbat erakunde sortu zituen. Hasieran, etxerik etxe laguntzen jardun zuen, eta, gero, ospitaleen eta erruki-etxeen bidez. Ospitaletan, aldi berean behartsu asko babesten ziren. Ospitaleekin batera, erruki-etxeen egitekoa ere garrantzitsua zen; izan ere, erruki-etxeetan bahiaren gaineko maileguak ematen ziren, irabazteko asmorik gabe, lukurreriaren aurka egiteko. Era berean, kristau-ongintza gauzatzeko, Erdi Aroan indartu egin ziren fraideen eta lekaiemen erakundeak<sup>28</sup>.

14. Alabaina, XIV. mendearen erdialdean, ekonomiak nabarmen behertantz egin zuenean, agerian jarri zen ongintza erlijioso ez zela behar adinako ezbeharrek eratorritako beharrian-egoerei aurre egiteko. Hala ere, Erreforma protestanteak, Europa astindu zuten gerra ankerrek eta ekonomia-krisiak ongintzaren sekularizazioa eragin zuten.

Ongintzaren sekularizazioak bi ondorio izan zituen. Batetik, estatuen esku-hartzearen ondorioz, laguntza publikoak ongintza bigarren maila batean utzi zuen. Bestetik, laguntza pribatuak edo laikoak senidetasuna edo filantropia ekarri zuen, kristau karitatearen ordezt<sup>29</sup>.

14. Gogorragoa izan omen zen XVI. mendeko ekonomia-krisia. Orduan, nonahi, eskaleekin eta arloteekin bete ziren kale eta kantoiak. Hori zela eta, estatuak kezkatu ziren, halakoen matxinadek kalteak eragin diezazkietelako segurtasun publikoari eta jabetzari.

<sup>28</sup> Halako inguruabarrei buruz sakontzeko ikusi VENTURI, A., *op. cit.*, 27-37. orr.

<sup>29</sup> DEL CAÑO ESCUDEROREN esanetan, estatuak ongintza sustatu, bultzatu zuen, eta ongintza gauzatzen ere ahalegindu zen; une horretatik aurrera ongintzari laguntza deituko zaio (DEL CAÑO ESCUDERO, F. *Derecho Español de Seguros*. Madril: 1974, 2. argitaraldia, 352. or.).

Horregatik, hasieran, behinik behin, estatuek neurri errepresiboak eta zigor-neurriak ezarri zituzten, eskeketasunarekin bukatzeko. Baina laster konturatu ziren neurri horiekin batera behartsuei laguntza publikoa eskaini behar zitzaieela<sup>30</sup>. Laguntza publikoaren xedea zen pobrezia aurka egitea, pobrezia arriskutsuegia zelako bake publikoarentzat. Hortaz, laguntza publikoa ez zen oinarritu giza elkartasuneko arrazoietan<sup>31</sup>.

15. Laguntza publikoa ulertzeko aldaketa sakona Frantziako Iraultzarekin iritsi zen. Egin-eginean ere, *ius naturalismoaren* eraginez, laguntza txiroen berezko eskubide bihurtu zen. Beraz, laguntzak gizarte-eginbeharraren izaera galdu zuen, laguntza hori Kristautasunaren ongintzan oinarritu nahiz gizarteko klaserik boteretsuenen bake-interesetan oinarritu<sup>32</sup>.

Harrezkero, laguntza publikoari dagokionez, Frantziako Iraultzak hasitako joerari eutsi zaio. Gaur egun, laguntza publiko hori modu desberdinetan gauza daiteke:

<sup>30</sup> Ingalaterran gauzatu zen, gehienbat, laguntza publikoa, hiru gizalditan laguntza publikoaren paradigma izanik. Horrela, laguntza publikoari buruzko lehenengo legea 1536an aldarrikatu zen, Enrike VIII.aren agintaldian. Lege horren arabera, tokian tokiko agintariek txiroei laguntza eskaini behar zieten, erremusinak eska ez zitzaizten. Nolanahi ere, ongintza sekularizatzeko aurrerapausorik garrantzitsuena eman zen Londoneko *Common Council* delakoak 1547an hartutako erabakiarekin. Erabaki hori dela bide, igandeetan elizetan egiten ziren diru-bilketak galarazi ziren, horien ordeztu herriar guztien nahitaezko kontribuzioak ezartzeko. Erabaki hori 1572ko lege batean jaso zen, eta lege hori 1601ean, aldarazpen batzuekin bada ere, aipu handiko *Poor Law* edo Txiroen Lege bihurtu zen. Lege horren meritu izan zen ondoko printzipio hau mendez mendez hedatzea: komunitate edo lurralde-erakunde autonomo orok du txiroei laguntzeko betebeharra. Halaber, lege horrek laguntza publikoa modu bateratuan arautzeko meritua izan zuen (VENTURI, A., *op. cit.*, 46-48. orr.).

<sup>31</sup> Bada, neurri horiek sarri askotan laguntza-izaerakoak baino polizia-izaerakoak izan ziren. Halako neurriek ondorio asko besteko larriak izan zituzten; arean ere, mugimendu-askatasuna mugatzen zen, bai eta bizilekua finkatzeko askatasuna ere. Orobat, itsasoz bestaldeko deportazioak egiten ziren edo babesba baztertutako eraikin berezietan ematen zen, hala nola, *poorhouses* edo *workhouses* delakoetan (VENTURI, A., *op. cit.*, 48-50. orr.).

<sup>32</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 51. or.

(a) Gizarte Segurantzara bilduta —hori berori igarri-igarrian dago Erresuma Batuan, *Poor Law* 1948an indargabetu zenetik—.

(b) Laguntza publikoaren zati bat Gizarte Segurantzara bilduta eta beste zati bat Gizarte Segurantzatik kanpo utzita —itxuraz Espainian gertatzen den antzera—.

16. Dena den, laguntza publikoaren bilakaeraren ondorioz, gaur egun gizarte-laguntzaz hitz egin behar da. Hortaz, gizarte-laguntza behar bezala ulertzeko bi kontzeptu bereizi behar dira, kalterik egin gabe ikerlan honetako beste atal batzuetan horien inguruan esango denari<sup>33</sup>: gabezia-egoera eta beharrizan-egoera. Gaur egungo Gizarte Segurantzako Sistemaren objektu edo xede dira bi egoera horiek; batzuetan, bi-biak babesten dira, baina ez beti, eta gabezia-egoera Gizarte Segurantzatik kanpoko gizarte-laguntza bidez ere babes daiteke, arestian azaldu bezala. Ikus ditzagun egoera horien ezaugarririk garrantzitsuenak:

(a) Gabezia-egoera da baliabide ekonomikoen gabezia subjektiboa, benetakoa eta ziurra. Gabezia-egoera hori babes dadin, interesdunak egiaztatu behar du legegileak gabezia-egoera izateko ezarri baldintzak betetzen dituela, halakoak batez ere oinarritzen direla gutxieneko ahalbide ekonomikorik ez izatean, gizabanako edo familia-unitate gisa (gutxieneko ahalbide ekonomikoaren kopuru zehatza urtero zehazten da lege bidez).

(b) Beharrizan-egoerak, ordea, bere baitara biltzen ditu legegileak jaso eta tipifikatutako gertakizun batzuk, legegilearen ustez babesa merezi dutenak (esaterako, aldi baterako ezgaitasuna, ezgaitasun iraunkorra, langabezia edo jubilazioa). Horrela, legegileak tipifikatutako gertakizunak jasaten dituzten gizabanakoek ez dute zertan beharrizan-egoerarik egiaztatu. Are gehiago, gizabanako horiek zuzen-

<sup>33</sup> Bereizketa horren inguruan, besteak beste, ALMANSA PASTOR, J.M<sup>a</sup>, *op. cit.*, 227. or. eta MANRIQUE LÓPEZ, F. *Manual de Derecho de la Seguridad Social*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko argitalpen-zerbitzua, 1984, 229-230. orr.

nean jasoko dute babes, hain zuzen, balizko beharrian-egoera saihesteko. Halaber, beharrian-egoerak ez du xedetzat gutxieneko ahalbide ekonomikoa bermatzea, ezpada kasuan kasuko gertakizunak gauzatzearen ondorioz gizabanakoek duten sarrera murrizketa (lan egiteari utzi behar diotelako) edota gastu gehikuntza (zenbait kostu izan ditzaketelako, hala nola, osasun-tratamenduengatik eta ebakuntzengatik) konpentsatzea, ordeztzea. Hori gorabehera, gizabanakoek bestelako administrazio-egintza batzuk gauzatu beharko dituzte, Gizarte Segurantzako Sistemara biltzeko, bertan irauteko eta bertatik babes jasotzeko, hots, afiliatorako, kotizatorako eta baberako harreman juridiko instrumentalak deritzenak.

### 2.1.2. *Aurrezkia*

17. Aurrezkia aurreikuspenean oinarritutako babes-teknika da. Horregatik, arriskuren bat ezbehar bihurtu eta beharrian-egoera sortu baino lehenago gauzatzen da.

Egia esan, aurrezkia aurreikuspenean oinarritutako babes-teknika guztietarik sinpleena da. Baina beharrian-egoera gogorrenei aurre egiteko gabezia gehien dituen era bada. Beharrian-egoera gogor horien artean daude, hain justu ere, gizarte-arriskuek eratorritakoak.

18. Aurrezkiarekin lortzen da unean uneko kontsumoari uko egitea, bihar-etziko ezbehar bati eta horren gastuei aurre egiteko. Agi denez, babes-teknika hori gauzatzea oso erraza da: edozein gizabanakok gauza dezake ezbeharren bat gertatu aurretik, kontsumorako ahalmen ekonomikoa duen bitartean. Beraz, ahalmen ekonomikoak ahalbidetzen duenean, etorkizuneko gastuei aurre egiteko funtsak eratzen dira.

DURANDEN ustez, asko dira aurrezkiaren abantailak arriskuei aurre egiteko. Aurreztutako zenbatekoa aurreztailearen esku dago, eta aurreztaile horrek edozein unetan erabil dezake hori, komeni zaion moduan eta hirugarren bati kalte-ordainak emateko inolako prozedurarik bete

gabe. Gainera, aurrezkiak badu balio morala ere, berarekin dakarrelako banakako ahalegina, esfortzua<sup>34</sup>.

Horrenbestez, historian zehar, aurrezkiak erabili izan da gastu-mota desberdinei aurre egiteko. Aurrezkiak erabili izan da, hala ezbehar baten ondorioak borrokatzeko, nola kostu handiko kontsumo-ondasun baten prezioa ordaindu ahal izateko. Halaber, aurrezkiak teknika erraza denez, batez ere, banakako babes-teknika gisa erabili izan da. Gizabanakoak edo, gehienez, familiak baliatu du aurrezkiak.

Hain zuzen ere, aurrezkiaren banakako izaera hori ez zen nahikoa izan Industria Iraultzaz gero, gizarte-arriskuen ondoriozko beharrian-egoe-rak babesteko. Egin bedi kontu, babes gehien behar zuen gizarte-klaseak, hots, proletarioak, ezer gutxi aurrez zezakeen<sup>35</sup>.

Edonola ere, Aurrezki Kutxen moduko erakunde batzuek ahalbidetu zuten, banakako aurrezkiak pilatuta, gizarte-ekintzan inbertitzea: etxe merkeak, ambulatorioak, erietxeak, herriko kreditu-kutxak. Aurrezki Kutxek, estatuen laguntzarekin, ahaleginak egin zituzten, gizarte-ekintzaren bidez, aurrezkiaren teknika beharrian-egoera berriei egokitzeko. Baina ekoizpen-sistema kapitalista astintzen duten krisi ziklikoek agerian jarri zuten, aurrena, diruaren balio-galerak arriskuan jartzen duela aurrezkiak eta, hurrena, gizarte-arriskuei aurre egiteko nahitaezkoa dela babes-teknika berezia edo zehatza.

Hitz gutxitan esanda, aurrezkiak kolektiboa izan arren, ezegonkorra da, diruaren balio-galeren mende baitago. Gainera, sarritan, aurrezkiak hurbileko beharrian-egoerari aurre egiteko erabiltzen da, bihar-etzi ere beharrian-egoerari izan daitezkeela ahaztuta. Bestalde, aurrezkiak ez da nahikoa gizarte-arriskuei aurre egiteko; izan ere, aurrezkiak berezko akats teknikoak du halako arriskuei begira: ez du arriskua gizartean barreiatzen eta, on-

<sup>34</sup> DURAND, P. *La política contemporánea de Seguridad Social*. Madrid: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 1991, 72. or. Gaztelaniazko itzulpena: VIDA SORIA, J..

<sup>35</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 16. or.

dorenez, ez ditu arintzen arriskuok eragin ditzaketen zamak. Halaber, aurrezkiarekin ez zaizkio arriskuak hirugarren bati besterentzen, aseguruetan gertatu antzera.

### 2.1.3. *Mutualismoa*

19. Lehenengo zibilizazioetan ere antzeman daitezke mutualismoaren aurrekari batzuk<sup>36</sup>. Baina aurreikuspen kolektiboan oinarritutako babes-teknika zehaztugabe honen garairik garrantzitsuena Erdi Aroa izan zen. Bada, mutualismoa lanbide- edo ogibide-elkarteetan eta gremioetan gauzatu zen.

---

<sup>36</sup> Mutualitatea, arriskuak banatzeko askoren arteko elkarte edo batasun gisa ulertuta, gizakiaren berezko fenomeno delako esan daiteke, familiek, hordek eta tribuek ere gauzatzen baitzuten (DONATI, A., *op. cit.*, 19. or.). Horrela, aita hilez gero, tribuak berehala adoptatzen zituen seme-alabak, eta tribuko kideetako bateren baten laboreek edo abereek ezbeharrak izanez gero, enparauek jarduten zuten elkartasunak edo solidaritateak bultzatuta, argi izanik askoren aberastasunak gutxi batzuen zoritxarra konpentsatzen zuela (DEL CAÑO ESCUDERO, F., *op. cit.*, 14. or.). Gerogarrenean, borondatezko fenomeno bihurtu zen hori Ekialdean (Indian, Pertsian, Palestinan, Fenizian, Egipton), non mutualismoa Talmudera eta Hammurabi Kodera bildu zen; izan ere, testu horietan, karabanen inguruko aipamenak mutualitatearen adibide argiak dira: karabanetan edonork jasan zezakeen arriskuak denentzat zituen ondorioak. Grezian eta, batez ere, Erroman, elkarteko fenomenoak helburu desberdinak zituen, hala nola, erlijiosoak, militarrek edo profesionalak. Esangura horretan, Erromako *collegia* desberdinak nabarmendu behar dira. Esaterako, *collegia funeraticia* delakoak ehorzketa-sozietateak ziren, beraien kideei ehorzketa-zerbitzua eskaintzeko helburua zutenak. Kideek aurretiaz funts erkidea eratu eta kasuan kasuko kontribuzioak egiten zituzten, gerogarrenean funtsak ordain ziezazkien ehorzketak, bai eta hildakoaren familiakoek izandako osterantzeko gastuak ere. Era berean, *collegia militum* delakoek aitortzen zituzten, dela zauriek eragindako ezgaitasunari aurre egiteko zenbait pentsio, dela karrera militarreko azken urteetara iristen zirenentzako erretiro-onurak. Laburbilduz, *collegia* guztiak berritzaileak izan ziren, gizartearen estreinako sortu zutelako alde aurretik ordaindu beharreko kuoten sistema eta alde aurretik zehaztutako egoera batzuetan zenbait prestazio emateko promesa. Halaber, *guild*, *compagnonnage*, *corporazione* eta Erdi Aroko gremioen zuzeneko aurrekari izan ziren (GARRIDO y COMAS, J.J. *Tratado General de Seguros*. Madril: Consejo de Agentes y Corredores de Seguros en España, 1986, 1. bolumena, 1. liburukia, 21. or.).



Ogibide edo gremio bereko kideek arrisku berberak eratorritako beharrizan-egoerak jasan behar zituztenez, halako elkarteak hasieratik kezkatu ziren arrisku eta beharrizan-egoera horiei aurre egiteko tresnak biltatzeaz eta arautzeaz.

Azken finean, arrisku berak gremioaren kide guztiak modu beran ukitzeko posibilitateak, Europa osoan hedatutako korporazio-korronteen izaera homogeenak eta Kristautasunak aldarrikatutako senidetasunak eta elkartasunak ekarri zuten gremio bakoitzaren beharrizan-egoerei aurre egiteko babes-teknika berria eratzea, hots, mutualismoa.

20. Aipatu bezala, aurrezkian, arriskuen ondorioak borrokatzeko behar adinako aberastasuna lortzen da ondorio horiek duten kostuaren zenbateko osoa pilatuz. Bestela esanda, arriskua ez da barreiatzen. Haatik, mutualismoan, arriskuen ondorioek duten kostua subjektu batzuen artean banatzen da. Horregatik esan bide da mutualismoan arriskua barreiatzen dela<sup>37</sup>.

Halatan, gremioak berarekin ekarri zuen pertsona askoren arteko elkartasuna, gremioko kide bakoitza beharrizan-egoeran gera zitekeenean, denen artean balizko beharrizan-egoera horri aurre egiteko. Kide guztiek eman behar zuten zerbait, beharrizan-egoera gauzatzean (derrama) eta, batik bat, hori gauzatu aurretik, funts egokia eratuz eta funts horretara kasuan kasuko kuotak ekarriz.

21. Bestalde, mutualismoaren aurreikuspen-eginkizuna ez zetorren bat ongintzarekin edo laguntza publiko nahiz pribatuarekin. Bateko, ongintza eta laguntza aplikatzen ziren arriskua beharrizan-egoera bihurtu ondoren bakarrik. Besteko, ongintzak eta laguntzak gizartearen zati bat bakarrik babesten zuten, alegia, egoera larri eta jasanezina egiaztatzen zutenak (eskaleak, arloak, txiroak).

Ezaugarri horiek zirela eta, ongintzak eta laguntzak ez zuten balio gremioetako kideak babesteko; hurrean ere, kide horiek ez zuten egoera

<sup>37</sup> DONATI, A., *op. cit.*, 8. or.

larri eta jasanezinik: lan eginez bizimodua ateratzen zuten, ahalbide ekonomikoa zuten beraz. Gainera, arrisku baten ondorioz gremioko kideetako bat beharrian-egoeran geratu ostean ere, urria zen ongintzak eta laguntzak eskaini zezaketen babes. Laguntza pribatuaren esparruan, ezer gutxi egin zezaketen familiek, erakunde erlijiosoek edo karitateak. Laguntza publikoaren aukerak ere oso murrizak ziren, babestu beharreko subjektuak asko zirelako eta finantza-iturriak gutxi<sup>38</sup>.

Labur-zurrean esanda, Erdi Aroan, gremioen barruan gauzatutako mutualismoak ez zuen parekorik izan babes. Gizartean hedatzeko: bereizkeriarik egiten ez zuen teknika zen, bai eta nolabaiteko sorospena ziurtatzen zuena ere<sup>39</sup>.

22. Behin gremioek behea jo zutenean, manufakturak eta fabrikak nagusitu ziren. Industria Iraultzak ekoizpen-egiturak zeharo aldatu zituen eta, ondorenez, alokairuko langilea agertu zen. Esan bezala, orduantxe agertu ziren gizarte-arriskuak ere.

Gizarte-arrisku horiek hedatu ahala, alokairuko langileek gremioek aplikatutako mutualismoa hartu zuten eredu, beharrian-egoerei aurre egiteko. Bat-batean, duda-mударik gabe egoera larriak eraginda, langilariaren mutualismoak gremioen mutualismoa ordeztu zuen.

Alokairuko langileak euren kabuz antolatu ziren. Horretarako, Elkarrekiko Sorospen Sozietateak eratu zituzten<sup>40</sup>. Erakunde horrek makina bat ezaugarri hartu zituen gremioek erabilitako babes-teknikatik.

<sup>38</sup> RODRÍGUEZ RAMOS, M.J., GORELLI HERNÁNDEZ, J. eta VILCHES PORRAS, M. *Sistema de Seguridad Social*. Madril: Tecnos, 1999, 28. or.

<sup>39</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 74-75. or.

<sup>40</sup> Industria Iraultza azkar hedatu zen Ingalaterran eta, ondorenez, elkarrekiko sorospen sozietateak erakunde garrantzitsuak izan ziren bertan, alegia, *Friendly Societies* delakoak. Halatan, Ingalaterran, XVIII. mendearen amaieran, langilariaren mutualismoak izandako arrakasta eta gero, osterantzeko estatuetan ere eredu bera edo antzekoak agertzen hasiko dira. Halakoen inguruan ikusi VENTURI, A., *op. cit.*, 68-71. orr.

Hartara, sozietatearen kideak lanbidearen arabera elkartzen ziren, gehienetan, toki-mailan. Sozietatearen xedea zen kide bakoitzak kutxa erkidera ekartzea irabazitako alokairuetatik zati bat, beharrian-egoeran, alokairurik jasotzeko aukerarik gabe gera zitekeen langileari laguntzeko.

Alabaina, gremioaren mutualismoak bere baitara biltzen zituen hierarkia-erakunde horretako kide guztiak (mais, ofizial nahiz ikastunak), eta langileriaren mutualismoak ez. Bada, langileriaren mutualismoak sistema kapitalistaren aurkako langileen mugimendua bakarrik bildu zuen. Horrenbestez, sarritan nahastu ziren langileriaren mutualismoa, kooperatiba-mugimendua eta erresistentzia-sozietateak. Liberalismoaren ideologia indartu zenean, denek ere arazo berarekin topo egin zuten, hots, errepresioarekin, «estatuaren eta gizabanakoaren artean ezer ere ez» zioen printzipioaren aurka zihoazelako.

23. Edonola ere, langileriaren mutualismoaren emaitzak eskasak izan ziren, ez baitziren behar bestekoak izan alokairuko langileen beharrian-egoera guztiei aurre egiteko. Gremioetako kideak ez bezala, alokairuko langileak ez ziren gai izan gizarte-arriskuek eratorritako beharrian-egoeren kostuei aurre egiteko. Beraz, mutualismoa, ordura arte ulertu zen moduan bederen, ez zetorren bat errealitate berriarekin.

Gremioetako mutualismoan gertatu antzera, langileriaren mutualismoan ere taldeak jasan behar zituen gizarte-arriskuak, eta ez gizabanako batek bakarrik, baina teknika horrek gremioen garaian izan zuen eragin-garritasuna ezerezean geratu zen. Alokairuko langileak gizarteko klaserik txiroena bihurtu ziren, eta lanaldi akigarrien truke jasotzen zituzten alokairu urriak barregarri ziren mutualitateei egin beharreko ekarpenentzako. Behar adinako diru-sarrerak lortzeko ahalmenik izan ezean, gizarte-arriskuek eratorritako beharrian-egoerak ezin ziren modu egokian estali<sup>41</sup>.

---

<sup>41</sup> DURAND, P., *op. cit.*, 78. or.

Bestalde, gizarte-arriskuek eratorritako beharizan-egoeren kostu handien aurrean, Elkarrekiko Sorospen Sozietateen borondatezko izaerak ezinezko egiten zuen behar beste kide batzea, arriskuak erabat barreiatzeko<sup>42</sup>. Alokairuko langileen egoera kaskarra eta Elkarrekiko Sorospen Sozietateen borondatezko izaera izan ziren gero eta kide gutxiago batzeko arrazoirik garrantzitsuena. Egin-eginean ere, langileek nahikoa zuten eguneroko ogia lortzearekin, bihar-etziko arriskuez kezkatu beharrean.

#### 2.1.4. *Aseguru pribatua*

24. Aseguru pribatua, mutualitatea bezala, aurreikuspen kolektiboan oinarritu zen, arriskuak barreiatzeko xedarekin. Alabaina, aseguru pribatuak mutualitateari osagai berria gehitu zion, alegia, arriskuak besterentzea.

Hain zuzen ere, bi osagai horiek, hots, mutualitatea eta arriskuak besterentzea, izango dira geroago sortuko diren gizarte-aseguruen eta Gizarte Segurantzaren oinarri.

Hala eta guztiz ere, aseguru pribatuak ere eurak bakarrik ez dira nahikoa izango gizarte-arriskuei aurre egiteko. Gainera, beste arrisku-mota batzuei begira ere erabiliko dira, eta horregatik izango dira babes-teknika zehaztugabea. Beraz, Gizarte Segurantzarako bilakaeran urrats bat gehiago eman beharko da, horren aurrekaririk hurbilenekoarekin bat egiteko, hau da, gizarte-aseguruekin.

25. Aseguru pribatuen jatorria itsas esparruan dago, esparru horrek dituen ezaugarri bereziak direla-eta<sup>43</sup>. Esangura horretan, itsasoa bera da

<sup>42</sup> DURAND, P., *op. cit.*, 79. or.

<sup>43</sup> Aseguruaren jatorri zehatza eta hori sortu zeneko data zehatza zalantzarakoak badira ere, jakina da itsas asegurua dela aseguru-motarik zaharrena, eta bera dela gainerako aseguru-moten oinarria (GUTIÉRREZ DE LA CÁMARA, J.M. *Derecho marítimo*. Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Ministerio de la Marina, Colección de Estudios de Derecho Internacional Marítimo, 1956, 400. or.).

itsasoko zuzenbidearen ezaugarririk garrantzitsuenetakoa; izan ere, itsasoak arrisku jakin batzuk sortzen ditu, nabigazioari datxezkionak: matxurak, abordatzeak, hondoratzeak...<sup>44</sup>. Horrez gain, zaila zen aseguria

---

Itsas aseguria agertu aurretik ere antzeman daitezke aurrekari batzuk itsas esparruan. Esangura horretan, ontziko izakinen araberako mailegua izan zen abiapuntua. Bada, itsas bidaieen arriskuak estaltzeko lehenengotariko erakundetzat jo izan da hori. Gerogarrenean, Rodaseko biztanleek *Lex Rodia* delakoan matxura handiari buruzko arauak ezarri zituzten, bai eta egozketari buruzkoak ere. Arau horiek Erromako zuzenbidera bildu ziren, hain zuzen, Digestoaren XIV. liburuko II. titulura, *Lex Rhodia* izenburupean (ikus DE UNZURRUNAGA, P. *Derecho Mercantil Marítimo, Averías*. Madril: Reus, 1935, XIV. liburukia, 3. or.; DE GAMECHOGOICOECHEA y ALEGRÍA, F. *Tratado de Derecho marítimo español*. Bilbo: 1941, 1. liburukia, El Derecho Marítimo. El Personal Navegante, 21-22 orr.; D'ORS, F., HERNÁNDEZ-TEJERO, F., FUENTESECA, P., GARCÍA-GARRIDO, M. eta BURILLO, J. *El Digesto de Justiniano*. Constituciones Preliminares y Libros 1-19. Iruñea: Aranzadi, 1968, 1. liburukia, 543 eta 545. orr.).

Modu horretara, matxura handiaren arauketarekin eta, bereziki, matxurarik ohikoenen artean araututako egozketarekin, nabigazioaren arriskuei aurre egiteko babes-mota berria sortu zen, ontzia eta merkatu-gaiak oinarri hartuta. Erdi Aroan, matxura handiaren erakundea garaiok bildumetan jaso zen, eta XIX. mendean merkataritza-kodeetan. Gaur egun, York-Anberes Erregelak aplikatzen dira, *lex mercatoria* gisa (ikus FARÍÑA, F. *Derecho y Legislación marítima*.artzelona: Bosch, 1955, 334. or.).

Edonola ere, itsas aseguria estu lotzen zaio ontziko izakinen araberako maileguaren bilakaerari, eta bereziki mailegu horrek XIII. mendetik aurrera izango dituen gorabeheri. Hain zuzen, erromatarrek greziarrendandik hartu zuten erakunde hori, egiatan, espekulazio-tresna zen, eta hortik etorri ziren arazoak. Hartara, XIII. mendearen hasieran, zuzenbide kanonikoa mailegu-mota horren aurka jarri zen, eta 1230ean Gregorio IX.a Aita Santuak lukurreriatzat jo eta debekatu egin zuen hori (Ikusi VELLVÉ BUENO, E. *El asegurador frente al tercero responsable*. Madril: Vicente Rico, S.A., 1945, 52-53. orr.; REHME, P. *Historia Universal del Derecho Mercantil*. Madril: Revista de Derecho Privado, 1941, XVIII. liburukia, 52. or. Gaztelaniazko itzulpena: GÓMEZ ORBANEJA, E.; URÍA GONZÁLEZ, R. *El seguro marítimo*.artzelona: Bosch, 1940, 8. or.). Debeku horren ondorioz, mailegu-mota horrek aldarazpen batzuk izan zituen eta, apurka-apurka, itsas asegururako bilakaera hasi zen (ikus BENÍTEZ DE LUGO REYMUNDO, L. *Tratado de Seguros*. Madril: Reus, 1955, 1. liburukia, 58. or.).

<sup>44</sup> DE GAMECHOGOICOECHEA y ALEGRÍA, F. *Tratado de Derecho Marítimo Español*. Bilbo: 1941, 4. liburukia, Seguros Marítimos. Préstamo a la gruesa, 7. or.

beste esparru batzuetan aplikatzea. Itsasoko aseguruia bidaia baterako egin zitekeen, bidaia hori hasi eta amaitu arte; gainerako esparruetan, ordea, arriskua epe luzera estali behar zen, arriskua estaltzeko antolaketa iraunkorra eta konplexua behar zelako<sup>45</sup>.

Horrela, XIV. mendetik aurrera, itsasoko aseguruia izan zen nabigazioaren arriskuak estaltzeko teknikarik garrantzitsuena. Baina itsasoko aseguruia soil-soilik gauzen aseguruia izan zen, hau da, ontziak edo horiek garraiatutako objektuak edo merkatu-gaiak babesteko bakarrik erabili zen<sup>46</sup>.

Denbora asko igaro behar izan zen, aseguruak itsas esparrua gainditzeko. Hurrean ere, itsasoko aseguruia izango da XVII. mendetik aurrera lehorrean hedatuko diren aseguru pribatuen eta aseguru-enpresen aurrerakaria. Askotarikoak izango dira aseguru pribatu horiek, eta horietan oinarrituko dira, berebat, gizarte-aseguruak eta Gizarte Segurantza. Bada, XIX. mendean, Industria Iraultzak eratorritako gizarte-arriskuei aurre egiteko, aseguru pribatuetara joko da.

26. XVII. mendea hastean, itsasoko aseguruia Europa osoan hedatuta zegoen. Gainera, itsasoko aseguruaren inguruan aurrerapen garrantzitsuak egin ziren; aurrerapenok ezinbestekoak izan ziren, aseguruia lehorrean aplikatzeko. Estatistikak eta zenbaki handien legean oinarritutako kalkulu aktuarialak eta probabilitateen kalkuluak egonkortu egin zuten aseguru-primen kalkulua. Eskala handian gauzatu ziren aurreikuspena eta arriskuen barreiatzea. Bestalde, aseguru-enpresen konplexutasuna areagotu ahala, akzioen bidezko sozietateek banakako aseguratzailak ordeztu zituzten. Horrela sortu ziren, bada, aseguru-konpainia handiak, hala nola, Ekialdeko Indietako konpainia holandarra (1602an) eta branderburgoar-amerikarra (1688an).

27. Suteen aurkako aseguru-enpresak izan ziren lehorrean eratu ziren lehenengoak, Londonen eta Hanburgon, 1666tik 1684ra. Ezari-ezarian,

<sup>45</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 78. or.

<sup>46</sup> ARTAZA, I. *Derecho marítimo*, makinan idatzitako alea, argitaragabekoa, 50. or.

lehorreko garraioak eratorritako arriskuen aurkako aseguruak sortu ziren, bai eta ebasketa, txingor eta abereek eratorritako arriskuen aurkakoak ere<sup>47</sup>.

Berrikuntzarik handiena izan zen aseguru pribatuen teknika pertsonen aplikatzeko lehenengo ahalegina. Aseguruen bidez, aseguraturako pertsonari kalte-ordain batzuk bermatu nahi zitzaizkion, aseguraturako arriskua ezbehar bihurtu ondoren, beharizan-egoerak sor ez zitezen<sup>48</sup>.

Horrela, aseguruaren teknika Ingalaterran aplikatu zitzaien lehenengo aldiz pertsonen, bizitza-aseguruarekin. Zientzia aktuarial modernoari esker, 1762an sortu zen bizitza-aseguruari buruzko lehenengo konpainia: *The Society for Equitable Assurance on Lives and Survivorships*. Gainera, 1774an, *Gambling Act* delakoak bizitza-aseguru apustutik banandu zuen, lehenengoaren baliozkotasuna aldarrikatuz eta bigarrena debekatuz<sup>49</sup>.

28. Ingalaterrako esperientzia gainerako estatuetara hedatzen hasi zen, eta aseguru pribatuak erabiltzeko joera Frantziako Iraultzaren ondorengo urteetan baino ez zen eten. Behin iraultzaren unerik gogorrenak igarota, XIX. mendean, itsas-aseguruak indartsu jarraitu zuten eta lehenengo Merkataritza Kodeetan ere jaso ziren. Orobat, lehorreko aseguruak eta bizitza-aseguruak aurrera egin zuten<sup>50</sup>.

<sup>47</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 78. or. Suteen aurkako aseguruari dagokionez, nabarmendu behar da 1666ko Londoneko suteak horretan izandako eragina. Jabetza pribatuak pairaturako hondamendiaren ondorioz, urte batzuk geroago suteen aurkako aseguru-konpainia handiak eratu ziren. Zehatzago, 1667an suteen aurkako lehenengo aseguru-erakundea sortu zen eta, 1670ean *Sun Fire Office* delakoa, 1726an *Sun Insurance office* bihurtu eta gaur egunera arte irau duena (GARRIDO y COMAS, J.J., *op. cit.*, 24. or.).

<sup>48</sup> Lehenengo urrats horien adibide da 1699an, bizitza-aseguruen inguruan, Ingalaterran sortutako aseguru-konpainia: *Society of Assurances of Widow and Orphans* (BENÍTEZ DE LUGO REYMUNDO, L., *op. cit.*, 98. or.).

<sup>49</sup> BENÍTEZ DE LUGO REYMUNDO, L., *op. cit.*, 98-99. orr.

<sup>50</sup> DONATI, A., *op. cit.*, 22. or.

Garai berean, Industria Iraultza puri-purian zegoen. Horren ondorio ziren asmakuntzek (automobilek, makinek...) eratorritako istripuak gehitu zirenez, izaera autonomo eta propioarekin sortu zen banakako istripuen aseguruua.

Halatan, laster hasi ziren gizarte-arriskuei aseguruaren teknika aplikatzeko saiakera edo ahaleginak.

29. Gizarte-arriskuen aurka aplikatu ziren lehenengo aseguruak herri-aseguruak izan ziren. Bizitza-aseguruaren antzekoak ziren, baina bazituzten berezitasun batzuk<sup>51</sup>:

(a) Aurrezki erraztu nahi zen, eta, horretarako, zatikako primak ezarri ziren, maiztasun handiz ordaindu beharrekoak (astero, hamabost egunero, hilero).

(b) Gastuak ahalik gehiena murrizteko, ez zen ezarri hasierako azterketa medikorik.

(c) Kalte-ordainak jasotzeko nahitaezkoa zen aurretiaz aseguru-primak ordaintzea, baina halakoak ordaintzeko epeak murriztu egin ziren.

Gizarte-arriskuetatik eratorritako beharrianen artean, herri-aseguruak heriotza babestu zuten gehienbat, baina lan egiteko ezgaitasun iraunkorra ere babestu zuten.

Aseguru kolektiboan oinarrituta ere ahalegin ugari egin zen, gizarte-arriskuak borrokatzeko<sup>52</sup>. Aseguru kolektibora banakako aseguru batzuk biltzen ziren. Hortaz, pertsona-taldea aseguratzeko zen, eta ez giza-banakako bakoitza. Bestela esanda, taldearen kideak modu inpersonalean babesten ziren. Aseguru-kontratu bakar batek, prima bakar batek, ahalbidetzen zuen taldeko kide guztien babesa antolatzea.

<sup>51</sup> Herri-aseguruaren ezaugarriei buruz ikusi DURAND, P., *op. cit.*, 81. or.; VENTURI, A., *op. cit.*, 80. or.; ALMANSA PASTOR, J.M. *op. cit.*, 45. or.

<sup>52</sup> Aseguru kolektiboari buruz ikusi DURAND, P., *op. cit.*, 82. or.



Enpresaburu askok baliatu zuten aseguru kolektiboa euren langileak babesteko heriotzaren, lan egiteko ezgaitasunaren edo zahartzaroaren ondoriozko beharrizan-egoeretatik.

Kalteei buruzko aseguru-mota batzuk ere erabili ziren gizarte-arriskuak babesteko. Horren adibide dira gaixotasun-arriskuak edo aseguru kirurgikoak. Lanbide-arriskuak —lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak— babesteko lehenengo saiakerak ere orduantxe egin ziren<sup>53</sup>.

30. Esperimentazio-prozesu horretan, gizarte-arriskuei aurre egiteko babes-teknika berezi edo zehaztua ez zebilen urruti, baina, artean, aseguru pribatua gehiago moldatu behar zen gizarte-arriskueta.

Zinez, aurrezkiaren edo mutualitatearen aldean, aseguru pribatuaren teknika aurreratua zen, arriskuak besterentzeko ideia zekarrelako. Alabaina, ez zen nahikoa izan, gizarte-arriskuek eratorritako beharrizan-egoerei aurre egiteko. Aseguru pribatuaren borondatezko izaera izan zen horren arrazoi nagusia. Izaera hori ez zetorren bat alokairuko langileen egoerarekin. Egin-eginean ere, alokairuko langileak ziren gizarte-arriskuak jasaten zituztenak, eta, aldi berean, horiei aurre egiteko aukera gutxien zutenak: enpresaburuek ordaindutako alokairu urriekin ezin zieten aseguru-primeia aurre egin. Gainera, aseguru-enpresek irabazteko asmoa zuten, eta horrek ondorio negatiboak izan zituen aseguratu txiroenentzat. Beraz, aseguru pribatuaren teknikak ez zuen balio beharrizan gehien zuten pertsonentzat.

Nolanahi ere, aseguru pribatuek ezarri zituzten gizarte-aseguruen eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko printzipioak:

- (a) Arriskua izatea, hau da, ondorio ekonomiko negatiboak sortzakeen ezbeharra izateko aukera (halakorik ez badago, jokoia edo apustua egongo da).

---

<sup>53</sup> *Ibidem.*

- (b) Subjektu batek arrisku hori beste subjektu bati besterentzea (besterentzerik ez badago ez dago aseguratik; asko jota aurrezkoa egongo da).
- (c) Arriskua besterentzean, arriskua mutualitatearen bidez barreiatzea.
- (d) Arriskua besterentzeko eragiketa autonomoa izatea (autonomoa ez bada beste eragiketa batzuen ondorio besterik ez da izango, berme- edo elkartze-eragiketen ondorio, kasu)<sup>54</sup>.

## 2.2. Babes-teknika zehaztuak

31. Babes-teknika zehaztugabeak ez zuten balio gizarte-arriskuei aurre egiteko, eta horren adibide dira horiekin egindako ahalegin guztiak. Beraz, babes-teknika zehaztua edo berezia behar zen.

Horretarako, aseguru pribatuak izan ziren abiapuntu, mutualismoaren eta arriskuak besterentzearen ezaugarriekin. Hala ere, horrekin ez zen nahikoa. Aseguruak eragingarriak izateko nahitaezkoak izan behar zuten eta enpresa aseguratzailerik irabazteko asmoa galdu behar zuten. Aldaketa horiek gauzatzean agertuko dira gizarte-aseguruak, Gizarte Segurantzaren aurrekaririk hurbilenekoa

Baina Alemanian izan ezik, bertako inguruabar bereziengatik, osterantzeko estatuetan, aseguru pribatuak gizarte-aseguru bihurtu aurretik, beste urrats batzuk eman behar izan ziren. Behar-beharrezkoa zen estatuak konturatzea, jabetzea, alokairuko langileek zuten egoera larriaz eta horrek gizartearentzat zekarren egonkortasunik ezaz.

Horrela, langileen aldeko mugimendu desberdinen presioaren ondorioz, estatuak ekonomian esku hartzeari ekin ziotenean, lehenengo lan-arauak sortu ziren, eta horien artean gizarte-arriskuei aurre egiteko edo-

---

<sup>54</sup> DONATI, A., *op. cit.*, 9. or.

zenbat neurri. Bada, neurri horiek, azkenean, aseguru pribatuen eredua baliatu zuten. Horrelaxe sortu ziren lehenengo lan-istripuen legeak, horien ikusgarritasuna eta larritasuna aintzat hartuta<sup>55</sup>. Aurrerantzean, lan-istripuetara egokitutako aseguruaren helburu bakarra izango da langileak arrisku zehatz horretatik babestea. Eta aurrerantzean, aseguru-mota horrek bilakaera erabat independentea izango du, ezaugarri bereziekin<sup>56</sup>.

Lan-arriskuen lehenengo legeen esperientzia izango da gizarte-aseguruak sustatuko dituenak. Horrela, lehenengo eta behin, lan-istripuen aurkako gizarte-aseguruak sortuko dira, eta gero, ezari-ezarian, inguruabarrek ahalbidetu ahala, ekonomia-izaerakoek batez ere, gizarte-aseguruen sarea hedatuko da, gainerako gizarte-arriskuei aurre egiteko. Gizarte-arrisku horien artean nabarmendu behar dira: zahartzaroa, baliaezintasuna, gaixotasuna, amatasuna eta langabezia.

Laburbilduz, lan-istripuei buruzko legeak aseguru pribatuen eta gizarte-aseguruen artean kokatzen dira. Ondorenez, lehendabizi, lan-istripuei buruzko legeen nondik norakoak aztertzea komeni da, hurrengo azpiataletan gizarte-aseguruen eta Gizarte Segurantzaren ezaugarri orokorrak jorratzeko.

### 2.2.1. *Lan-istripuen legeak*

32. Aurrezteko, mutualismoa gauzatzeko edo aseguru pribatuen primak ordaintzeko gai ez ziren langileek, lan-istripuen areagotzea oinarri, estatuari erreklamatu zioten enpresaburuen aurkako nolabaiteko eran-

---

<sup>55</sup> Lan-istripuen ondorioak larriak ziren, istripua jasaten zuena, gehienetan, egoera ekonomiko kaskarrean geratzen zen eta, beharbada, ondoko hau zen inguruabarririk esanguratsuenak: lan-istripuak gertatzen ziren ekoizpen-bide berriak erabiltzeagatik eta ekoizpen-katean ordu askotan eta lanaldi nekagarrietan lan egiteagatik (ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 19. or.).

<sup>56</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 84. or.

tzukizuna arautzea. Langileen ustez, enpresaburuek irabazteko asmoarekin kontratatzen zituzten langileak, eta enpresaburu horiek ziren istripuak eragiten zituzten ekoizpen-bideen jabeak<sup>57</sup>.

Estatuek postulatu liberalak bazter utzi eta amore eman behar izan zuten, batez ere, egoera baretzeko eta botereari eusteko. Alabaina, mekanismo egokia aurkitu behar zuten, gizarte-azia konpontzeko. Erantzukizunaren mekanismoaren arabera, gizarte-arriskua sortzen zuen pertsonak erantzun behar zuen arrisku horrek eratorritako kalteei begira. Beste hitz batzuekin esanda, erantzukizunaren mekanismoaren bidez lortu nahi zen enpresaburuek kalte-ordainak ematea istripuak jasaten zituzten langileei.

Horretarako, estatuek, hasieran behintzat, zuzenbide erkidera jo zuten, hots, kodifikatutako zuzenbide zibilera. Arean ere, XIX. mendeko kodeen oinarri zen filosofia liberalaren arabera, ondoko printzipio hauek izan behar zuten nagusi alderdi pribatuen arteko harremanetan<sup>58</sup>:

- (a) Borondate-autonomiaren printzipioa, gizabanakoa eskubide-dun subjektu aske gisa hartzen baitzen.
- (b) Jabetza, gauzen gainean erabateko kontrola izateko ahalmen gisa ulertuta.
- (c) Erruaren ondoriozko erantzukizuna, borondatez eragindako kaltea konpontzeko betebeharraren ondorio zena.

33. Hala eta guztiz ere, enpresaburuek uste baino lehenago utzi zuten ezerezean estatuen asmoa, arriskua onartu izanaren doktrinan oinarrituta. Doktrina horren arabera, langileak arriskua onartzen zuen lan-kontratu modu borondatez batez egitean. Sekuentzia guztiz logikoa zen:

<sup>57</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 85. or.

<sup>58</sup> LORENTE SARIÑENA, M. eta GARRIGA ACOSTA, C. Certeza jurídica vs. justicia social: la Ley de Accidentes de Trabajo y el liberalismo español. In *Cien años de Seguridad Social. A propósito del centenario de la Ley de Accidentes de Trabajo de 30 de enero de 1900*. Madril: Fraternidad-Muprespa, 2000, 66 eta 68. orr.

pertsona askea, egintza askea, egintza erantzulea, bere ondore guztiekin. Esangura horretan, kontratuen eta kalteen zuzenbide klasikoak, zuzenbide erromatarraren ondorio zenak, erantzukizunetik askatzen zuen istripuan parte hartzen ez zuen pertsona oro, eta azken ondorioetaraino eramaten zuen «*volenti non fit iniuria*» araua<sup>59</sup>.

34. Europako zuzenbide kontinentalak, Frantziako Kodearen ildotik *Lex Aquilia* erromatarraren oinarritu zenak, ezarri zuen enpresaburuaren erantzukizuna soil-soilik enpresaburuaren erruan oinarri zitekeela, betiere, hurrengo betekizunak aintzat hartuta:

- (a) Pertsona erantzulea falta baten errudun zela adierazi behar zen.
- (b) Faltaren bat egin arren ere, frogaren zama biktimari zegokion.
- (c) Erantzukizuna arindu egiten zen, istripua biktimaren falta baten ondorio bazen, eta desagertu, eragindako kaltea biktimari soilik egozteko moduko falta baten ondorio bazen.

Doktrina hori lan-istripuari aplikatuta, enpresaburuak erantzukizuna izan zezan istripua jasandako langileari begira, behar zen, batetik, enpresaburuaren errua, eta, bestetik, langileak erruduntasun hori frogatzea.

Beraz, erruaren ondoriozko erantzukizuna edo erantzukizun aquiliarra —kontratuz kanpokoa— praktikan jarri orduko, mekanismo horren eragingarritasunik eza egiaztatu zen, lan-istripuen arazoa konpontzeko.

Halatan, istripua jasaten zuen langileak frogatu behar zituen kaltea, kalte horren arrazoa (enpresaburuaren errua) eta horien kari bidezko lotura. Horregatik, enpresaburuek hurrengo arrazoiak balia zitzaketen beraien errugabetasuna defendatzeko edo justifikatzeko<sup>60</sup>:

<sup>59</sup> BORRAJO DACRUZ, E., *op. cit.*, 82. or. Arriskua onartu izanaren doktrina Ingalaterran sortu zen *Priestley v. Fowler* kasuan (1837an), eta Estatu Batuetara hedatu zen gero, *Fanwell v Boston and Worcester R.R.* kasuan aplikatu ondoren (1842an). Bi kasu horiei buruz ikusi LORENTE SARIÑENA, M. eta GARCÍA ACOSTA, C., *op. cit.*, 62. or.

<sup>60</sup> BORRAJO DACRUZ, E., *op. cit.*, 84. or.

(a) Kalteari zegokionez, halakorik izan bazen, behinik behin, arazorik larriena horren norainokoa zehaztea zen, batez ere, heriotzaren ondoriozko kalte moralaren zenbatekoa ezartzeko.

(b) Kaltearen arrazoiari eta kari bidezko loturari zegokienez, sarritan, ezinbesteko kasuak, ustekabekoak, hirugarrenen ekintzak (lankideena nahiz lanaz besteko pertsonena) edota istripua jasan zuen langilearen egintzak zeuden.

(c) Erruduntasunari zegokionez, aurretiaz aipatu inguruabar askatzaileak gorabehera, beti alega zitekeen lanbidearekin bat zetozen babes-neurriak betetzen zirela.

35. Doktrina horrek alokairuko langileei begira zituen gabeziak gainditzeko, erabaki zen frogaren zama aldaraztea. Horren ondorioz, *iuris tantum* erako presuntzioa ezarri zen, hots, enpresaburua gertatutako lan-istripuen errudun zela. Dena den, halako presuntzioek aurkako froga onartzen dutenez, enpresaburuek aisa frogatzen zuten euren errugabetasuna, arestian aipatu inguruabarrak alegatuz. Horrela, enpresaburuen erantzukizunik eza agertzen zen berriro ere, eta arazoa konpontzeke geratzen zen.

36. Erruaren ondoriozko erantzukizuna, erantzukizun aquirria edo kontratuz kanpokoa eragingarri ez zela ikusirik, SAINCTELETTEK, Belgikan, eta SUAZETEK, Frantzia, kontratu-erantzukizunera jo zuten<sup>61</sup>.

Kontratu-erantzukizunaren arabera, enpresaburua lan-kontratu baten bidez lotzen zitzaion langileari, eta kontratu hori egiterakoan, enpresaburuak bere gain hartzen zuen langilea onik itzultzeko betebeharra, lanaldia amaitu ostean. Bestela esanda, enpresaburuak segurtasun-betebeharra ez betetzearen ondorio gisa ulertzen zen lan-istripua. Horrenbestez, enpresaburuari zuzenbide osoko erantzukizuna egotzi nahi zitzaion.

Haatik, jurisprudentziak uste baino lehenago nabarmendu zituen doktrina horren gabeziak:

<sup>61</sup> Kontratu-erantzukizuna lan-istripuari aplikatzearen inguruan ikusi DURAND, P., *op. cit.*, 85-86. orr.

(a) Postulatu liberaletan oinarritutako kontratu-legeriaren arabera, ezin onar zitekeen segurtasun-betebeharra kontratuko alderdien isilbidezko borondatearen emaitza izatea, alegia, ezin onar zitekeen isilbidezko klausula batek halako ondore astunik sortzea, alderdietako batentzat. Halako klausulek, bada, ezerezean uzten zuten borondate-autonomiaren printzipioa, bai eta alderdien arteko berdintasuna eta askatasuna ere.

(b) Garai hareetako kontratu-legeriari estu lotuta, ezerk ez zuen eragozten, kontratuetan enpresaburua segurtasun-betebehar guztietarik askatzeko klausula jasotzea, eta, beraz, enpresaburua erantzukizun orotatik askatzea.

(c) Enpresaburua kasu guztietan erantzule izatea nahierakeria garbia zen; izan ere, gerta zitekeen lan-istripuaren arrazoia ezinbesteko kasua izatea edo lanaz besteko pertsona baten ekintza.

37. Konklusio gisa, argi dago postulatu liberaletan oinarritutako mekanismoak ez zirela baliagarriak lan-istripuei aurre egiteko. Postulatu liberalak behin betiko gainditu behar ziren, eta estatuek ere hori egin zuten, erantzukizun zibileko mekanismoak bazter utzi eta erantzukizun objektiboaren aldeko apustua eginez<sup>62</sup>. Hala ere, erantzukizun objektiboak aldaera desberdinak izan zituen:

(a) Lehenengo aldaeretako bat lanbide-erantzukizunean oinarritu zen. Horren arabera, enpresaburuak enpresa eratzen zuen, eta horren jardunbideak istripuak eragin zitzaizkeen. Hori zela eta, inoren errua gorabehera, zilegitzat jo zen enpresaburua arduratzea lan-istripuen ondorioez<sup>63</sup>. Hurrean ere, enpresaburua zen bere langileek jasaten zituzten lan-istripuen lehenengo erantzulea, istripu horiek ere enpresa-jardunbidearen ondorio baitziren. Horrenbestez, enpresaburua erantzukizunetik aska zedin, nahitaezkoa zen lan-istripua

<sup>62</sup> DEL PESO y CALVO, C., *op. cit.*, 22. or.

<sup>63</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 87. or.

ezinbesteko kasuaren ondorio izatea edo istripua jasan zuen langilearen dolozko edo erruzko jokabidearen ondorio. Harrezkero, esan ohi da, lan-istripua langilearen erruzko jokabidearen ondorio de-nean, langilearen zuhurtziagabekeria ausartegia dagoela<sup>64</sup>.

(b) Halaber, lehenengo aldaera horrek eratorri zuen agintea izatearen ondoriozko arriskuaren teoria. Teoria horren arabera, langilea enpresaburuaren zuzendaritza-ahalmenaren mende zegoenez, enpresaburuak erantzun behar zuen lan-arriskuez<sup>65</sup>.

(c) Erantzukizun objektiboaren hirugarren aldaerak gainditu egin zen enpresaburuaren erantzukizuna; izan ere, erantzukizun kolektiboan oinarritu zen. Lanbide-erantzukizunak eta agintea izatearen ondoriozko arriskuaren teoriak ere erantzukizun objektiboa zuten oinarri, baina erantzukizun objektibo horrek banakako izaera zuen. Erantzukizun kolektiboaren ildotik sortu ziren, hain zuzen, hedatutako arriskuaren edo enpresa-arriskuaren teoria. Teoria horren arabera, lan-istripuen ondoriozko erantzukizuna enpresako beste gastu bat baino ez zen, ekoizkinei egozteko modukoa. Hortaz, hasieran enpresa bihurtzen zen erantzule, baina, gerogarrenean, kontsumitzaileak ziren, ekoizkinekin prezioa ordaintzean, lan-istripuen ondoriozko erantzukizuna jasaten zutenak. Bestela esanda, kontsumitzaileek jasan behar zuten aseguruaren kostua<sup>66</sup>.

Bada, aldaera horiek guztietarik, lan-istripuen legeak lehenengoan oinarritu ziren, lanbide-arriskuaren ondoriozko erantzukizunaren aldeko apustua eginez. Haatik, Alemanian sortutako gizarte-aseguruak hirugarren aldaeran oinarritu ziren.

Esangura horretan, Alemaniako legeriaren arabera lan-istripua gizarte-arriskua zen, gizarte-aseguru batek estaldu behar zuena; erantzukizu-

<sup>64</sup> BORRAJO DACRUZ, E., *op. cit.*, 86. or.

<sup>65</sup> ALMANSA PASTOR, J.M., *op. cit.*, 53. or.

<sup>66</sup> *Ibidem.*



na kolektiboa eta solidarioa zen, kasuan kasuko lanbide-kutxara bildutakoei begira<sup>67</sup>. Orobat, Alemanian lan-istripuei eta gainerako gizarte-arriskuei aurre egiteko aseguru kolektiboa nahitaezkoa zen, eta ez borondatezkoa.

Lan-istripuen legeak, alderantziz, banakako erantzukizun objektiboan oinarritu ziren. Hala ere, Alemaniako gizarte-aseguruen antzera, lan-istripuen legeak ere aseguru-teknika erabili zuten, nahiz eta horrek borondatezko izaera izan. Horren arrazoia hurrengoa zen: lanbide-arriskuen ondoriozko erantzukizunak asko gehitu zuen enpresaburuaren erantzukizuna lan-istripuei begira, eta erantzukizun hori arintzeko, lege-gileak ahalbidetu zuen enpresaburuek arriskua aseguratzailer bati beste-erentzea. Horrela, prima batzuk ordainduz gero, enpresaburuak aska zitezkeen zuzeneko bezain arriskutsua zen erantzukizunetik.

Lan-istripuen legeak indarrean jarri zirenean, kontzepzio-aldaketa nabarmena izan zen aseguru-teknikaren eta gizarte-arriskuen arteko loturan. Arean ere, aseguru pribatuaren nondik norakoak azaltzean esan bezala, hasieran, langileak izan ziren aseguru-teknika erabili zutenak gizarte-arriskuei aurre egiteko. Lan-istripuen legeak, aldiz, enpresaburuari ahalbidetu zieten lan-istripuak aseguratzeko aukera, arriskua eta arrisku horren gaineko erantzukizuna aseguratzailerari besterentzeko xedearekin.

Hala eta guztiz ere, aseguruen borondatezko izaera kaltegarria izan zen langileentzat. Hori berori izan zen gizarte-aseguruetara jauzia egiteko arrazoirik garrantzitsuena. Egin-eginean ere, enpresaburuak asegururik egin ezean, langileak kalteak jasan zitzakeen, lan-istripua gertatu eta enpresaburuak kaudimengabea izanez gero. Horrela, arriskurik aurreikus-ten ez zuten enpresaburuek edota gizarte-arriskuei begira ardurarik ez zuten enpresaburuek nahiago zuten asegururik ez egitea.

---

<sup>67</sup> BORRAJO DACRUZ, E., *op. cit.*, 86. or.

2.2.2. *Gizarte-asegurua*

38. Aurreko atalean azaldutakoaren haritik, lan-aseguruen borondatezko izaerak ezerezean utzi zituen lan-istripuei buruzko legeen xedeak. Horregatik, ekonomiaren eta antolaketaren aldetik ahal zen heinean, estatuak hasi ziren Alemanian gizarte-aseguruekin hainbeste arrakasta izan zuen teknika aplikatzen.

Gizarte-aseguruen oinarrian ere langileriaren mutualismoa eta aseguru pribatuak zeuden. Hala ere, gizarte-asegurua teknika harantzago joan zen, haien gabeziak gainditu zituelako. Hurrean ere, teknika zehaztugabe haiek borondatezkoak ziren, eta gizarte-aseguruen teknika nahitaezkoa. Esangura horretan, aipu handiko esapide batek honako hau zioen: «gizarte-asegurua nahitaezkoak dira ala ez dira ezer»<sup>68</sup>.

Gizarte-asegurua Alemanian sortu ziren, bertako inguruabar bereziak zirela bide. Gainera, gizarte-aseguruen sorreran, BISMARCK kantzilerraren egitekoak badu garrantzia. Izan ere, jarraian aztertuko diren inguruabarrak baliatuta, bera izan zen gizarte-aseguruen aldeko apustua egin zuena. DURANDen esanetan, hiru ziren Alemanian gizarte-asegurua sortzea eragin zuten inguruabar bereziak<sup>69</sup>:

(a) Lehendabizi, biztanleria ikaragarri hazi zen, eta, aldi berean, industrializazioaren ondorioz, garapen ekonomikoa ere izugarria izan zen. Herri-lan garrantzitsuek ere asko lagundu zioten industria-garapenari. Errepide ugari egin zen, bai eta trenbide-sarea eratu ere. Alemania Frantziari gailendu zitzaion franko-prusiar gerratean, eta Frantziak emandako kalte-ordainek izan zuten zerikusia herri-lan horietan. Berebat, bat-bateko fenomenoak izan zen milaka eta milaka nekazari hirietara hurbiltzea, fabriketan lan egiteko. Ondorenez, fabrikak hazi egin ziren. Horrelaxe sortu zen proletarioa, lan-arriskuak gehien jasaten zituen gizarte-klase berria. Inon ez bezala, gizarte-auziak gogor astindu zuen Alemania.

<sup>68</sup> Ikusi ORDEIG FOS, J.M<sup>a</sup>., *op. cit.*, 70. or.

<sup>69</sup> DURAND, P., *op. cit.*, 103-105. orr.

(b) Bigarrenenez, Alemaniak bazituen gizarte-aseguruen aurrekari batzuk, horiek sortzea eta garatzea ahalbidetu zituztenak: 1810eko Prusiako Kodea aldarrikatu ondoren, enpresaburuek aseguruak egin behar zituzten euren morroiak edo merkataritzako enplegua- tuak gaixotasunetatik babesteko, baldin eta horiek eurekin bizi baziren; 1854an, udalerriei aitortu zitzaien gaixotasunen aurkako funtsak eratzeko eskumena. Horrez gain, udalerriek eskumena zuten alokairuko langileei funts horietan nahitaez afiliatzea agintzeko. Bavariak eta Baden-Württembergek ere Prusiak hasitako bi-deari ekin zioten.

(c) Hirugarrenenez, alokairuko langileen egoera zela eta, langile-mugimendua gobernua gogor presionatzen hasi zen. Iraultza-giroa antzeman zitekeen gizartean. Mugimendu sozialista mehatxua zen batu berri zen Alemaniarentzat. Langileria baretu ezean, alfer-alferrikakoa zen nekazaritza-gizartetik industria-gizartera igarotzea, edota Alemania industria-estatuen artean nagusi izatea. Alemania gizarte-auziaren paradigma bihurtu zen.

BISMARCK horren guztiorren jakitun zen, eta, horregatik, alokairuko langileen egoera hobetzeko politika jarri zuen abian. Horrexek baretuko zituen langileak, horrexek urrunduko langileak sozialismotik. Langileen egoera hobetuz gero, sozialismoa oinarririk gabe geratuko zen, eta iraultzaren inguruko mamuak behin betiko desagertuko ziren. Azken buruan, estatu sortu berriak egonkortasuna behar zuen.

39. Horrela, BISMARCKek gizarte-aseguruetan oinarritu zuen bere politika. Egin-eginean ere, gizarte-arriskuen aurkako babes-teknika eragin-garria lortuz gero, gizarte-azia erraz gaindituko zen.

Kantzilerrak nahitaezko gizarte-asegurua defendatu zuen, eta horretarako aintzat hartu zituen Kristautasunaren printzipioak, Prusia eta beste lander batzuetako esperientzia eta adituen iradokizunak<sup>70</sup>.

---

<sup>70</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 107. or.

Ildo horretatik, gizarte-aseguruak botere publikoen politika esku-har-tzailearen adibide gisa hartu ziren, langilea babesteko xedearekin. Beraz, ezbeharren aurka egiteko, gizarte-elkartasuna zen politika horren ardatza.

Nahitaezko gizarte-aseguruarekin aberastasuna banatu nahi zen. Bestela esanda, aberastasunaren zati bat laguntza gehien behar zuten pertsonen bideratu behar zitzairen. Izan ere, laguntza gehien behar zuten pertsonen diru-sarrerak urriak, eskasak ziren bizitzako gertakizunei aurre egiteko<sup>71</sup>.

Kontserbadoreen eta liberalen hasierako erresistentzia gainditu ondoren, BISMARCKEK gizarte-aseguruaren teknika sendotzea lortu zuen. Hartara, 1883ko ekainaren 15eko Legeak gaixotasunen aurkako aseguru-a sortu zuen; 1884ko uztailaren 6ko Legeak lan-istripuen aurkako aseguru-a; 1889ko ekainaren 22ko Legeak ezgaitasunaren eta zahartzaroaren aurkako aseguru-a, eta 1911ko uztailaren 19ko Legeak heriotza eta bizi-rik irautearen inguruko aseguru-a. Gainera, 1911ko uztailaren 19ko Kodearen bidez, gizarte-aseguruaren inguruko xedapenen batasun tekniko-a erdietsi zen<sup>72</sup>.

40. Oro har, gizarte-aseguruak bat zetozen alokairuko langileen beharrezanekin. Gizarte-aseguruaren teknikak gainditu egin zituen aurretiaz izandako babes-teknika guztiak, gehienbat, ondoko ezaugarri berezi hauek zituelako<sup>73</sup>:

- (a) Aseguru-a nahitaezkoa zen legearen aplikazio-esparruko sub-jektu guztientzat, hau da, aseguruaren nahitaezko izaera ezinbes-tekoa zen langileen babesa antolatzeke.

<sup>71</sup> POSADA, C. *Los seguros sociales obligatorios en España*. Madril: Revista de Derecho Privado, 1945, 8. or.

<sup>72</sup> Kode horren eta beraren bilakaeraren inguruan, ikusi LUÑO PÉREZ, E. *El problema de la unificación de los seguros sociales fuera de España*. Madril: Publicaciones del Instituto Nacional de Previsión, 1934, 105-139. orr.

<sup>73</sup> DURAND, P., *op. cit.*, 109. or.

(b) Hasieran, gizarte-aseguruak industriako langileei bakarrik aplikatu zitzaizkien, baina, apurka-apurka, beste langile batzuei ere hasi zitzaizkien aplikatzen, hala nola, zerbitzu publikoetako langileei, merkataritzako langileei, nekazaritzakoei, itsasokoei eta etxe-ko zerbitzupeko langileei.

(c) Aseguruen finantzaketa enpresaburuen eta aseguratuena —langileen— artean banatzen zen, baina, batzuetan, estatuak ekarpenak egiten zituen, enpresaburuek eta langileek egindako kotizazioen gainean.

(d) Gizarte-aseguru bakoitza —gaixotasuna, lan-istripua, ezgaitasuna, zahartzaroa— autonomoa, lokabea zen; bakoitzak bere administrazio-egitura zuen.

Horrenbestez, nabari-nabariak ziren gizarte-aseguruen eta gainerako babes-tekniken arteko desberdintasunak.

Aseguru pribatuari dagokienez, ondoko desberdintasun hauek nabarmen daitezke<sup>74</sup>:

(a) Aseguru pribatuaren ekimena pribatua den bitartean, gizarte-aseguruetan estatuak du ekimena.

(b) Aseguru pribatuaren kontratua da harreman juridikoen oinarria. Gizarte-aseguruen jatorria eta garapena, aldiz, lege-borondatearen arabera da. Hortaz, aseguru pribatuak sortzeko eta horien edukia finkatzeko banakako borondatea da nagusi. Gizarte-aseguruetan, berriz, nahitaezkotasuna da nagusi.

(c) Aseguru pribatuaren, aseguratuaren eta asegurua kontratatzen duenaren arteko harremanak sinalagmatikoak dira. Hori dela eta, alderdietakoren batek bere betebeharra gauzatzen ez badu, *exceptio inadimpleti contractus* delakoa egikari dezake aurkako alder-

<sup>74</sup> Inguruabar horien inguruan ikusi DONATI, A., *op. cit.*, 16-17 orr. eta GARRIDO y COMAS, J.J., *op. cit.*, 50-51. orr.

diak, eta, ez-betetzearen ondorioz, harreman juridikoak suntsiara-zi egingo dira. Aitzitik, gizarte-aseguruek ez dituzte sortzen harreman juridiko sinalagmatikoak, hau da, betebeharrak bakoitza lokabean da. Hortaz, ezbeharra gertatzean, aseguratzaileak nahitaez eman behar du kasuan kasuko prestazioa, nahiz eta geroago aurretiaz ordaindu ez den kuota betearazteko aukera izan (automatikotasun-printzipioa).

(d) Gizarte-aseguruetan, aseguru pribatuetan ez bezala, ordaindu beharreko prima, kuota edo kotizazioa ez da ezartzen irizpide tekniko hutsen arabera, ezpada irizpide politiko edo sozialen arabera. Horregatik parte hartzen dute enpresaburuek eta estatuak.

(e) Gizarte-aseguruetakoa aseguratzaileak, aseguru pribatuetan ez bezala, ez du irabazteko asmorik, eta aseguruak kudeatzen ditu gizarte-justiziako irizpideetan oinarrituta.

Lan-istripuen legeen aldean ere gizarte-aseguruek berrikuntza nabarmena ekarri zuten. Bada, gizarte-aseguruak ez ziren oinarritu enpresaburuari ezarritako erantzukizun objektiboan, langileek jasandako kaltea aintzat hartuta. Aitzitik, estatuak bere gain hartu zuen langileak gizarte-arriskuetatik babesteko eginbeharra, nahiz eta arriskuok lanarekin zerikusirik ez izan (gaixotasun arrunta ere babestu zen). Xede hori dela bide, estatua urrundu egin zen lan-istripuen legeek ezarri borondatezko asegurutik. Horren ordez nahitaezko aseguruak ezarri zuten<sup>75</sup>.

41. Gizarte-aseguruek Alemanian izandako arrakasta zela eta, ezari-ezarian, gizarte-aseguru horiek gainerako estatuera ere hedatu ziren. Erresuma Batua da horren adibide garbia, bertan ezarri baitzen estreinakoz langabeziaren aurkako nahitaezko aseguruak 1911ko abenduaren 16ko Legearen bidez. Egin-eginean ere, horretarako inguruabar bereziak zeuden Erresuma Batuan: estatuak bere gain hartu zuen herritar guztiak txirotasunetik babesteko ardura; langabezia handia zegoen eta horren aurka *Poor*

<sup>75</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R., *op. cit.*, 32-33. orr.

*Law* delakoak babes gutxi eskaintzen zuen. Gainera, Erresuma Batuan, giza-banakoan artean aurrezki askea edo langileriaren mutualismoa ez ziren behar adinakoak langabeziaren ondorioak babesteko. Nahitaezko aseguruak, alderantziz, estatuaren esku-hartze kolektiboa ahalbidetzen zuen<sup>76</sup>.

### 2.2.3. *Gizarte Segurantzza*

42. Gizarte-aseguruek arrakasta handia izan bazuten ere, egunerokotasunak gabezia garrantzitsuak azaleratu zituen denborarekin<sup>77</sup>:

(a) Eskuarki, gizarte-aseguruek alokairuko langileak bakarrik babesten zituzten, eta horien artean beharizan ekonomiko gehien zituztenak. Gainera, enpresaburuen ekarpena gizarte-aseguruen oinarri zen, eta horrek asko baldintzatzen zuen babesaren norainokoa.

(b) Babesari erreparatuz, gizarte-aseguruetan arriskuak zuen garrantzia nabarmendu behar da. Hori dela eta, beharizana eragiten zuen arrisku bakoitzeko aseguru-araubidea eratu zen. Horren ondorioz, sarritan hurrengoa gertatzen zen: beharizan-egoera berak babes desberdina izan zezakeen horren arrazoi zen arriskuaren arabera eta, beraz, aseguru-araubide bakoitzaren arabera. Gainera, beharizana ez zen bere horretan babesten, baizik eta kasuan kasuko aseguru-araubideari begira ordaindutako kuota edo kotizazioaren arabera.

(c) Kudeaketari dagokionez, aseguru-araubide anitzek —aseguratutako arriskuak beste zirenak— eragin zuten erakunde kudeatzaile edo aseguratzaile publiko asko izatea: zenbat aseguru-araubide izan eta horrenbeste erakunde kudeatzaile izan ziren. Hortaz, askotan, beharizan-egoera bera babesteko kudeaketa bat baino gehiago zegoen, eta horrek kostu handia ez ezik, antolaketa ktramilatsua ere bazekarren.

<sup>76</sup> VENTURI, A., *op. cit.*, 114. or.

<sup>77</sup> Gabezia horien inguruan ikusi ALMANSA PASTOR, J.M., *op. cit.*, 56-57. orr.

(d) Gizarte-aseguruen finantzaketari helduz, aseguruen kostuak zirela eta, enpresaburuek jasan behar zuten zama handiegia eta justifikatu gabea zen.

43. Agi denez, gizarte-aseguruek azken bultzada behar zuten, BISMARCKEK hasitako bidea amaitzeko. Azken batean, gizarte-asegurua sistematizatzeko eta arrazionalizatzeko premia zegoen. Terminologiaren ikuspuntutik ere, «gizarte-asegurua» kontzeptua albo batean utzi, eta, apurka-apurka, «Gizarte Segurantza» kontzeptu sistematiko eta asmo handikoa nagusitzen hasi zen<sup>78</sup>. Esate baterako, hori gertatu zen Errusian, 1922ko Kodearekin, Estatu Batuetan, 1935eko *Social Security Act* delakoarekin eta Zeelanda Berrian, 1938ko Legearekin.

Baina BEVERIDGE izan zen behin betiko aldaketa gauzatu zuena.

Bigarren Mundu Gerra bete-betean, Erresuma Batuko Gobernuak BEVERIDGE lehendakari zuen batzordeari agindu zion ordura arte zuden gizarte-aseguru barreiatuak aztertu eta batzea. Agindu horren ondorioz, batzordeak bi txosten egin zituen: lehenengoa, 1942an, *Social Insurance and allied Services*, eta bigarrena, 1944an, *Full Employment in a Free Society*.

Txosten horietarik lehenengoak izan zuen arrakasta gehien, Erresuma Batuan, gerra amaitu ostean, Gizarte Segurantzaren irizpide nagusiak ezartzeko balio izan zuelako, eta, gero, apurka-apurka Gizarte Segurantzaren Sistemaren aldeko aukera egin zuten estatuentzat eredu eta oinarri bihurtu zelako.

44. BEVERIDGEK lehenengo txosten horretara BISMARCKEN gizarte-asegurua bildu eta gainditu zituen, haiek beharizan-egoerak babesteko behar adinakoak ez omen zirelako. Horretarako, oinarri batzuk ezarri zituen, alde guztietan gizarte-asegurua baino harantzago zihoazena:

<sup>78</sup> BLASCO LAHOZ, J.F., LÓPEZ GANDÍA, J. eta MOMPALIER CARRASCO, M<sup>a</sup>.A. *Curso de Seguridad Social*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2001, 8. argitaraldia, 36-37. orr.



(a) Hautsi egin zen gizarte-aseguruen izaera heterogeneoa; gizarte-asegurua batu ziren, lan-istripuei buruzko aseguruak barne. Xede horretarako, kotizazio bakarra ezarri zen, arrisku guztiak estaltzeko; eta Gizarte Segurantzako Ministerio berezia ezarri zen. Ministerio horrek izaera publikoa zuen, eta kudeaketa zentralizatua gauzatzear gain, administrazio-batasuna ahalbidetzen zuen.

(b) Gizarte-aseguruek esparru subjektiboari begira zuten izaera mugatuaren aldean, Gizarte Segurantzak herritar guztiak babesten zituen, langileak izan ala ez. Hori dela eta, unibertsaltasun subjektiboaz hitz egiten da.

(c) Gizarte-aseguruen aldean, Gizarte Segurantzak babes gehiago eskaintzen zuen. Gizarte Segurantzaren xedea zen edozein beharrian-egoera babestea eta babes hori homogeneoa izatea. Horrela, prestazioei dagokienez, gaintitu egin ziren beharrian-egoera eragiten zuen arriskua lanbide-izaerakoa izatearen ala ez izatearen ondoriozko bereizketak (arriskuaren ideia baztertzen da).

(d) Gizarte Segurantzaren finantzaketak kargatu behar zituen, batetik, kotizazioak, alokairuekin zerikusirik izan ez eta modulu arrazional eta jasangarrien arabera kalkulatu zirenak, eta, bestetik, estatuko aurrekontu orokorrak. Gainera, Gizarte Segurantzako Sistemaren zati batzuek estatua arduratu behar zen zuzen-zuzenean. Horren adibide ziren, besteak beste, herritar guztientzako osasun-zerbitzu nazionala, familiei laguntzeko alokairu osagarri batzuk eta gabezia-egoeran zeudela adierazi eta frogatzen zuten herritarrentzako laguntza nazionala.

45. Erresuma Batuan Beveridge Plana egonkortu ondoren, Gizarte Segurantza arian-arian hedatu zen beste estatuetera, gizarte-aseguruekin gertatu antzera. Hala ere, Gizarte Segurantza hedatzean, bi fenomeno eman ziren: ekonomia- eta gizarte-eskubideak, eta horien artean Gizarte Segurantzarako eskubidea, konstituzioetara biltzea; eta Gizarte Segurantzarako eskubidea nazioarteko araurik garrantzitsuenek aitortzea.

Beraz, Gizarte Segurantza asko hedatu da nazioarteko bihurtu delako. Halaber, horren ondorioz, Gizarte Segurantzaren aldeko apustua egin duten estatuek beharizan-egoera berberak babesteko xedea dute, horren adibide izanik Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1952ko ekainaren 28ko 102. Hitzarmena, Gizarte Segurantzari buruzkoa (gutxieneko arauaren izaera duena). Baina estatu bakoitzaren inguruabar eta berezitasunek baldintzatu egiten dute estatu bakoitzeko legegilea, babestu beharreko gertakizunak tipifikatzeko orduan.

Inguruabar eta berezitasun horien artean, nabarmendu behar da estatu batzuetan BISMARCKEN gizarte-aseguruek duten tradizioa eta bilakaera. Modu horretara, Gizarte Segurantza ezartzean, estatu batzuetan, eta horien artean Espainian, BISMARCKEN gizarte-aseguruen ordean Gizarte Segurantzako eredu germaniarra, kontinentala nagusituko da. Beste estatu batzuetan, ordea, Beveridge Planean zuzen-zuzenean oinarritu eta Gizarte Segurantzako eredu anglosaxoia, atlantikoa nagusiko da. Horregatik, teoriarik behinik behin, Gizarte Segurantzak bi eredu dituela esan bide da: lehenengoa, kontribuzio bidezkoa; bigarrena, laguntza bidezkoa edo kontribuziorik gabekoa.

Nolanahi ere, praktikan, Gizarte Segurantzaren bilakaeraren ondorioz, eredu horiek ez dira lokabeak. Bada, gaur egun, Sistemarik gehienak mis-toak dira, bi ereduak osagaiak hartu dituztelako.

### 3. EUSKAL HERRIKO BABES-EKINTZA

46. Behin historian zehar eman diren babes-teknikak aztertuta, orain babes-teknikok Euskal Herrian izan duten agerpenari erreparatuko zaie, lehenengo atalean babes-ekintza gisa definitu dugunaren arabera.

Horretarako, lehenengo atalean aurreratu den bezala, bi garai nagusi bereiziko dira, Foru-sistema publikoa galdu aurretik eta ondoren. Hain zuzen, bigarren garai horretara bildu behar dira etorkizunera begira Euskal Herriak babes-ekintzaren arloan dituen ahalbideak ere.

### 3.1. Foru-sistema publikoa galdu aurretik

47. Euskal Herriko historiaren hastapenetan egon badago babes-ekintza zeharo baldintzatuko duen inguruabar bat, orografiaren izaera kontuan hartuta: lurraren gaineko jabetza. Horregatik, babes-teknikek eratorritako babes-ekintza jorratu aurretik, horren inguruko azalpen batzuk emango dira.

#### 3.1.1. *Lurraren gaineko jabetzaren garrantzia babes-teknikek eratorritako babes-ekintzari begira*

48. Beste inon ez bezala, euskal herrialdeetan ugari omen ziren lurraren gaineko jabe txikiak, horietako batzuk jauntxo edo ahaide nagusi bihurtu aurretik behinik behin<sup>79</sup>. Halaber, jabetza pribatuarekin batera, garai horretara arte iritsi ziren aspaldiko denboretatik erabilera erkidea zuten lur-eremu batzuk, horien artean nabarmendu behar direla, korta, sarobe edo saroi deritzenak<sup>80</sup>.

Hasieran, lur-eremu horiek abereen bazkara zuzendu ziren, zirkulu formako lursaila eratuz. Lursaila zedarritzeko, artzainek erdialdean haustarri izeneko mugarria jarri ohi zuten; mugarri horren azpian errautsa lurperatzen zuten eta, era berean, haren gaineko aldean marka edo ikur batzuk jartzen zituzten, lursaila inguratzen zuten beste mugarriak seinalatzeko. Urteko sasoiaren arabera, saroi desberdinak erabiltzen zituzten. Horrela, udarako, gune garaiak nahiago zituzten, eta, negurako, behe aldeko lur epelagoak. Are gehiago, artzainek euren txabola edo bordak lur-eremu ho-

<sup>79</sup> Hori berori jaso zuen BALPARDAK, IX. mendearen amaierari begira, Leongo Alfontso III.aren Kronikak oinarri hartuta (ikusi BALPARDA y de las HERRERÍAS, G. *Historia Crítica de Vizcaya y de sus fueros*. Madril: 1945, III. liburukia, 24. or.).

<sup>80</sup> Halakoak sakonago aztertu nahi izanez gero, ikusi ARAGÓN RUANO, A. *La ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen zerbitzua, 2009, 103-143. orr. Orobat, kontsulta daiteke egile beraren *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*. Donostia: Aranzadi Zientzi Elkarte, Munibe, 14. gehigarria, 2001, 46. or.

rietan sortzen zituzten, halakoek, normalean, zati bateko egitura izaten zutela, non artzainek eta abereek babeslekua izaten zuten<sup>81</sup>.

Edonola ere, jabe txikietako batzuk, boterea eskuratu ahala, halako lur-eremu erkideez jabetzen hasi ziren. Beste horrenbeste esan behar da erregeen eta zenbait erakunde erlijiosoren inguruan ere<sup>82</sup>. Denek ere, modu berean jardun zuten horiei dagokienez. Horrela, sortu ziren gizarte-klase desberdinak euskal herrialdeetan<sup>83</sup>.

Apurka-apurka, ahaide nagusiak, erregeak eta erakunde erlijiosoak garai batean abeltzaintzarako erabilitako sarioiak nekazaritzara bideratzen hasi ziren. Modu horretara, jabetza pribatuko lurrik ez zuten nekazariak zentsuaren bidez lotzen zitzaizkien haiei. Hain zuzen, zentsu bidezko lotura hori nekazariarentzat babes ziur bihurtu zen, lurraren gainean epe

<sup>81</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 1. liburukia, 109-110. orr.

<sup>82</sup> THALAMÁS LABANDIBARrek azaltzen digu ahaide nagusiek zelan ekin zioten lur-eremu erkideak eskuratzeari, eta komentuen kasuan adibide moduan jartzen du Orreagako monjeak mende luzez izan direla lur-eremu handien jabeak, berbarako, Usurbil eta Donostiako mendietaraino heltzen zirela beraien jabetzak (THALAMÁS LABANDIBAR, J. *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino, el pescador, el obrero*. Donostia: Beñat Idaztiak, 1935, 53-54. orr.

<sup>83</sup> Esate baterako, Bizkaiari dagokionez, SAGARMINAGAK azaldutakotik erraz ondoriozta daiteke hori. Izan ere, haren esanetan, 1526ko Foru Berriak jaso zuen lehendabiziko aldiz bizkaitar guztien kapare-izaera, 1452ko Foru Zaharrak ez baitzuen halakorik ezarri. Bada, Foru Berriko I. tituluko XIII. legean honako hau irakur daiteke: «Otrosí, dixeron: Que por quanto todos los dichos Vizcaynos son Hombres Hijos-Dalgo...». Baina SAGARMINAGArekin bat etorri, kontuan hartu behar da Foru Berrian bizkaitar guztien kapare-izaera aitortzeko arrazoi nagusia: kapare-izaera gero eta beharrezkoa zen, garai hartan izaera horretakoek bakarrik lor zezaketelako estatuko zenbait postu eta kategoria; korporazio eta anaitasun askotako estatutuek ez zituzten onartzen kapare-izaerarik gabekoak, eta lurraren txirotasunarengatik Jaurerrietik erbestera egin behar zuten bizkaitarren mesedetan ere kome-ni zen hori, haiek ogibide duina lor zezaten (SAGARMINAGA, F. *Memorias históricas de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Etxebarri: Amigos del libro vasco, 1983, 19. or.). Beraz, esan behar da bizkaitar guztien kapare-izaera ondore horietarako baino ez zela aitortu.

luzerako erabilera ahalbidetzen baitzien, familiaren oinordetzara ere biltzen zela erabilera hori<sup>84</sup>. Trukean, gehienetan, aldez aurretik ezarritako epealdietan, uztaren zati bat ematen zieten jabeei, uzta-mota askotarikoa izan zitekeela, nahiz eta gariarena eta sagarrena izan ohikoena<sup>85</sup>.

Erregeei dagokienez, berebiziko garrantzia du horiek hiribilduak sortzeko zuten ahalmena. Izan ere, hiribildu horietako biztanleei hiri-gutun eta foru berezien bidez zenbait pribilegio aitortzen zieten, eta horien artean, beharbada, garrantzitsuenak, mendi, baso eta bazka erkideak, bertatik behar zituzten lehengaiak atera ahal izateko<sup>86</sup>.

Jakina, Bizkaiko 1526ko Foru Berriaren I. tituluko IV. legeak ezarritakoaren ildotik, erregeek bazuten eskubidea zenbait errenta eta zentsu izateko edozenbat etxe eta etxaldetan, errementerietan, monasterioetan eta hiribilduetan<sup>87</sup>, baina ezin uka daiteke etorkizunera begira mendi, baso eta bazka erkideen garrantzia, batik bat, gizarte-antolakuntzari dagokionez.

<sup>84</sup> CHALBAUD y ERRAZQUIN, L. *La troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2005, 14. or. POSSE Y VILLELGA, J. El Caserío. II. Familia y propiedad. In *Euskalerrriaren alde*, 1914, 4. liburukia, 82, zk., 310. or.

<sup>85</sup> Erakunde erlijiosoei dagokienez, esanguratsuk dira oso MUGARTEGUIK Ziortzako kolegiataren inguruan jasotako adibideak. Bada, horien bidez ikusten da zer-nola eratu ziren inguruko etxalde ugari. Kolegiatak saroiak uzten zizkien nekazariei, eta nekazari horiek lurrari atxikita geratzen ziren epe luzerako, bildutako uztaren zati baten truke (MUGARTEGUI, J.J. *Índice general del archivo de la Colegiata de Santa María de Cenarruza*. Faksimile-edizioa. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1984, 101-111. orr. Halaber, horren inguruan ikusi ZUBIKARAI BEDIAUNA, A. Baserriari begirakada bat. In *Zer. Bizkaitarribizkaieraz*, 1990, 139. zk., 6. or.

<sup>86</sup> SAGARMINAGA, E., *op. cit.*, 17. or.

<sup>87</sup> Horren inguruko adibide batzuei buruz dabil ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 1. liburukia, 158-159. orr. Errealitate hori sakonago aztertu nahi izanez gero ikusi HORMAECHE, R. *Leyes civiles de Vizcaya (1891)*. Faksimile-edizioa: Iruñea: Analecta, 2002, 69-71. orr.

Edonola ere, ezin da gizarte-antolakuntza horretaz hitz egin XV. mendeko azken urteetara arte. Bada, aintzat hartu behar da hori eragotzi zuen arrazoi nagusia: ahaide nagusien artean, eta zehatzago esanda oinaztarren eta ganboatarren artean, mende luzez izandako bando-gerrak (XIII-XV). Lurraren gaineko boterea jokoan, ezegonkortasuna nagusitu zen euskal herrialdeetan, eta ahaide nagusien interesek erabat baldintzatu zuten nekazari txiroen edota ahaide txikien bizimodua<sup>88</sup>. Azkenean, hiribilduen aurrerapena ere kolokan jarri zuten, etengabeko liskar eta erasoengatik, eta orduantxe esku hartu zuten erregeek, indarrez behin betiko egoera baretu arte.

Une horretan agertuko da baserria, eraikin sendo eta iraunkor gisa<sup>89</sup>, sarri askotan, iraganeko zentsuetara bildutako saroietan<sup>90</sup>. Eta baserriaren eskutik sortuko dira, berebat, euskal foru-zuzenbide pribatuko erakunderik garrantzitsuenak<sup>91</sup>. Halakoan artean, testamentua egiteko askatasuna,

<sup>88</sup> Horren inguruan ikusi BALPARDA y de las HERRERÍAS, G., *op. cit.*, 144-145. orr. Orobat, bando-gerren krudelkeriaz jabetzeko ikusi GARCÍA DE SALAZAR, L. *Las Bienandanzas e Fortunas*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1984, 4. liburukia, XX.etik XXV.enera arteko liburuak.

<sup>89</sup> Bando-gerren amaiera baserriak agertzeko arrazoi nagusi gisa hartzearen inguruan ikusi SANTANA, A., LARRAÑAGA, J.A., LOINAZ, J.L., ZULUETA, A. *Euskal Herriko baserriaren arkitektura. Historia eta tipologia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002, 1. liburukia, 32. or.

<sup>90</sup> Horren inguruan ikusi THALAMÁS LABANDIBAR, J. El colectivismo de los pastores vascos. In *Yakintza*, 1935, 3. liburukia, 17. zk., 393. or.; GARCÍA REDRUELLO, R. *Derecho consuetudinario en Vascongadas y Navarra (apuntes para un ensayo)*. Madril: Ministerio de Trabajo. Escuela Social de Madrid, 1944, 7. or. MARTÍN GALINDO, J.L. *El caserío vasco como tipo de explotación agraria*. 1969, separata, 15. or. CARO BAROJA, J. *Ser o no ser vasco*. Madril: Espasa, 1998, 2. argitaraldia, 144. or.

<sup>91</sup> Gogora bedi erakunde horiek gaur egun ere indarrean jarraitzen dutela. Bizkaiari dagokionez, kontuan hartu behar da uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa (1992ko abuztuaren 7ko EHAA, 153. zk.). Halaber, Arabari dagokionez, aintzat hartu behar da azken lege horrek jaso duela Arabako Foru Zibila, bere baitara biltzen direla Aiarako Forua (aplikagarri dena Aiara, Amurrio eta Okondo

tronkalitatea eta foru-komunikazioa nabarmendu behar dira, familia-antolaketaren oinarri gisa, bai eta horren baitan gauzatuko den babes-ekintza gisa ere<sup>92</sup>.

49. Hiru erakunde horiek elkarrekin lotuta daude, eta helburu bera dutela esan behar da, alegia, familia-ondarea iraunaraztea, batez ere, kontuan harturik Euskal Herriko lur-eremuak zati oso txikietan bananduta daudela, eta ustiaketa-ondoretarako lur-eremu horiei bere horretan eustea komeni dela<sup>93</sup>.

Esangura horretan, testamentua egiteko askatasunari dagokionez, gogorazi behar da Euskal Herriko foru-zuzenbideetan ez dela erabateko askatasuna aitortzen, ezpada pertsona jakin batzuen artean hautatzeko ahalmena, honako hurrenkera honen arabera: lehendabizi, seme-alaben artean; bigarrenik, halakorik ez badago, aurreko tronkaleko senideen artean; eta, azkenik, halakorik ere ez badago, osterantzeko tronkaleko senideen artean.

---

udalerrri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zolloguti herrietan) eta Laudion eta Aramaion aplikagarri den Foru Zuzenbide Zibila. Azkenik, Gipuzkoari dagokionez, kontuan hartu behar da 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Legea aldatzeko, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez (1999ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.). Orobat, ezin ahantz daiteke Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2007ko ekainaren 20an aurkeztutako lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa, helburu duena hiru herrialdeetako foru-zuzenbidea bateratzea, eta oraindik legebiltzarrean eztabaidatu ere ez dena egin [lege aurreproiektu hori kontsulta daiteke Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkarian, IV. zenbaki berezian (2007), 191. or. eta h. (www.avd-zea.com)].

<sup>92</sup> Hiru erakunde horien garrantzia nabarmendu dute, besteak beste, CHALBAUD y ERRAZQUIN, L., *op. cit.*, 16. or.; eta POSSE y VILLELGA, J. *La vida social en el País Vasco. Lecciones pronunciadas en la VI semana social de Pamplona*. Durango: Imprenta y Librería de Florentino de Elosu, 1914, 30-33. orr.

<sup>93</sup> Zenbait kasutan literatura erromantikoaren izaera baldin badu ere, interesgarria da horren inguruan TRUEBA, A. *Bosquejo de la organización social de Vizcaya (1870)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2007, 58-59. orr. Orobat, Gipuzkoako egoera aztertzeke kontuan hartu BLASCO DE IMAZ, C. *Los Fueros. Apuntes guipuzcoanos*. Irun: Ethos, 1966, 25-26. orr.

Horren bidez, gurasoek euren onibarrak familia barruan zatitu gabe eskualdatzea lortzen dute, hau da, euren etxeko oinordekoa nor izango den aukera dezakete, aintzat harturik oinordeko hori bihurtuko dela etxeko nagusia familia mantentzeko dagokionez<sup>94</sup>.

Testamentua egiteko askatasunarekin batera, tronkalitateak egonkortasuna dakar familiarentzat<sup>95</sup>, bi-biek ondare-elkartzea eratzen duten heinean<sup>96</sup>. Tronkalitateak lotu egiten ditu onibarren jabetza eta hori baliatzen duen familia, helburu izanik onibarrok sekula ere ez ateratzea familiatik. Hortaz, familiaren barruko elkartasuna oinarri, nolabaiteko erkidegoa sortzen da<sup>97</sup>.

Hariari jarraituz, VICARIO DE LA PEÑA harantzago doa adierazten duenean seme-alabak ezkontzean gurasoen etxeari lotuta geratzen direla. Hartara, etxe horretara aberastasun- eta lan-baliabide berriak sartzen dira, eta horrek ziurtasuna dakar adinean aurrera doazen gurasoentzat. Horrenbestez, tronkalitatea elkarrekiko sorospen bihurtzen da gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan<sup>98</sup>. Areago, tronkalitatea, erakunde juridiko gisa, iraganeko zentsuak ordeztara datozen errentamendu-egoeretan ere aplikatzen da, belaunaldi batetik bestera onibarrak eskualdatzea ahalbidetuz<sup>99</sup>.

<sup>94</sup> Gai horri buruz sakon dihardute hurrengoek: CHALBAUD y ERRAZQUIN, L., *op. cit.*, 16. or. SOLANO y POLANCO, J. *Estudios Jurídicos del Fuero de Vizcaya (1918)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2005, 253-309. orr. Beren-beregi Gipuzkoako egoerari erreparatzen zaio hurrengo lanetan: JADO y VENTADES, R. *Derecho Civil de Vizcaya (1923, 2. argitaraldia)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004, 66-71. orr.; NAVAJAS LAPORTE, A. *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa (1973)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2009, 78-80. orr.

<sup>95</sup> Esangura horretan, HORMAECHE, R., *op. cit.*, 151-152. orr.

<sup>96</sup> VICARIO DE LA PEÑA, N. *Derecho consuetudinario de Vizcaya (1901)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea: 1995, 42. or.

<sup>97</sup> CHALBAUD y ERRAZQUIN, L., *op. cit.*, 17. or.

<sup>98</sup> VICARIO DE LA PEÑA, N., *op. cit.*, 42-43. orr.



Hala eta guztiz ere, gurasoak bizirik dauden bitartean ugazabak ez du onarzen errentamendua seme-alaben izenean jartzea<sup>100</sup>.

Eta, azkenik, Bizkaian, foru-komunikazioa ere baliagarri da, senar-emazteei berdintasuna aitortzeko nahiz eurentarik bizirik irauten duena babes-teko<sup>101</sup>. Arean ere, ezkontzaren eraentza ekonomikoa arautzen duen erakunde horren bidez, ezkontideek erdibana dituzte ondasun higigarri eta onibar guztiak, ondasunon jatorria gorabehera, horiek batenak nahiz bestearenak izan, berdin ezkontzara bakoitzak ekarritakoak nahiz ezkontzak iraun bitartean irabazitakoak, ondasunok dauden lekuak zerikusirik ez duela. Hori dela eta, foru-komunikazioak dirauen artean, ondasun onibarrak besterentzeko bi ezkontideen baimena behar da. Eta foru-komunikazioa sendotzen denean, hau da, ezkontideetako bat hiltzen denean, bi ezkontideen ondorengo erkideak bizirik izanik, ondasun erkidegoa eratzen da alargunaren eta bizirik dauden ondorengo horien artean, alargunari bizibideak ziurtatuz<sup>102</sup>.

Gipuzkoan foru-komunikaziorik ez izan arren, familia-ondarea osotasunean eskualdatzeko helburua duen *propter nuptias* dohaintzaren bidez zeharka babestu izan da alarguna. Ohitura bidez formularik erabiliena bihurtu zen dohaintza-mota hori dela eta, dohaintza-emaileek hurrengo baldintzak ezartzen dizkiote ezkonduetako seme-alabari:

(a) Dohaintza-emaileek, eta horietarik bat hilez gero, bizirik irauten duenak, dohaintza-hartzailearekin familia bakarra eratzea,

<sup>99</sup> ARTIÑANO y ZURICALDAY, A. El Señorío de Bizcaya, histórico y foral (1885). Faksimile-edizioa. In *Antiguos recuerdos de Vizcaya*. Bilbo: Amigos del libro vasco, 1985, IX. liburukia, 2. argitaraldia, 339. or.

<sup>100</sup> TRUEBA, A., *op. cit.*, 43. or.

<sup>101</sup> DE MADARIAGA, R. *El Derecho foral de Vizcaya en relación con la organización familiar*. Bilbo: Tipografía del Norte, 1932, 21. or. eta h.

<sup>102</sup> Erakunde horrek alargunei begira eskaintzen duen babesa gorai patuz ikusi, besteak beste, TRUEBA, A., *op. cit.*, 56-57. orr.; ARTIÑANO y ZURICALDAY, A., *op. cit.*, 340-341; VICARIO DE LA PEÑA, N., *op. cit.*, 52. or. eta h.; SOLANO y POLANCO, J., *op. cit.*, 171. or.

helburu izanik elkarri laguntzea gaixotasunean eta bestelako beharrianetan.

(b) Ondasunak adostasunez administratzeko konpromisoa hartzea eta, adostasunik ezean, gurasoek hartutako erabakia errespetatzea.

(c) Dohaintzan emandako ondasunekin aurre egitea, dela dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzailearen mantenuari, dela baztuek zein besteek mantenua zor dieten pertsonen mantenuari, dela horien ehorzketa eta hiletei.

(d) Dohaintza-hartzaileak ezin izango ditu dohaintzan hartutako ondasunak kargatu, saldu edo beste inori eskualdatu, ezta ezkontza-kontratuak iraun bitartean eskuratutakoak ere, aitaren baimekin gabe edo, halakorik izan ezean, amaren baimenik gabe.

(e) Dohaintza-hartzaileak anai-arrebetariko bakoitzari aitarengatiko eta amarengatiko senipartearen ondorioz dagokiona ordaintzea, betiere, halakoek onartzen badute gurasoek adierazitakoa ezkontza-kontratuaren eskriturretan (onartzen ez badute, seniparte hertsiarekin konformatu beharko baitira, jasotako gairik anai-arreba dohaintza-hartzaileari itzuliz).

(f) Edozein arrazoiengatik, dohaintza-emailei eta dohaintza-hartzaileari ez bazaie komeni bizitza erkideari eustea, banandu egingo dira, dohaintza-hartzailea aterako dela gurasoen etxetik, berarekin eramanez ezkontidearen ezkonsaria, familiak lortutako hobekuntzetatik erdia eta aitarengatiko nahiz amarengatiko senipartearen ondorioz dagokion zenbatekoa, bere anai-arreben adinakoa izango dena<sup>103</sup>.

<sup>103</sup> ECHEGARAY, B. *Derecho Foral Privado*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1950, 83-84. orr. Halaber, NAVAJAS LAPORTEK jaso du ezkontza-itunen bidez egindako dohaintzak sendotzeko nahitaezkoa dela bi familiak (dohaintza ematen duenak eta dohaintza hartzen duenak) elkarrekin bizitzea eta lehenengo familiako ezkontideetatik bizirik irauten duenari etxeko irabazien erdia ematea. Alabaina, autore horrek

50. Behin bando-gerrak amaituta, eta familia-antolakuntza egonkortu ahala, auzotasun-harremanak ere nahitaezkoak izan ziren euskal herrialdeetan, han-hemenka barreiatutako baserrien artean sortutako auzoetan, bai eta hiri nahiz hiribildu gisa antolatutako herrietan ere. Hain zuzen, harreman horietan berebiziko garrantzia izango dute mendi, baso eta bazka erkideek, ustiategi txikien gabeziak gainditzeko. Halaber, ustiategi txiki horiek, gehienbat, familia-esparrura mugatzen zirenez, ezari-ezarian, banakako edo, asko jota, familiako esfortzua gainditzen zituzten lanei eta egoerei aurre egiteko era desberdineko harremanak sortu ziren. Duda-mudarik gabe, horretan zerikusia izan zuen lur-eremu erkideetako harremanei esker izandako eskarmentuak.

51. Mendi eta baso erkideak, batez ere, bazkarako eta hostoak, garoa, txilarra eta otea ateratzeko baliatzen ziren; kontuan hartu behar da azken horiek erabiltzen zirela abereen etzalekuak prestatzeko eta simaurra egiteko<sup>104</sup>. Orobat, basoek egurra egiteko eta gaztainak eskuratzeko ere baliatu zuten.

Bizkaian, jabego erkideari «herri-basoak» zeritzen eta ondasun erkidea ustiatzeko tituluei «usiek». Hori guztiori antolatzeko auzo bakoitzak kofradia eratzen zuen, horren adibide izanik Dima, Zeanuri eta Durangaldeakoak<sup>105</sup>. Halaber, «herri-basoak» ugari ziren herrietan zabal

---

nabarmendu du egoera hori sendotzeko, dohaintza-emaileak, bere testamentuan, normalean, alargunari xedapen askeko herena eta hobekuntzako herenaren gaineko gozamina uzten dizkiola, modu horretara segurtasun gehiago ematen diola alargunaren bihar-etziko egoerari (NAVAJAS LAPORTE, A., *op. cit.*, 199-200. orr.).

<sup>104</sup> UNAMUNO, M. *Aprovechamientos comunes; lora; seguro mutuo para el ganado, etc. (1896)* Faksimile-edizioa: *El Derecho civil de Vizcaya antes del Código Civil*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2007, 132-133. orr.

<sup>105</sup> THALAMÁS LABANDIBAR, J. *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino, el pescador, el obrero*. Donostia: Beñat Idaztiak, 1935, 40. or. Lan horretan, autoreak aipatu kofradi batzuen adibideak jartzen ditu. Horrela, Durangaldeako kofradie «egurtzak» deritzen eta Arratia-koei «egurbideak». Ustiapei guztiak zotzetara jokatuta gauzatzen ziren (*sortea-aterata*), eta erkidegoko ondasunen salmenta kandela bidezko prozeduraren arabera egiten zen. UNAMUNOK diosku zertan oinarritzen zen kandela-sistema hori, Amorotoko adibidea

antolatzen zen ustiapena. Horrela, mendiak asko zirenean eta horiek auzoetatik gertu zeudenean, bizilagunak bertara nahi beste aldiz joateko aukera zuten. Aitzitik mendi-azalera txikiagoa zenean, sarritan, mendira joateko egun zehatzak ezartzen ziren, eta auzokide bakoitzak hartu zeza-keena ere argiro zehazten zen<sup>106</sup>.

Gipuzkoan eta Araban ere, XV. mendetik aurrera oso garrantzitsuak izan ziren «partzoneria» deituriko lur-eremu erkideak. Oro har, hala-koen helburuak Bizkaiko «herri-basoen» antzekoak izan ziren. Alabaina, lur-eremu handiak hartuz, herri desberdinek, bai eta probintzia desberdinek ere, egindako akordioen ondorio izateagatik nabarmendu behar dira<sup>107</sup>. Gainera, hedadura handi hori zela eta, batik bat, bazkarako erabili ziren<sup>108</sup>. Esangura horretan, Enirio eta Aralarreko «batasuna» edo

---

gogora ekarriz. Bada, Lea-Artibaiko herri horretan, gaztainaren aprobetxamendua errentan ematen zen enkante bidez; enkante horretan postura desberdinak onartzen ziren kandelaren suak bizturik irauten zuen bitartean (UNAMUNO, M., *op. cit.*, 52.or., 1. oharra).

<sup>106</sup> UNAMUNO, M., *op. cit.*, 51. or. Mendi-azalera txikiko tokietan antolatzeko moduari erreparatuz, UNAMUNOK adibide interesgarri batzuk ere aipatzen dizkigu: Gerrikaitz eta Arbatzegin, barbarako, bertako herritarrek gertu zuten zubi batean elkartzen ziren irailaren 16an, eta kanpai-hotsa entzun orduko Oitz inguruko basoetara abiatzen ziren. Munitibartarrak Urkiamendiko landan biltzen ziren eta alkateak ematen zuen mendirantz egin ahal izateko agindua. Abadiñon, San Mateotan joaten ziren mendira, etxe bakoitzak behargin kopuru zehatza bidaltzen zuela, zortzi edo hamar egunez hostoak eta egurra batzera, egunsentitilik gaua egin arte. Iurretan, irailaren 10ean, antzekoa zen ekandua, goizetik gauera lan egiteko aukera baitzuten, nahi adina garo eta, gehienez ere, hiru hosto-gurdikada eskuratzeko.

<sup>107</sup> GOROSABELEK jada horien berri eman zuen [GOROSABEL, P. *Noticia de las Cosas Memorables de Gipúzcoa (1899)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1967, 1. liburukia, 484-495. orr]. Geroago ideia horren inguruan dabil CILLÁN APALATEGUI, A. *La comunidad foral de pastos en Guipúzcoa*. Donostia: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1959, 198. or. Ildo beretik doa, baita ere, URZAINQUI MIQUELEIZ, A. *Comunidades de montes en Guipúzcoa: las parzoneras*. Donostia: Cuadernos Universitarios. Deustuko Unibertsitatea, Historia eta Geografia Saila, 1990, 7. zk., 29. or.

<sup>108</sup> ARAGÓN RUANO, A. *La ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen zerbitzua, 2009, 173. or.

«mankomunitatea» eta Gipuzkoaren eta Arabaren arteko «Partzoneria Nagusia» dira adibiderik esanguratsuenak<sup>109</sup>.

Bukatzeko, lur-eremu erkideek izan zuten garrantziaz jabetzeko kon-tuan hartu behar da desamortizazioaren garaian hainbat udalerrrik izan-dako jokabidea lur-eremu horiek estatuaren eskuetan gera ez zitezen<sup>110</sup>. Halaber, foru-sistema publikoa galdu ondoren ere, Bizkaian, udalerriek, Ekonomia Itunaren ondorioz, Aldundiarekin zituzten betebeharrak gau-zatzeko lur erkideak baliatu zituzten, jendaurreko enkante bidez erren-tan ematen baitzituzten horiek, hain zuzen, errentamenduetatik lortuta-ko diru-sarrerak Aldundiari emateko<sup>111</sup>.

52. Edonola ere, beharbada, onura erkiderako erakundeen artean go-raipatuena auzolana izan da. Hitzaren etimologiak argiro erakusten due-nez, erakunde horrek auzokide bakoitza behartzen du zenbait prestazio egitera auzokide guztien mesedetan. Hain justu hori da geroago azter-tuko den mutualismotik bereizten duena, azken horretan, taldeak ema-

<sup>109</sup> Horien inguruko azterketa sakonerako ikusi AYERBE, M.R. La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el servicio forestal de la Diputación de Gipuzkoa. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2005, 61. liburukia, 1. zk, 5-53 orr.; URZAINQUI MIQUELEIZ, A., *op. cit.*, 26-28. orr.

<sup>110</sup> UNAMUNOK Asuako harana aipatzen du horren adibide gisa (UNAMUNO, M., *op. cit.*, 132. or.). Erakunde publikoen egitekoa, eta, batez ere, Udalena, garrantzitsua izan zen antza lur-eremu horiei eusteko orduan. Nafarroari dagokionez, IRUJO OLLOK goraiatzen du bertako Aldundiak izandako jokabidea, udalerriei lagundu baitzien, aholku egokiak eman-nez, kasuan kasuko espedienteak aurkezteko; bada espediente horien xedea zen lur-eremu erkideen erabilera publikoa justifikatzea, zeharka bada ere desamortizazio-arauekin bat egiteko (IRUJO OLLO, M. *Instituciones Jurídicas Vascas (1945)*. Faksimile-edizioa: Tafalla: Txalaparta, 2006, 107-108. orr.). Politikari abertzale horrek erakunde publikoen joka-bidea Nafarroara mugatu badu ere, jakin badakigu, neurri txikiagoan bada ere, Euskal Herriko beste herri batzuetan ere udalak arduratu zirela lur-eremu publikoen zaintza eta arauketaz. Hori berori ondorioztatzen da UNAMUNOren lanetik (ikusi 133. or), Getxoko hiru mendi erkideen berri ematen denean (Galea, Baserri eta Aiboa).

<sup>111</sup> UNAMUNO, M., *op. cit.*, 134-135. orr.

ten dituen prestazioak edo eskaintzen duen laguntza taldekide bakar bati begira direlako<sup>112</sup>.

Eskuarki, auzolana erabiltzen zen bideak egin, garbitu eta txukundu nahiz konpontzeko<sup>113</sup>. Bide horien artean bereziak ziren oso andabide, gorputz-bide eta antzeko izenak hartzen zituztenak. Bideok erabiltzen ziren hildakoak elizara eramateko, eta bide-zorra eratzen zutenek, bertan ezin zen jabetza pribatuko inolako egintzarik gauzatu (esaterako, lubakiak egin, hesiak ipini)<sup>114</sup>. Baina baziren bestelako auzolan batzuk ere, horietariko batzuk gaur egunera arte heldu direnak. Azken horien artean dago, esate baterako, baselizak garbitu, konpondu eta meza-egunetarako egiteko arduratzea. Beste batzuk dagoeneko gure artetik desagertu dira baina bada haien oroimena. Halakoen artean bi dira nabarmendu beharreko kasuak. Bateko, auzoetako haurren heziketaz kezkatuta auzolanaren bidez eraiki ziren Bizkaiko auzo-eskolak; bada, auzokideek dirua ordaintzeaz gain, gogotik lan egiten zuten, materialak emanez, garraiatuz eta obretan parte

<sup>112</sup> ECHEGARAY, B. La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1932, 23. liburukia, 391. or.

<sup>113</sup> Auzolan-mota horiei buruz dabil ARIN DORRONSORO, Ataun herriko ohiturak gogora ekarriz. Halatan, Ataunen auzolan handia eta txikia bereizten omen ziren. Lehengoaren kasuan, gurdia ere eraman behar izaten zituzten, antza lan handiagoak egin behar zirelako; bigarren kasuan, ordea, nahikoa zen aitzur, pikatxoi eta antzeko lanabesekin. Irailean, auzolan ohikoa egiten zen, eta udaberrian edo bideen egoera eskasak hala galdatzen zuenean, ez-ohikoa. Herriko auzo bakoitzean arduradun bat zegoen, lanerako deiak egiten zituena. Gainera, arduradun horiek erabateko agintea zuten, auzokideak ordeztzeko, halakoek ezin zirenean bertaratu edo ez zutenean lanik egin nahi; azken kasu horretan, isunak ezartzen ziren. Nabarmendu behar da, halaber, Ataungo kasuan, auzokideez gain, auzolanean ari zitezkeela bidetik igarotzeko interesa zutenek (ARIN DORRONSORO, J. Pueblo de Atáun. Los establecimientos humanos y las condiciones naturales. In *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, 1926, 6. liburukia, 54. or.).

<sup>114</sup> Bide-zor horien inguruan ikusi ECHEGARAY, B. Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1925, 16. liburukia, 205-222. orr.

hartuz<sup>115</sup>. Besteko, karea erretzeko labeak auzo-bideetatik gertu eraikitzen ziren auzokide guztien erabilera erkiderako. Horren inguruko jardunbide guztia ere auzolanarekin gauzatzen zen (kare-harriak bertaraino garraiatu, labean horiek erre), eta, behin prozesua amaituta, lortutako karea auzokideen artean banatzen zen hainbana, zati berdinetan<sup>116</sup>.

Auzolanera biltzen ziren, berebat, nekazaritzari estu lotutako jarduera batzuk, batik bat, mendi erkiderik gabeko herrietan. Halakoetan, auzokide bakoitzak mendiaren zati baten gainean jabetza osoa zuen, eta lana errazteko xedearekin auzokide guztiek konpromisoa hartzen zuten elkarri laguntzeko. Modu horretara, denek batera lan egiten zuten bakoitzaren jabetzapeko lurretan, lankidetzan arituz. Gauzatu beharreko zeregin zehatzen artean aipagarri dira belar-mozketa, jorraketa, landaketa, laiaketa edota gari-jotzea. Zeregin horietan auzoko etxe bakoitzetik kide batek edo batzuek parte hartzen zuten, hurrengo baldintzarekin: hurkoaren zereginetan aritzeko etxetik zenbat lagun bidali eta etxe horrek etorkizunean horrenbeste lagun bidali beharko zituzten lehenengo etxe horretako zereginetan aritzeko. Baina gerta zitekeenez ezinezkoa izatea etxe batek beste batera aurretiaz harengandik jasotako beste lagun bidaltzea, konponbideak honakoak izaten ziren: eskulan gutxiagorekin moldatzea, baina egun gehiagotan lan egitea edo alokairukoak kontratatzea norberak gauzatu ezineko lanak egiteko<sup>117</sup>.

Auzolana zehaztasunez arautzen zen udalerrietako ordenantzetan, auzokideen betebeharren nondik norakoak ezarriz<sup>118</sup>.

115 ECHEGARAY, B. La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1932, 23. liburukia, 399-401. orr.

116 Ikusi VICARIO DE LA PEÑA, N., *op. cit.*, 114-116. orr.; eta ECHEGARAY, B., *op. cit.*, 389-391. orr.

117 Nekazaritzako jarduera horien gainean ikusi UNAMUNO, M., *op. cit.*, 135-136. orr.; eta THALAMAS LABANDIBAR, J., *op. cit.*, 47-50 orr.

118 Ordenantza horietako askoren iruzkinak aztertzeko ikusi REDONET y LÓPEZ-DÓRIGA, L. *Política Rural en España*. Madril: Sobrinos de Sucesora de M. Minuesa de los

53. Konklusio gisa, esan behar da lur erkidearen erabilerak eta auzolanak oinarri sendoak jarri zituztela mutualismoa Euskal Herrian zabaldu eta egonkortzeko. Hurrean ere, erkidegoak berezkoa duen kolektibismoak ahalbidetu zuen bizimodua aurrera ateratzea, banakako interesen gainetik, modu antolatu batean, unean-uneko premiei aurre eginez<sup>119</sup>. Hala ere, mutualismoan oinarritutako babes-teknikari ekin aurretik, hurrengo azpiatalean ongintzari helduko zaio, hurrenkera kronologikoaren ikuspuntutik hura baino lehenago gauzatu zen eta.

### 3.1.2. *Ongintzan oinarritutako babes-ekintza*

54. Euskal herrialdeetan ongintzaz mintzatzea da egokiena, nahiz eta, itxuraz, erakunde erlijiosoz landa gizabanakoak eskaini laguntza. Hori ulertzeko, aintzat hartu behar da, Elizak bultzatzen zuela gizabanako horien jarduna; are gehiago, sarritan, parrokoak izango dira auzoan nahiz herrietan laguntza hori antolatzen dutenak.

Nekazaritzaren esparrutik irten gabe, ohitura zen igande arratsaldeetan auzokideek lantzea gaixorik zeudenen lurrak, parrokoaren deia jaso

---

Ríos, 1928, 2. liburukia. Bertako adibide batzuk aipatzearen, hurrengoak aukeratu dira: kasu guztietan auzokideek euren betebeharrak ez gauzatzearen ondorioz isuna ordaindu behar badute ere, Begoña eta Sopuertako Ordenantzek ezartzen dute auzokide horiek ordaindu beharko dituztela eurek bete gabeko lanen kostuak (47. or.); Astigarreta eta Albizturko Ordenantzek isunaren arauketa hori jaso dute, ez-betetzea auzo-bideak konpontzeari begira gertatzen denean (121. or.); isun zehatzak ezartzen dituztenen artean daude Arabako Aramaio, Villareal, Lezama eta Ubarrundia herrietako Ordenantzak (376. or.).

<sup>119</sup> Ideia hori igarri-igarrian dago herrialde askotako ohiturazko zuzenbidean. XVIII. mendearen amaieran, liberalismoaren eskutik nagusitzen hasiko den indibidualismoak gainbeheran jarri zuen kolektibismoa. Dena den, eta ikerlan honetan esandakoarekin erkatzeko, interesgarria izan daiteke beste herrialde batzuen inguruan argitaratutako lanak kontuan hartzea, horien artean hurrengoak gomendatzen direla: bere izaera oro hartzailearengatik, ezinbestekoa da COSTA y MARTÍNEZ, J. *Derecho consuetudinario y economía popular de España*. Faksimile-edizioa: Zaragoza: Guara, 1981, 2 liburuki. Nahiz eta Leongo probintziara mugatu, oso interesgarria da, baita ere, oraintsu kaleratutako lan hau: RUBIO PÉREZ, L.M. *La gestión del común*. León: Edilesa, 2009, 120. orr.



eta gero. Beste horrenbeste gertatzen ei zen gaixotasunarengatik edo beste ezbeharren batengatik zereginak atzeratuta zituztenekin<sup>120</sup>.

Beren-beregi txiroei begira bazeuden ongintza-izaerako hainbat ohi-tura ere. Horietarik deigarriena, langabeziaren aurkako neurri gisa har daitekeena, hurrengoaren kasuan kasuko herri edo auzoko etxe bakoitzak egun baterako hartzen zuen delako txiroa, familiako beste bat bailitzan, eguneroko zereginetan aritzeko, egun horretako mantenuaren truke<sup>121</sup>. Era berean, edozenbat udalerritako Ordenantzek txiroekiko kariatatea agintzen zuten, horien artean, Arabako Zuia eta San Millaneok. Arabatik irten gabe, Salcedoko Ordenantzek herritarrei betebeharra ezartzen zien txiroak euren etxeetan txandaka hartzeko<sup>122</sup>.

Gaixotasun-egoeretan, gaixoa aita edo ama izanez gero, ohitura zen sendeak edo auzokideak arduratzea seme-alabez, horiek haziz eta heziz<sup>123</sup>.

55. Banakako ongintzarekin jarraituz, askotarikoak dira han-hemenka gauzatzen ziren ekintzak. Gipuzkoari dagokionez, MARTÍNEZ DE ISASTIK adibide gisa jaso zituen herrialde horretako zenbait ongilek egindako ekarpenak, hala nola, neska umezurtzak eta emakume alarguna berriro ezkondu ahal izateko, mairuen eskuetan gatibu zeuden gipuzkoarrak askatzeko, ospitaleak zabaltzeko (esate baterako, Elizalden, Eskoriatzan) eta txiroen mesedetan ogi- nahiz gari-bihitegiak hornitzeko<sup>124</sup>. Bizkaian eta Araban ere antzeko ekintzak gauzatu ziren autore desberdinek jaso dutenaren arabera<sup>125</sup>.

<sup>120</sup> TRUEBA, A., *op. cit.*, 21. or.; UNAMUNO, M., *op. cit.*, 136. or.

<sup>121</sup> UNAMUNO, M., *op. cit.*, 146. or.

<sup>122</sup> REDONET y LÓPEZ-DÓRIGA, L., *op. cit.*, 274. or.

<sup>123</sup> IZTUETA, J.I. *Historia de Guipúzcoa (1847)*. Faksimil-edizioa: Bilbo: Lan Gran Enciclopedia Vasca, 1975, 637-638. orr.

<sup>124</sup> MARTÍNEZ DE ISASTI, L. *Compendio historial de Guipúzcoa (1625)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 658-663. orr. Antzeko kasuak aztertzeko ikusi GOROSABEL, P., *op. cit.*, 565-569. orr.

<sup>125</sup> Bizkaiari dagokionez, ITURRIZAK 1679an ongile batek emakumeak ezkondu ahal izateko edo moja joateko egindako ekarpenen berri ematen du (ITURRIZA, J.R. *Historia*

56. Hala ere, gizabanakoen laguntzaz gain, antzinatek zeuden ospitaleak, Santiagorako bidearen inguruan<sup>126</sup>. GOROSABELen hitzetan ere, Gipuzkoari dagokionez, ongintzarako lehenengo erakundeak erromesentzako ostatuak izan ziren<sup>127</sup>, baina herririk garrantzitsuenetan bazeuden gaixoentzako ospitaleak ere, halakoak bereizten zirela orokorretan (gai-xotasun arruntentzako) eta berezietan (batik bat, San Lazaroren gaitza zeritzon leprarentzako)<sup>128</sup>.

---

*de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 501. or.). Arabari dagokionez, CAREAGA de LEQUERICKAK gogora dakar Araban ere modu berezian gauzatu zirela gari-bihitegiak (CAREAGA de LEQUERICKA, M.P.Y al prójimo como a ti mismo. Tríptico de la caridad vascongada. In *Zumarraga. Revista de Estudios Vascos*, 1955, 4. zk. 97. or.).

<sup>126</sup> GARIBAY y ZAMALLOA, E. *Historia Universal de todos los Reynos de España (1628)*. Faksimile-edizioa: Leioa: Gerardo Uña, 1988, 1. liburukia, 66-67. orr.

<sup>127</sup> Ildo horretatik doa, berebat, CAREAGA de LEQUERICKA, M.P. Dinámica y evolución de la asistencia social vizcaína. In *Vizcaya. Revista de la Excelentísima Diputación Provincial*, 1968, 29. zk.

<sup>128</sup> GOROSABEL, P., *op. cit.*, 555-565. orr. Adibide zehatzen artean aipatzen ditu Arrasateko hiru establezimenduak, euretariko bat lepradunentzako zena, beste bat herriko elbarrientzat eta azkena txiro, erlijioso eta bestelako pertsona batzuentzako; Azkoitiko Erruki-etxea, garai batean bertako txiroentzako eta erromesentzako sortu zena; Azpeitiko Erruki-etxea, sasoi batean ospitalea izandakoa, non babesa ematen zitzaizen herriko gaixo nahiz erromesei; Bergarako ospitalea, bertako txiro, arlote eta erromesentzako zena; Debako ongintza-erakundea, ospitalearenak egiten zituena, bertako txiroei eta erromesei begira; Donostiako ospitale orokorra, txiroei eta erromesei laguntzeko zena, eta lepradunentzako ospitale berezia; Eibarko ospitalea, non babesa eskaintzen zitzaizen txiroei eta erromesei; Elgoibarreko Erruki-etxea, garai batean ospitalea izandakoa, non txiroei eta erromesei babesa eskaintzen zitzaizen; Eskoriatzako Erruki-etxea, ospitale moduan eraiki zena txiroentzako; Getariako bi ospitaleak, San Sebastianen omenezkoa bata eta San Lazaroren omenezkoa bestea (azken horretan lepradunei eskaintzen zitzaizen laguntza); Hernaniko ospitalea, non babesa ematen zitzaizen herriko txiroei nahiz herritik igarotzen ziren atzerritarrei; Hondarribiko babeserako establezimendua, txiroentzako eta erromesentzako ez ezik, plaza hori defendatzen zutenentzat ere bazela; Iruneko ospitalea, Santa Margaritaren omenezkoa, baita ere herriko txiroentzako eta herritik igarotzen ziren atzerritarrentzako zena; Legazpiko txiroentzako

Arabari erreparatuz, LANDAZURIk Gasteizko Santa Ana eta Santiago ospitaleei buruzko informazioa ematen du. Bi-biak ere XV. mendearen hasieran sortuak, lehenengoak helburu zuen emakume alargun edo ez-kongabeei babesa ematea, zahartzaroarengatik edo gaixotasunarengatik ezin zutenean behar adinako bizibiderik lortu; bigarrena, batez ere, gaixoentzako izan zen, gizonentzako eta emakumeentzako egonlekuak bereizita zituela, baina txiroak eta erromesak ere hartzen zituen<sup>129</sup>.

Azkenik, Bizkaiaren kasuan ere, badirudi ongintzarako lehenengo establezimenduak erromesentzako sortu zirela. Bitxia izan arren, hasieran, San Juan de Gaztelugatzen eta Ziortzako kolegiatan baino ez omen ziren hakoak eraiki; izan ere, Bizkaian, elizek eta baselizek gauzatzen zuten egiteko hori, batez ere, San Lazaro eta Maria Magdalenaren omenezkoek. Gainera, azken horiek lepra-garaian, lepradunentzako ospitale izan ziren, eta gero bihurtu ziren ospitale orokor<sup>130</sup>.

---

ongintza-etxea; Mutrikuko ospitalea, herriko txiro eta gaixoentzako zena; Oñatiko Erruki-etxea, sasoi batean ospitalea izan zena; Ordiziako ospitalea, egun ez txiro eta gaixoentzako zena, eta, gauez, erromesentzako; Segurako bi ospitaleak, bata erromesentzako eta bestea lepradunentzako zirenak; Tolosako ongintza-erakundea, txiroentzako eta gaixotasun arruntak zituztenentzat, garai batean lepradunentzat ospitale berezia ere bazela [ospitale horri buruzko informazio zehatzagoa ematen du GOROSOBALek hurrengo lan honetan: *Bosquejo de las antiqüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de Tolosa*. Zizurkil: Imprenta de Pedro Aristegui, 1956, 213-218. orr.; bertan, ongintza-erakundea abandonatutako umeak harreran hartzeko ere erabili zela dio]; Urrietako ospitalea, bertako txiroentzako eta herritik igarotzen zirenentzako zena (nabarmendu behar da ospitale horri herritarren karitatearekin bakarrik eusten zitzaioela). Orobat, GOROSABALEK ohartarazten du garai batean ospitaleak izan zirela, baita ere, Alegrian, Andoainen, Antzuolan, Aretxabaletan, Asteasun, Ataunen, Aian, Beasainen, Berastegin, Elgetan, Errenterian, Itsasondon, Leintz-Gatzagan, Oiartzunen, Orion, Salinasen, Soraluzen, Urretxun, Usurbilen, Zarautzen, Zegaman eta Zestoan, nahiz eta geroago bertako txiroez probintziako sorospen-etxeak arduratu.

<sup>129</sup> LANDAZURI y ROMARATE, J.J. *Historia General de Álava (1798)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1973, 6. liburukia, 300-309 orr.

<sup>130</sup> CAREAGA de LEQUERICA, M.P., *op. cit.*, 98. or.

Bilbon, XV. menderako hiru ospitale zeuden<sup>131</sup>. Lehenengoa San Anton zubiaren eta Legizamon dorretxearen artean zegoen, Joan Deunen baselizan; bigarrena Zamudioko portalean, Maria Magdalenaren baselizan; eta hirugarrena San Nikolaseko errebelean, San Lazaro ospitalea alegia<sup>132</sup>. Denborak aurrera egin ahala, hiruretarik lehenengoak iraun zuen bakarrik. Bada, XVI. mendean, Joan Deunen baselizako ospitalea handitu eta XVII. mendean Bilboko ospitale bakarra bihurtu zen<sup>133</sup>. Azken mende horretan, ospitale horrek bere anaitasuna eratzea erdietsi zuen eta araudi nahiz diru-sarrera propioak ere bazituen; diru-sarrera horien iturri ziren, batik bat, erremusinak eta merkatu-gaien zein ardoaren gaineko arielak<sup>134</sup>.

Ospitale horrekin batera, Bilbon, berebiziko garrantzia izan zuen bertoko Erruki-etxeak. Hur-hurreko bi etapatan sortu zen berau. Aurrena, 1760an, Udalaren etxe batzuetan zabaldu zen, Sendeja kalean, modu oso apalean. Hurrena, hamar urte geroago, bere ekintza areagotzeko xedea-

<sup>131</sup> Hiru ospitale horiei buruzko azterketa sakonerako ikusi VILLANUEVA EDO, A. La asistencia hospitalaria medieval en Bilbao. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 2003, 59. liburukia, 1. zk., 105-134. orr.

<sup>132</sup> ITURRIZAREN esanetan, nahiz eta ospitale horren eratze-data ezezaguna izan, baze- goen 1482. urterako (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 3. liburukia, 327-328. orr.). ITURRIZAK berak diosku ospitale hori gaitz kutsakorra zutenentzat zela, eta, oso apala izanik, Udalak nahiz bilbotarren karitateak eusten ziotela horri (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 4. liburukia, 214. or.).

<sup>133</sup> ITURRIZAREN arabera, 1685ean Bilboko udalak ekin zion ospitale berri hori eraiki-tzeari, Pedro de Echevarría eta Barbara Boelpacg senar-emazteen jaraunse gisa jasotako diruekin, haien borondatea betez (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 529. or.).

<sup>134</sup> Ospitale hori 1908an Basurtora aldatu aurretik, bere ohiko kokalekuan, 1818.etik aurrera izandako eraldaketen ondorioz, zerbitzua Karitateko mojen esku utzi zuen Udalak, zerbitzua hobetze aldera (VILLANUEVA EDO, A. La última reforma del Hospital de los Santos Juanes de Achuri. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 2005, 61. liburukia, 2. zk., 470. or.).

rekin, lekuz aldatu zuten, hots, Jesusen Lagundiko San Andres ikastetxe ohira. Une horretan, bere anaitasun propioa lortu zuen.

Bilbotik at, zenbait herritan ere zabaldu ziren ospitaleak eta Erruki-etxeak, horren adibide izanik Gernikan, 1648an, Juan eta Isabel de Busturia senar-emazteek «Nuestra Señora de la Soledad» izenarekin eratutako ospitalea eta Erruki-etxea. Bi ziren bere egitekoak: batetik, gaixoei babes ematea; bestetik, txiro, elbarri eta bidaiari nahiz erromesei laguntza eskaintzea<sup>135</sup>. Orobat, ezin ahanzt daiteke ongintzari dagokionez medikuek eskaintako zerbitzua. Hona, bada, hiru adibide: Arratian, Zeanurik bakarrik zuen medikua, herri horretan ospitale eta babes-etxea zegoelako; Urduñan ere babes-etxea zegoenez, medikua zegoen; Ondarroako medikua inguruko auzoetako pertsonen osasunaz arduratzen zen<sup>136</sup>.

57. Ongintza sekularizatzeko bidean, hau da, laguntzarako igarobidean, nahiz eta oraindik Elizarekiko harremanak handiak izan, garaian-garaiko erakunde publikoen egitekoa ere kontuan hartu behar da, nahiz eta hasieran ez agertu modu antolatuan, egonkortasunarekin.

58. Horrela, esan daiteke erakunde publikoek aparteko kasuetan besterik ez zutela eskurik hartzen. Esaterako, Bizkaian behinik behin, mendez mende errepikatzen den egoera da Aldundiak behar adinako diru-kopuruak jartzeari, atzerrian arerioek gatibu hartutako bizkaitarrak askatzeko<sup>137</sup>. Izurri-teen aurkako aurreneurriez edo prebentzioaz ere arduratu zen Aldundia.

<sup>135</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 366. or.

<sup>136</sup> VILLANUEVA EDO, A. La asistencia médica rural en Vizcaya en 1827. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2000, 46. liburukia, 116. or.

<sup>137</sup> ITURRIZAK horren inguruko gertaerak jaso zituen. Adibidez, 1616an Aldundiak hirurogeita hamar dukat eman omen zituen Marokoko kostaldean preso hartutako bizkaitar bat askatzeko (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 86. or.); 1686an, berriro ere ongintzaren ideiarri loturik, Aldundiak Mesedeetako Ordenari diru-laguntzak jasotzeko ahalmena aitortu zion, Aljerren gatibu zeuden bizkaitarrak askatzen jarraitu ahal izateko (ITURRIZA, J.R. *Historia*

Konparazio baterako, osasun-ondoreetarako, 1720ko abuztuan, zaintza bereziak ezarri zituen Jaurerriko portu guztietan, bai eta Durangon, Eibar eta Ermua artean, Elorrión, Markinan eta Zaldibarren ere<sup>138</sup>. Modu berean, 1800. urtean, Andaluzian zabaldutako izurritearen beldurrak eraginda, Aldundiak agindu zuen herrialde hartatik etorritako pertsonak toki egokietan isolatzea eta ostatu nahiz jatetxeetan lan egiten zutenei mediku-azterketak egitea. Gainera, agindu horiek betetzen ez zituzten udalerriei isunak ezarriko zitzaie la ohartarazi zuen, hala bildutako diruak osasun publikora bideratuko zirela argituz<sup>139</sup>. Urte batzuk geroago, 1803an hain zuzen, Bilboko portuari eskumena aitortu zitzaion osasun-publikoaren arloan, Jaurerriko portu guztiei zegokienez. Kasu horretan ere, helburua bera zen: gaitz kutsakorrak zituzten pertsonen Jaurerrian sartzea eragozte. Horretarako, koarrentenak ezarri ahal zizkieten izurrite-guneetatik Jaurerriko portuetara ailegatzen ziren ontzietako tripulazioei edo horiekin nolabaiteko harremanak izandakoei. Bada, ondore horretarako, ainguraleku berezia prestatu zen Lurtxanan, gainerako herrialdeetako portuetan parekorik ez omen zuen bezalakoa: kutsatzeak saihesteko, elikagaiak eta osterantzeko zerbitzuak emateko instalazio egokiak zituen, eta bentilazio nahiz garbitasun handia zegoen<sup>140</sup>.

*de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 536-537. orr.); 1796an, Konbentzio-gerraren ondorioz Frantziak gatibu hartutako bizkaitarrei begira, berebat, Aldundiak hurrengo erabakiak hartu zituen: artean preso zeudenei alokairuak ordaintzen jarraitzea; alargunei goren mugako kalte-ordainak ordaintzea (berrogeita hamar dukat) eta beste horrenbeste umezurtzei, ama alarguna ere hilez gero (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 6. liburukia, 630. or.). Independentzia-gerraren ondorioz elbarri geratutako soldadu bizkaitarrei eta hildako soldaduen guraso, alargun eta seme-alaba behartsuei Aldundiak sorospenak eman zizkien, Erregeak ez baitzien artean ezer ordaindu (ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 8. liburukia, 34. or.).

<sup>138</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 6. liburukia, 121. or.

<sup>139</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 6. liburukia, 708. or.

<sup>140</sup> Horren inguruan ikusi GUIARD LARRAURI, T. *Historia del Consulado de Bilbao*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 3. liburukia, 2. bolumena, 688-690. orr.

59. Txiro edo eskalenganako jarrerari dagokionez, Aldundien jarrera ongintzaren eta errepresioaren artekoa izan zen.

Bizkaian, berbarako, 1783an, Aldundiak ahaleginak egin zituen Jaurerian zebiltzan erbesteko eskaleak kanporatzeko, zenbait prozedura ezarri. Halako prozeduretako bat izan zen Arrigorriagari agindutakoa<sup>141</sup>. Horren ondorioz, Arrigorriagako Udalak herrikoak ez ziren txiroei hogeita lau orduko epea eman behar zien herritik alde egiteko; areago, alde egin ezean, hogeita lau orduko espetxe-zigorra jasan beharko zuten horiek, euren ondasun apurrak ere galduko zituztela. Aurrerantzean herrira hel zitezkeen txiroek pasaporteak erakutsi beharko zuten eta, halakorik izan ezean, Bilboko kartzelara eraman beharko zituzten, horretarako adina izanez gero behintzat.

Pasaportedunak egun batez geratu ahal izango ziren herrian, eskean ibili gabe noski, eta babesak izanik herriko ospitale edo babes-etxean; gainera, galarazi egin zen gauzez halakoak hartzea jabetza pribatuko eraikitetan (etxe, teileria eta burdinoletan), hogeitaz dukateko isuna ezarri arau hori hausten zutenei eta espetxe-zigorra txiroei. Eskaleak elbarrituak edo gaixoak izanez gero, kontuan hartu behar zen medikuaren arabera horiek euren kabuz herria uzteko gai ziren ala ez. Gai baziren, lagundu egingo zituzten gertuen zegoen herriraino, billetea ordainduta eta guzti, eskaleak baliabiderik izan ezean. Gai ez zirenean, berriz, karitatea eskaini behar zitzaien, herria uzteko moduan egon arte. Azkenik, etorkizunari begira, Udalari agindu zitzaion herriko txiroei laguntzeko «karitate-biltzarra» eratzea.

Ildo beretik, 1806an, Aldundiak agindu zuen Jaurreriko herri guztietan biltzar bereziak eratzea, erremusinak nork jaso ahal zituen kontrolatzeko. Itxura denez, sasi txiro edo itxurazko txiroak zebiltzan, benetakoa txiroak baino ez zirenean eskean ibil zitezkeenak. Esangura horretan,

---

<sup>141</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 6. liburukia, 474. or.

Aldundiak herrietan eratu beharreko biltzar horiei agindu zien hileko lehenengo igandeetan edo jaiegunetan txiro guztiei deialdia egitea, udaletxera bertaratu zitezen. Behin udaletxean, biltzarreko kideek aztertu beharko zuten txiroen benetako egoera; eta gaixorik zeudela esaten zuten kasuan, medikuak erabaki beharko zuen haien gaixotasunaren egiazkotasuna. Horrenbestez, benetako txirotzat hartutakoek eskean jarraitu ahal izango zuten; itxurazko txiroei, ordea, lanean aritzeko ohartarazpena egin beharko zitzaientzen, gogor harturik gainera. Herrikoak ez ziren txirokek herria utzi beharko zuten, eta, horretarako, lau aguazilen laguntza izango zuten, euren herrietara heldu arte. Halaber, halakoei ohartarazi behar zitzaientzen itzuliz gero zortzi eguneko espetxe-zigorra jasan beharko zutela. Bilboren kasua zerbait desberdina zen, benetako txirokek bertako Erruki-etxera bideratuko zirelako eta itxurazko txiroei isuna ezarriko zitzaielako (hamar dukat, faltsukerian harrapatutako lehenengo aldia; hogeitaz dukat bigarren aldia, eta horren bikoitza hirugarren aldia)<sup>142</sup>.

Gipuzkoan ere ibilbide luzea du bertako erakunde publikoen behar-tsuenganako ardurak. Are gehiago, ondoren azalduko den bezala, bere garairako eredutzat ere har daiteke<sup>143</sup>.

Edonola ere, hasieran, Bizkaian gertatu antzera, behin eta berriro nahastu ziren ongintza eta errepresioa. Antzinatek ezagun zen probintzian eskean ibiltzeko debekua lan egiteko sasoia eta gaitasuna zuten artean. Hori dela eta, bide publikoetan eskean aritzea lapurretatzat hartzen zen eta, ondorenez, delitu horri zegokion zehapenarekin zigortzen zen. Hori berori ezarri zuten Probintziako Anaitasunaren Ordenantzek 1397an. Ondorengo Batzar Nagusiek ere ildo beretik jo zuten, baina arian-arian

<sup>142</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 8. liburukia, 113. or.

<sup>143</sup> Ibilbide hori jorrazteko kontuan hartu da GOROSABEL, P. *Noticia de las Cosas Memorables de Gipúzcoa (1899)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1967, 2. liburukia, 339-347. orr. Halaber, gauza bera laburrago jasota aztertu nahi bada ikusi ECHEGARAY C. *Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa (1924)*. Faksimile-edizioa: Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984, 243-246. orr.



aurrerapausoak eman zituzten. Horrela, Ordizian 1690ean egindako Batzar Nagusian erabaki garrantzitsuak hartu ziren:

Benetako txiroak ez zirenak ezin ziren eskean ibili. Eta benetako txiroek euren herrietan bakarrik eska zezaketen. Gainera, eskean ibiltzeko parrokiako abadearen baimena behar zuten. Baimen horiek piztuera-igandez eman eta urtero berriztu ahal ziren, benetako txirotasuna frogatzen bazen. Baimena lor ezin zezaketenen artean zeuden, berebat, bost urtetik gorako seme-alabak zituztenak. Bestalde, baimenik gabe eskean zebiltzanak arlotzat hartu eta halakoei ezarritako zigorrarekin zehatu behar ziren.

Ordenantza hori berriro onetsi zen Hondarribian 1694an egindako Batzar Nagusian, eta beste horrenbeste egin zen Deban 1701ean egindakoan. Hala ere, azken horretan, gehitu zen ospitale, herri eta baserrietan erromesak eta benetako txiroak baino ezin zirela babesean hartu. Hala-ber, horren haritik ezarri zen horiek ezin zirela egun bat baino gehiago egon herri berean.

Edonola ere, itxuraz, ordenantza horiek guztiak ez ziren oso eragingarriak izan; hurrean ere, 1708ko Batzarrean berriro agindu zen probintziako eliza guztietan 1690eko Ordenantza argitaratzea. Hain justu ere, behartsuen arazoarekin amaitzeko Batzar Nagusiek edozenbat ahalegin egin zituzten 1735ean eta 1737an, Donostian eta Elgoibarren Erruki-etxeak zabaltzeko. Baina ahalegin oro bertan behera utzi behar izan zuten aurrekontu nahikorik ez izateagatik.

Horrenbestez, Batzar Nagusiek eskaleen gaineko arauak hobetzearekin konformatu behar izan zuten. Horrela, Arrasaten 1770ean egindako Batzarrean, arau desberdinak proposatu ziren, 1772an behin betiko onepena lortu zutenak:

Inork ezin zuen erremusinak eskatu bere herritik kanpo, eta alkateek kaletik atera behar zituzten eskean harrapatutako kanpotar guztiak; kanpotar horiek probintziakoak izanez gero, euren herrietara bidali behar ziren, eta azken horietako alkateek ordaindu behar zituzten mantenuaren

eta garraioaren kostuak; kanpoko txiroari kendu behar zitzaizkion aldean zeramatzan ondasun guztiak, baita jasotako erremusinak ere; txiroa probintziaz kanpokoa izanez gero, kasuan kasuko alkateak probintziako mugetaraino eramanez behar zuen hori, aldean zeramatzan ondasun guztiak kenduta; erromesak herrietan behar besteko denbora baino gehiago gera ez zitezen, alkateek gaztetzoren baten laguntza eskaini behar zieten, dirua biltzeko; galarazi egiten zen gauzez txiroak etxe eta baserrietan hartzea, horretarako eskumen bakarra ospitaleek eta ostatu publikoek baitzuten; aipatu arau guztiak hausten zituenak sei dukateko isuna ordaindu behar zuen; azkenik, kasuan kasuko herriko txiroa izanik ere, eskean ibiltzeko alkatearen baimena behar zen, eta horrek ez zien halakorik emango lan egin zezaketenei edota euren mantenuaz arduratzeko gurasoak eta seme-alabak zituztenei.

Ordenantza hori baliatu zuten gerogarrenean Gipuzkoako udalherri guztiek. Baina baziren berrikuntzen alde egin zutenak ere, Segurako udalak kasu. Bada, 1817an, udal horrek hurrengo proposamena egin zion Aldundiari: txiroen artean lan egiteko gogoia pizteko beharrezkoa zen herrietako ongintza-biltzarrek kasuan kasuko Erruki-etxeetan mantak, baietak eta zapi arruntak egiteko fabrikak zabaltzea. Antzeman daitekeenez, bizibideak eskaintzea zen neurri horren xede nagusia, eskean ibiltzea edo Erruki-etxeetara jo beharra saihesteko. Proposamen hori oinarri, saiakera batzuk egin ziren, Tolosako Erruki-etxean adibidez, baina denek ere porrot egin zuten. Horregatik, ziurrenik, Tolosan 1829an egindako Batzarrean erabaki zen 1772ko erregelamendua oso-osoan betetzen jarraitzea, eta gauza bera erabaki zen Elgoibarren 1833an egindako Batzarrean ere.

Arau horiek guztiak gorabehera, lehenengo Karlistaldia amaitu ostean, eskaleen eta txiroen kopurua nabari areagotu zen. Egoera berriari aurre egiteko, Aldundiak aditu ilustratu batzuek osatutako Batzorde bati eskatu zion arau berria prestatzea. Egin-eginean ere, eskaerarekin batera honako hau gogorarazi zion batzorde horri:

«Behar-beharrezkoa da babesgabeei laguntzea, umezurtzak babestea, zoritxarrekoiei laguntzea, hitz gutxitan esanda, lotsagarri den txirotasuna karitate publikoaren magalera ekartzea, kalean askatasunez eskatzeak berearekin dakartzan arazoetatik urrun, ez bakarrik horrek txiroen zoria ezereztan duelako, ezpada, batez ere, arloteen eta gaizkileen ondorioz, eskaleek sarritan irabazi ohi duten izen txarrarengatik... Egoera hori ohi-tura publikoen aurka ez ezik, zibilizazioaren aurka ere badoa; eta Gipuzkoako probintzia, aurreratuenen artean dagoena, prestu dago txirotasuna bere lurraldetik behin betiko ezabatzeko, modu horretara beste titulu bat gehituko diela iraganeko nahiz egungo ospe handiei».

Idea horiek aintzat hartuta landu zen proposamena arau bihurtu zen Hondarribian 1849an egindako Batzarrean. Arau horrek lau Sorospen-etxe ezartzea agindu zuen, hurrenez hurren, Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Arrasaten, eta bere xedapenik garrantzitsuenetatik hurrengo nabarmendu behar da:

- (a) Ordura arte herrietan zabalik zeuden Ongintza-etxeei bere horretan eutsi behar zitzairen, herri horiek euren jurisdikziopeko behartsuak euren kontura babesten jarraitzea erabakitzen edo ahal zuten bitartean.
- (b) Aipatu lau Erruki-etxeek euren barruti judizialeko txiroak hartzeko betebeharra zuten, halakoak benetako txiro izanez gero.
- (c) Probintzia osoan eskean ibiltzeko debekua ezarri zen; eta arau hori hausten zutenak atxilotu eta euren jatorriko auzitegien esku utziko ziren.
- (d) Sorospen-etxeen barne antolaketa edo gobernua Karitateko Ahizpen esku utzi zen.
- (e) Establezimendu horietan hartutako pertsonen zegoenez, bannanduta egon behar ziren gizonak eta emakumeak, osasuntsuak eta gaixoak, haurrak eta nagusiak.

- (f) Haurrentzako lehen-hezkuntza ezarri behar zen.
- (g) Lan egiteko gai ziren gizon-emakumeei euren sexuaren, adinaren eta indarren araberako lana eman behar zitzaien.
- (h) Sorospen-etxeetan hartutako guztiak hezi behar ziren erlijioarekin eta moralarekin bat etorritz.
- (i) Txiroek establezimendu horietan egiten zituzten egonaldiak euren jatorriko udalerriek ordaindu behar zituzten. Hala ere, Tolosan 1852an egindako Batzarrean puntu hori aldatu eta erabaki zen kostu horiek erdibana ordaindu behar zituztela aipatu herriek eta Aldundiak. Geroago, batzar desberdinetan, erabaki zen ekonomiaren aldetik estu zebiltzan udalerrien kasuan Aldundiak bere gain hartzea kostuen hiru laurdena.

Arauketa berri horren ondorioak oso positiboak izan omen ziren GOROSABELen esanetan, neurri handi batean miseria desagertu ei zelako Gipuzkoatik. Autore beraren ustez, benetako txiroek, hau da bizimodua ateratzeko baliabiderik izan ez eta horiek eskuratzeko lan egin ezin zutenek, eskura zituzten erakunde egokiak, behar den moduko babesa izateko.

### 3.1.3. *Mutualismoan oinarritutako babes-ekintza*

60. Euskal Herrian, mutualismoaren lehenengo agerpenak nekazaritza-esparruan daude. Modurik sinpleenean antolatutako mutualismoa izango da berau, baina behar adinakoa bertatik bizi diren gizabanakoen eta familien premiak asetzeko.

Bada, auzokideen arteko elkartasuna joria, aberatsa izan zen, truke-jarduerean (ondasunak, opariak emanda, kasu) nahiz dohaineko jardueretan. Baina auzolanaz aritzean esan bezala, aintzat hartu behar da mutualismo-mota ororen ezaugarri nagusia: talde bateko pertsona bakoitzak jasan ditzakeen beharrian-egoerei taldeak egiten die aurre, modu horretara arindu egiten dela pertsona bakar batek edo, gehienez ere familiak, beharrian-egoeraren ondorioz jasan beharreko zama. Bestela esanda,

mutualismoak eratorritako babes-ekintzaren onura taldeko pertsona bakoitzarentzat da, eta ez taldearentzat, osotasunean.

61. Esangura horretan, UNAMUNOri jarraituz, gizarte-elkartasunaren adierazpen nagusienetakoa lorretan oinarritzen zen. Lorra betebeharra zen, auzoko nekazariak elkarri begira hartzen zuten betebeharra, euren ogibidea edo bizimodua gauzatzeko premiazko kontuetan elkarri zenbait ekarpen egiteko. Egin-eginean ere, lorra desberdinak zeuden<sup>144</sup>:

(a) Simaur-lorra. Nekazariak eskubidea zuen auzokoengana jotzeko etxebizitzaz aldatzen zenean edota etxe berriko lurra ongarrizatu gabe zegoela ikusterakoan. Horrela, simaur-lorra eskatzen zien eta auzokide bakoitzak simaur-gurdikada bat eman behar zion. Lantzean behin, aparteko egoera baten ondorioz, nekazariak ongarrri nahikorik ez zuenean ere, auzokideek simaur-lorra zuten. Babes hori eskertzeko, nekazari onuradunak, gehienetan, askari bat antolatzen zuten<sup>145</sup>.

(b) Bildots-lorra. Artzainak artaldea eratu behar zuenean edo hura ordeztzeko beharrezana zuenean (ardiak epidemiaren biktima izanagatik), auzokideetako bakoitzari ardi bat eskatu ahal zion. Hori zela eta, auzokideek eskaera bete behar zuten eta, simaur-lorreatan gertatu antzera, artzain onuradunak askari batekin eskertu ohi zien hori.

Halaber, artzainen premien artean, batzuetan borda konpontzea egoten zen, halakoak egiten baitziren erraz narriatzeko edo apurtzeko moduko materialez. Horregatik, artzainen batek borda konpontzeko laguntza eskatuz gero, auzokideek lorra zor zioten. Hori ohikoa ei zen Urbia eta Oltza inguruetan.

---

<sup>144</sup> UNAMUNO, M., *op. cit.*, 137-138. orr.; eta ECHEGARAY, B., *op. cit.*, 395. or.

<sup>145</sup> Hala ere, ñabardura gisa, esan behar da kasu batzuetan ekarpenak guztiz doakoak izaten zirela, hain zuzen ere, behartsuek askaririk ordaindu ezin zutenean (POSSE Y VILLELGA, J. El Caserío. VI. La acción asociada. In *Euskalerraren alde*, 1914, IV. urtea, 86. zk., 4. liburukia, 440. or.).

(c) Zur-lorra. Istripu baten ondorioz auzoko baten etxebizitza suntsituta geratzen zenean (suteengatik, batik bat), hura berreraiki ahal izateko, auzokide bakoitzak enbor bana edo zuhaitz bana emateko betebeharra edo lorra hartzen zuen bere gain.

62. Alabaina, lorrez gain, nekazaritza-esparruan ere garatu zen antolaketa handiagoko mutualismoa, gainerako lanbideetako gremioetan garatu zenaren oso antzekoa, nahiz eta artean gauzei baino ez aplikatu. Zehatzago, bi izan ziren mota horretako mutualismoa gauzatu zuten Anaitasunak, halakoetara biltzen zirela herri edo auzo bakoitzeko herritarrak:

(a) Suaroak. Gizarte-elkartasunak hala aginduta, suteran bat zegonean herritar guztiak abiatzen ziren hura itzaltzen laguntzera. Baina, Suaro zeritzen anaitasunak aurreikuspenean oinarritzen ziren, perfektutzat jo daitezkeen mutualismo-mota orotan gertatu antzera. Horregatik, bihar-etzi gerta zitezkeen suteei aurre egiteko, alde aurretik elkarrekiko sorospen-elkarte gisa antolatzen ziren. Behin sutea gertatu eta kasuan kasuko etxebizitza edo baserria erreta, kalteak tasatu eta elkartera biltzen ziren herritar guztiak ekarpena edo derrama egin behar zuten, dirutan eta materialetan, kaltetunari lagundu eta haren beharrian-egoera saihesteko. Bada, jasotako laguntza horri esker, kaltetunak etxebizitza berria eraiki ahal izaten zuen, herritar guztien esfortzuari esker. Laburbilduz, teknika erraza eta berehalakoa zen suaroarena: bertako kideen artean konfiantza zen nagusi, denak herritarrak izanik elkar ezagutzen zutelako beti; suaroek ez zuten ez inolako irabazteko asmorik, eta beraien xede bakarra kasuan kasuko kaltetunari laguntzea zenez, gaitz zen aipatu konfiantza galtzea; kaltetunak kalte-ordaina azkar jasotzen zuen, sutearen ondorioak erraz tasatu edo zehazten zirelako, zuzenean, inongo erakundetara jo beharrik gabe<sup>146</sup>.

<sup>146</sup> Suaroak maisuki azaldu zituen VICARIO de la PEÑAREN lana aztertzea merezi du (*op. cit.*, 239-250. orr.). Euskaraz, labur baina argi azalduta ikusi LOBERA REVILLA, A. Bizkaiko suaroen berezitasun eta ezaugarriak. In *Bilbao*, 2003ko azaroa, 42. or.

(b) Abereen arriskuen aurkako anaitasunak. Suaroekin gertatu antzera, halako anaitasunak elkartutakoen arteko konfiantzan oinarritzen ziren, baina askotarikoak izan zitezkeen, babestutako abere-moten (zerriak, behiak, idiak...) eta kalte-ordainak zehazteko modalitateen arabera<sup>147</sup>. Halako anaitasunen helburua zen bertako kideen abereek jasan zitzaizketen ezbeharren ondorioak saihestea (heriotza, lanerako baliagarritasuna galtzea). Horretarako, gehienetan, aldez aurretik zehazten zen abere bakoitzaren balioa (zenbait tokitan, aberea gaixotzean edo albaitariaren esanetan hura hiltzeko arriskua zegoenean), tokiaren arabera inguruabar desberdinak kontuan hartuta (uztarriaren edo idi-parearen balioa esaterako). Bada, zehaztutako balioaren arabera, behin abereak ezbeharra izanda, kide bakoitzak kuota bera ordaindu behar izaten zuen<sup>148</sup>. Ezbeharra jasandako aberea lanerako ezgaitua geratzen bazen, hil egiten zen, eta, haren haragia saldu ondoren, lortutako irabaziak anaitasuneko kideen artean banatzen ziren. Orobat, toki batzuetan, aberearen larrua ere kideen artean banatzen zen abarkak egiteko, kide bakoitzak zituen buruen arabera<sup>149</sup>.

63. Nekazaritzatik at, Europan nagusi zen mugimendu korporatibista Euskal Herrian egonkortu ahala, hiri eta herri handietan lanbideen araberako gremio eta anaitasunak sortzen hasi ziren, bai eta arrisku jakin bat oinarri hartuta (izurritea kasu) ogibide desberdinetako kideak biltzen

<sup>147</sup> ECHEGARAY, B., *op. cit.*, 380. or.

<sup>148</sup> Suaroen inguruan esandakoaren ildotik ikusi VICARIO de la PEÑA, *op. cit.*, 251-263. orr. Halaber, ikusi AZKUEK «tarama» hitzaz diharduenean Zumaiaiko herrian zeuden Anaitasunen inguruan dioena (AZKUE, R.M. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo: 1903). IZTUETAK ere eman zuen halako anaitasunen berri hurrengo esatean: «zoritarrez, baseritarren bati, arrazoï desberdinak direla bide, abereren bat ezgaitzen bazaio edo hiltzen bazaio, anaitasuna elkartu eta berehala ordainduko zaizkio kalte-ordainak horri» (IZTUETA, J.I., *op. cit.*, 636. or.).

<sup>149</sup> ECHEGARAY, B., *op. cit.*, 383. or.

zituztenak ere<sup>150</sup>. Horiek guztiak banan-banan aztertzea ezinezkoa da, herriz herriko gizarte-historiari lan bakar batean erreparatzea gehiegi litzatekeelako<sup>151</sup>, baina Euskal Herri osoan egon badago, nekazaritzarekin gertatu bezala, nolabaiteko batasuna edo koherentzia agertzen duen beste esparru bat, alegia, itsas arrantzale eta marinelena. Gainera, esparru horretako kofradiak gaur egunera arte heldu dira etenik gabe, eta, baxurako arrantzara mugaturik bada ere, halakoek eginkizun garrantzitsua dute oraindik.

64. Halatan, Kantauri Itsasoko arrantzaleen kofradiak ei dira estatuan garatuenak eta tradizio gehien dutenak<sup>152</sup>. Zehaztasun gehiagorekin, Euskal Herriko kofradiei dagokienez, ERKOREKAK dio gure kofradiak ere Behe Erdi Aroan zehar hedatzen den mugimendu korporatibistara biltzen direla<sup>153</sup>. Modu horretara, XIV. menderako erabat antolatuta egon ziren Euskal Herriko portuetako kofradiak. Halaber, kontuan hartu behar da garai horretan ekonomia-krisi gogorrek astindu zuela Europa osoa, eta elkarrekiko laguntza areagotu egin zela berez hainbeste premia sorrarazten dituen itsas-esparruan (ekaitzek sortutako istripu, matxura eta hondoratzek, arrantza-eskasia, salmenta-arazoak...)<sup>154</sup>.

<sup>150</sup> Azken horien artean zeuden, esate baterako, Bergarako San Sebastián eta San Roque kofradiak (MADARIAGA ORBEA, J. *Historia social de Bergara en su época preindustrial*. Bergarako Udala, 1991, 55. or.)

<sup>151</sup> Lan-antolaketaren inguruan badira lan oro hartzaileak, baina halakoek ez diote gizarte-babesari edota -ekintzari heltzen. Denen artetik, ikusi AZPIAZU ELORZA, J.A. *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*. Oiartzun: Gipuzkoako Kultura Kultur Fundazioaren Argitalpenak, 1990, 1. liburukia, 271. or. eta h.

<sup>152</sup> PUIG REBOLLO, M., FALCÓN y TELLA, R. eta LÓPEZ BENÍTEZ, M. *Naturaleza y régimen jurídico de las Cofradías de Pescadores*: Córdoba: Servicio de Publicaciones. Universidad de Córdoba, 1996, 171. or.

<sup>153</sup> ERKOREKA GERVASIO, J.I. *Análisis Histórico-Institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991, 32. or.

<sup>154</sup> Oro har, arrantzaleen kofradien sorrerari buruz ikusi ARRIETA IDIAKEZ, F.J. *La Seguridad Social de los trabajadores del mar en el Derecho español*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007, 34-37. orr.



Antolakuntza horren agerpenik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, kofradien ordenantzak izan ziren. Bada, CASARIEGOREKIN bat etorritz, nabarmendu behar da kofradia gehientsuenek antzeko ordenantzak izan zituztela, esparru geografiko eta ekonomiko berean kokatzeagatik edota, gutxi gorabehera, une historiko berean sortzeagatik<sup>155</sup>.

Eta ordenantza horietan bizi-bizi antzeman daiteke mutualismoa, lanbidearen gorabehera guztiak antolatzen direnean. Hori berori gertatzen da itsas-ezbeharrei aurre egiteko zehaztasunez arautzen den babes-ekintzarekin ere. Izan ere, kofradia orotako ordenantzek ezarri zituzten arrazoi desberdinengatik lanik egin ezin zuten arrantzaleei laguntzeko kuota edo sorospenak. Baina badirudi, sorospen eta laguntza horiek ez zirela ezbehar-kasu guztietan ematen, ezpada soil-soilik kaltetunek behar adinako baliabiderik ez zutenean jasandako ezbeharrei aurre egiteko (gaixotasuna, ezgaitasuna...)<sup>156</sup>.

65. Oro har, kofradiek euren kideei, ezbehar-egoeretan, emandako sorospenak sei multzo nagusitan sailka daitezke:

(a) Heriotza eta ehorzketa-gastuak: kofradiek ordaindu ohi zituzten ehorzketa-gastuak eta, batzuetan, hiletengatik lehorrean, arrantzatzerara atera gabe, geratzen ziren arrantzaleen ordainsariak ere euren gain hartzen zituzten<sup>157</sup>.

(b) Langabezia. Garai hartan langabeziaren kontzepturik ez bazegoen ere, gaur egun ezagutzen den esanguran behinik behin, kofradietako ordenantzek sarri jasotzen zuten nolabaiteko kezka edo

<sup>155</sup> CASARIEGO, J.E. *Historia del Derecho y de las Instituciones Marítimas del Mundo Hispánico*. Madril: José Ruiz Alonso, impresor, 1947, 169. or.

<sup>156</sup> LEIZAOLA, J.M. *Obras completas*. Donostia: Sendoa, 1981, 3. liburukia, 948. or. Dudamudarik gabe, horrek argi uzten du kofradien babes-ekintzak beharizan-egoera baino gabezia-egora zuela xedetzat.

<sup>157</sup> RUMEU DE ARMAS, A. *Historia de la Previsión Social en España*. Madril: Editorial Revista de Derecho Privado, 1944, 151. or.

ardura, arrazoi desberdinengatik ontziak ezin zirenean itsasoratu. Halaber, tripulazioak aukeratzekoan, adinean aurrera zihoazen arrantzaleak baztertuta gera ez zitezen, ordenantza askok arrantzale horiek txandaka banatzen zituzten kofradiara bildutako ontzi desberdinen artean<sup>158</sup>.

Itsaso zakarrarengatik edo harrapaketarik ezarengatik ontziak portuan loturik geratu behar zirenean ere diru-sarreraren falta laster nabaritzen zen. Beraz, erregela orokor gisa, kofradiek aurrerakinak banatzen zituzten kaltetunen artean, kasurik larrietan maileguak ere eskatzen zituztela. Batzuetan, aurrerakin horiek itzuli beharrik gabekoak izaten ziren; beste batzuetan, ordea, konpentsatu egiten ziren horiek, hurrengo mareetan izandako irabaziekin<sup>159</sup>.

Baina, zalantzarik gabe, langabezia-egoerarik latzenak bizitzen ziren, hondoratzeen edo matxuren ondorioz arrantzaleek lehorrean geratu behar izaten zutenean. Kasu horietan, kofradiek diru-laguntzak ematen zituzten, kaltetunek ontzi berriak egin edo matxurak konpon zituzten. Kasu horietan ere, laguntza ematen zen hori itzuli beharrik gabe edo itzultzeko beharrezkin<sup>160</sup>. Zenbait portutan, ohitura zen, berebat, arrazoi horiengatik lan gabe geratzen ziren arrantzaleak kofradiako beste ontzien artean txandaka hartzea<sup>161</sup>.

(c) Zahartzaroa eta baliaezintasuna. Ordenantzek batera arautzen zituzten bi arrisku horiek, bi-biek behin betiko ezgaitzen baitzuten arrantzalea edozein ontzitan aritzeko. Badirudi, edozein arrazoik

<sup>158</sup> Debako eta Bermeoko kofradiek jaso zuten neurri hori (ikusi ERKOREKA GERVASIO, J.I., *op. cit.*, 304. or.).

<sup>159</sup> ZUBIKARAI BEDIAUNETA, A. Cosas que no se olvidan. In *Ondarroa urtekarria*. Ondarroa: Udal Kultura Etxea, 1985, 72-73. orr.

<sup>160</sup> ERKOREKA GERVASIO, J.I., *op. cit.*, 327. or.

<sup>161</sup> Esaterako, Ondarroan oraintsu arte bizirik izan da ohitura hori (ikusi ARRIETA IDIAKEZ, F.J. *Itsaso Aldetik. Ondarroako gizon eta emakumeen kontakizunak*. Bilbo: Arranondo Kultura Elkarte, 2011, .301. or.).

erator zezakeela baliaezintasuna (gerrek, istripuek...). Behin ezbeharra jazota, kofradiek eguneroko sorospena ematen zuten, kalte-duna eta horren familia mantentzeko. Trukean, kalte-dunek konpromisoa hartzen zuten, kofradietako umezurtzei nabigazio-kontuak irakasteko<sup>162</sup>.

Zahartzaroari aurre egiteko neurrien artean, bitxia da oso ITURRIZAK Lekeitioko kofradiari begira jasotakoa. Bada, kofradiak Elizari bula eskatu zion, igandeetan eta jaiegunetan, horien artean egunik garrantzitsuenak salbuetsiz, arrantzan egin ahal izateko; izan ere, lekeitiarrek kofradiaren ekonomia-egoera kaskarrari erreparatzen zioten mesede hori erdiesteko. Bete beharreko baldintzak, bada, hurrengoak ziren: egun berean, itsasoratu aurretik, meza entzutea; eta lortutako irabazietarik zati bat Elizarentzako izatea, ongintza-ekintzetarako, eta soberakina kofradiaren beharri-zanetarako<sup>163</sup>.

(d) Gaixotasuna. Kofradia gehientsuenetan, gaixoei babes eskaintzen zitzaien diru-laguntzak emanaz. Toki batzuetan, diru-kopuru hori berdinen zen egoera normalean irabaziko luketenarekin. Halaber, diru-izaerarik gabeko prestazioak ere eskaintzen zitzaizkien<sup>164</sup>; azken horien artean zeuden medikamentuak eta kofradiako kideek txandaka egiten zizkieten bisitak<sup>165</sup>. Zenbait ordenantzek kalte-ordainak ematen zizkieten gaixoak portura ekartzeagatik arrantzan egiteari lagatzen zioten ontzietako arrantzaleei<sup>166</sup>.

<sup>162</sup> Baliaezintasuna zehatz-mehatz arautzen zuten ordenantzen artean Portugaletekoak daude (ikusi RUMEU DE ARMAS, A., *op. cit.*, 381. or.).

<sup>163</sup> ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia, 48-49. orr.

<sup>164</sup> CASARIEGO, J.E., *op. cit.*, 176. or.

<sup>165</sup> ERKOREKA GERVASIO, J.I., *op. cit.*, 323. or.

<sup>166</sup> Mundakako eta Elantxobeko kofradiek jaso zuten babes-mota hori (ikusi ERKOREKA GERVASIO, J.I., *op. cit.*, 323. or.).

(e) Alarguntza eta zurztasuna. Familia-buruaren heriotzarengatik sorospenak era desberdinetakoak izan zitezkeen. Kasu batzuetan, alargunei eta umezurtzei erremusinak-eta ematen zitzaizkien<sup>167</sup>. Beste toki batzuetan, alargunei eta umezurtzei lanposturen bat bi-latzen zitzairen, euren kabuz bizirauteko<sup>168</sup>. Kofradietako buruek tutore eginkizuna ere betetzen zuten, umezurtzei nabigazio-gora-beherak irakatsiz<sup>169</sup>.

(f) Gatibutasuna. Itsas bataila eta piraten aurkako liskar ugari-  
ondorioz, noizean behin, arerioek gatibu hartzen zituzten euskal  
arrantzaleak. Beraz, arrantzale horiek askatzeko ere ematen zuten  
dirua kofradiek<sup>170</sup>.

### 3.2. Foru-sistema publikoa galdu ondoren

66. Behin 1876ko uztailaren 21eko Legea aldarrikatuta, euskal herri-  
aldeek foru-sistema publikoa galdu zuten, eta horrekin ateak zarratu zi-  
tzaizkion alde bakarrez jarduteari, sortzen ari zen lan-legeriaren esparruan  
eta, bereziki, Gizarte Babesari dagokionean.

Espainiako Gobernuaren asmoa, Frantziako ereduari jarraituz, probin-  
tzia guztiak berdinstea bazen ere, euskal herrialdeetako eta, batez ere, Biz-  
kaiko egoera ekonomikoa askoz ere aurreratuagoa zen. Bada, azkenean,  
aukera hori baliatu ahal izateko, Espainiako Gobernuak halabeharrez jo  
zuen euskal probintziekin Ekonomi Itunak egitera, 1878tik aurrera. Ho-  
rrela, itun horiek hurrengo urteetan ere berriztatu ziren (1887, 1894,  
1906 eta 1925. urteetakoak horren adibide), eta, ondorenez, euskal pro-  
bintziek finantza ikuspuntutik nolabaiteko autonomiari eutsi zioten,

<sup>167</sup> ERKOREKA GERVARISIO, J.I., *op. cit.*, 325. or.

<sup>168</sup> RUMEU DE ARMAS, A., *op. cit.*, 382. or.

<sup>169</sup> *Ibidem*.

<sup>170</sup> ERKOREKA GERVARISIO, J.I., *op. cit.*, 326. or.

hori iragan hurbilean izandako subiranotasunaren arrastoa besterik ez bazen ere<sup>171</sup>.

Ezin uka daiteke, beraz, Ekonomi Itunak orduan —gaur egungo Ekonomi Ituna bezala— autogestiorako tresna ezin hobea izan zirela. Alabaina, horiek egin zirenean, artean sortu gabe zeuden gizarte-aseguruak, alegia, geroago, 1963az geroztik, sortu behar zen Gizarte Segurantzako Sistemaren aurrekaririk gertukoena. Jarraian ikusiko den bezala, inguruabar horrek erabat baldintzatu zituen euskal herrialdeen eta estatu zentralaren arteko harremanak, eskumen banaketei dagokienez, gizarte-aseguru horien funtzionamenduan —eta gero Gizarte Segurantzako Sistemaren funtzionamenduan—<sup>172</sup>.

Jakina denez, nahiz eta Ekonomi Itunak ezarri, foru-sistema publikoaren galerak biztu egin zuen Euskal Herriaren aldeko sentimendua ikuspuntu desberdinetatik. Bada, ikerlan honen ondoretarako, une horretako egoera oso ondo laburtzen dute JAMARren hitzek (Gipuzkoari buruz bakarrik badabil ere), eta ez da ahaztu behar liberala zela bera<sup>173</sup>:

«Ezin onar daiteke probintzia guztiak maila berean jartzea. Gure probintziak estatuarekin izan behar dituen harremanek baztertu egiten dute parekatze hori. Lotura federal batek batzen gaitu: euskaldunok federazio

---

<sup>171</sup> OLABARRI, I. *Relaciones laborales Vizcaya*. Durango: Leopoldo Zugaza, 1978, 7. or.

<sup>172</sup> Inguruabar hori aintzat hartuta, malenkoniatsu esan izan da gizarte-aseguruak Ekonomi Itunetara bildu ez izana kaltegarria izan dela euskal herrialdeen autogobernurako bi arrazoirengatik: horrek «ahalbide finantzarioak kentzen dizkiolako, batetik, eta herritarren ongizaterako oso premiazkoa den alderdi bat —pentsioak kudeatzea— eragozten duelako, bestetik» (GÓMEZ URANGA, M., OTAZUA, G. eta DE LA CAL, M.L. *Bertako pensio-sistema nola eratu: hausnarketak*. Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa, 2005, 6. or.). IRUJO OLLOK ere azpimarratu zuen, foru-subiranotasuna galdu ondoren, euskal herrialdeek Gizarte Segurantzari dagokienez estatu zentralak antolatutako arautegiari men egin behar izan diotela eta, ondorenez, ezin izan dutela euren tradizioak garatu eta hobetu euren babes-ekintzaren esparruan (IRUJO OLLO, M., *op. cit.*, 93).

<sup>173</sup> JAMAR, J. *El Fuero de Guipúzcoa. La cuestión social*. Bilbo: Biblioteca Bascongada de Fermín Herrán, 1900, 48. liburukia, 12-13. orr.

horri eutsi behar diogu... Ez dugu inoiz onartu behar estatuak, gobernu zentralak, gure administrazioan esku-hartzerik; ez dugu onartu behar bere gain hartzea gure obra publikoen, kultuaren, irakaskuntzaren eta ongintza-erakundeen ardurarik... Espainiako probintzia bakoitzak egin dezala guk egin ohi duguna!».

67. Testuinguru horretan, babes-ekintzak ongintza edo laguntzaren etretzean bere horretan jarraitu zuen<sup>174</sup>, nahiz eta ordurako Gobernu zentrala esparru horretako lehenengo arauak ematen hasita zegoen.

68. Nolanahi ere, arian-arian sortzen ari ziren babes-teknika berriei dagokienez, jarraian aztertuko diren ildoek erabat baldintzatu zuten — eta dute— Euskal Herriko babes-ekintza.

### 3.2.1. *Lan-istripuen Legea, 1900eko urtarrilaren 30ekoa, onartzea*<sup>175</sup>

69. Lege horrek, Europako beste estatuetan bezala —Alemanian izan ezik, bertan hasieratik eratu zirelako gizarte-aseguratuak—, bere baitara bildu zuen lanbide-arriskuaren erantzukizuna, ondoko hau ezartzean:

«Ugazabak erantzun behar du langileek jasandako istripuei begira, istripu horiek gertatuz gero langileen lanbidearen ondorioz eta langilea bere lanbideko zereginetan edo lanean dagoela, salbu eta istripua zein la-

<sup>174</sup> Esaterako, Bizkaian, RODA jasotakoaren arabera (RODA, D. *La beneficencia en Vizcaya*. Bilbao: Eléxpuru Hermanos, 1931), 1908. urtean Basurtoko Ospitaleak atek ireki zituen (17-24. orr.); 1915. urtean, Ledo doktoreak tuberkulosiaren aurkako kontsultegia sortu zuen (25-30. orr.); 1919. urtean, Gorlizeko itsas erietxeak atek ireki zituen tuberkulosiaren ondorioz gaixo zeuden Bizkaiko ume txiroez arduratzeko (37-42. orr.); 1923. urtean, Zaldibarren, buruko gaitzak jota zeudenak zaindu eta tratatzeko eroetxea zabaldu zen (53-58. orr.). Halaber, Deustun, gor-mutuen ikastetxea zabaldu zen 1908an, Aldundiak, Bilboko Udalak eta ongileek emandako laguntzekin (ikus La beneficencia en Vizcaya. Cómo se llegó a la fundación del colegio de sordomudos de Deusto. In *Vida Vasca*, 1931, 8. zk., 85. or.). Gipuzkoan, Donostian 1889aren abenduan irekitako Matía babes-etxea da horren adibide (ikus La beneficencia en San Sebastián. El asilo Matía. In *Euskalerraren alde*, 1916, 6. liburukia, 137. zk., 512-518. orr.).

<sup>175</sup> 1900eko urtarrilaren 31ko Gazeta de Madrid, 31. zk.

netan gertatu eta lan horrekin zerikusirik ez duen ezinbesteko kasuaren ondorio denean» (2. artikulua).

Gainera, enpresaburua lanbide-arriskuen gaineko erantzulea zenean, enpresaburu horrek zituen betebeharreri zegokienez (4, 5 eta 10. artikulua), legeak aseguru-teknikara jo zuen. Borondatezko aseguru ezarri zuen eta aseguru horren ondorioz langileak jaso beharreko laguntza izan behar zen, gutxienez, legean bertan ezarritako zenbatekoaren bestekoa.

Lan-istripuei buruzko Legearen ondorioz, 1900eko uztailaren 28an lege hori aplikatzeko erregelamendua aldarrikatu zen<sup>176</sup>. Aseguru-teknikak lan-istripuei aurre egiteko zuen garrantzia ezin hobeto jaso zen erregelamendu horretan; izan ere, 7. kapitulua «istripuen aseguruari» buruzkoa izan zen. Horren adibide dira 71. artikuluan aseguru-etxeei ezarritako baldintzak.

Bada, Euskal Herrian, lege horren aginduak bete aurretik ere, nabarmendu behar da bazirela borondatezko izaerarekin euren langileak gizarte-arriskuetatik babesten zituzten enpresak<sup>177</sup>. Behin lege hori emanda, esanguratsua da oso, 1900eko martxoaren 25ean, Gasteizen eratu zela estatuko lan-istripuen lehenengo Mutua (La Previsora). Izaera pribatuko erakunde horrek bere baitara biltzen zituen arlo desberdinetako enpresaburuak, hain zuzen, euren langileak lan-istripuetatik babesteko, kasuan kasuko aseguru eginez<sup>178</sup>. Hilabete geroago, apirilaren 22an, Bizkaian, «Sociedad de Seguros Mutuos de Vizcaya» sortu zen helburu berarekin<sup>179</sup>.

<sup>176</sup> 1900eko ekainaren 30eko Gazeta de Madrid, 211. zk.

<sup>177</sup> Horren adibide izan zen Bizkaiko «Santa Ana de Bolueta» enpresa, 1841.etik bere gizarte-babeseko antolaketa baitzuen. Bada, jubilazioak eta istripuak jasandako langileen eta horien familiakoen babesa biltzen zituen bere babes-ekintzara. Azken horiei etxeak ematen zizkien eta alargunei lanpostuak bilatzen zizkien (BIZKAIA ZERGINTZA ELKARTEA. MUTUA DE ACCIDENTES DE TRABAJO Y ENFERMEDADES PROFESIONALES DE LA SEGURIDAD SOCIAL. *Un siglo de protección social en Vizcaya 1900-2000*, 24. or.).

<sup>178</sup> Esangura horretan, ikusi MALDONADO MOLINA, F.J. *Las mutualidades de previsión social como entidades aseguradoras*. Granada: Comares, 2001, 29-30. orr.

<sup>179</sup> Mutua hori gaur egunera arte heldu da, nahiz eta bere historian zehar izen desberdinak izan. 1999an 27.000 enpresa baino gehiago zituen afiliatuta, 139.228 langile babes-

Bi mutua horien berezitasuna izan zen, enpresaburuek eurek sortu zituztela babes-ondoreetarako baino ez, aseguru-etxe pribatuetara jo gabe. Gerogarrenean, eredu bihurtu eta estatu osora zabaldu ziren, gaur egungo Gizarte Segurantzian aitortuta daudela, besteak beste, lanbide-arriskuak aseguratzeak aukera moduan, sortu zireneko helburu oso antzekoekin.

### 3.2.2. 1908ko otsailaren Legea, Aurreikuspeneko Institutu Nazionala (INP) sortzekoa, eta bere testuingurua<sup>180</sup>

70. Lege horren bidez sortutako INP erakundeak berebiziko garrantzia izan zuen hurrengo urteetan gizarte-asegurua sortzeko. Egin-eginan ere, lehenengo aurrezkiaren garrantzia (aurrezteko kultura, alegia) hedatu behar zen gizartearen, eta horretan INPrekin batera lan eskerga egin zuten Euskal Herrian sortu berriak ziren Aurrezki Kutxek.

Zeregin horietan jardun zutenen artean Gregorio Mújica gipuzkoarra nabarmendu behar da. Gipuzkoako INPko arduradun zela, Gipuzkoako Aurrezkiaren laguntzaz, lan batzuk idatzi zituen, baita euskaraz ere. Berhabada, horietarik ezagunena erretiroari buruzko gizarte-asegurua azaltzeko idatzitakoa da, *Langilientzat Zartzaro-Legea* izenarekin argitaratua, 1921ean<sup>181</sup>. Ildo beretik, Nazario Oleagak ere itzuli zuen 1923an MÚJICAK gaztelaniaz idatzitako lan bat, umeen artean aurrezki sustatzeko xedearekin: *Zurstazun-gogoia. Umeentzako oartxo egokiak*. Beraz, garai hartako propagandisten artean, euskaraz ere izan zuen tokia, babes-teknika zehaztuen nahiz zehaztugabeen berri emateko<sup>182</sup>.

---

ten zituela (BIZKAIA ZERGINTZA ELKARTEA. MUTUA DE ACCIDENTES DE TRABAJO Y ENFERMEDADES PROFESIONALES DE LA SEGURIDAD SOCIAL., *op.cit.*, 11. or.).

<sup>180</sup> 1908ko otsailaren 29ko Gazeta de Madrid, 60. zk.

<sup>181</sup> Euskal gizartearen erretiroaren garrantziaz jabebarazi nahian idatzi zuen, berebat, MÚJICA, G. Por los viejos. In *Euskalerrriaren alde*, 1921, 11. liburukia, 216. zk., 441-449. orr.

<sup>182</sup> ARRIETA IDIAKEZ, FJ. Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpengintzaren bidez: lan-zuzenbidea adibide gisa. In *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak, 2009, 189. or.



Industriari begira ez ezik, nekazaritza-esparrura begira ere jarri ziren hainbat propagandista euskaldun. Horien artean, CHALBAUD esparru horretan Sindikatuek eta Baserritarren Kutxek zuten garrantziaz mintzatu zen. Hartara, nabarmendu zuen Baserritarren Kutxek lukurreria saihestea gain, sustapenerako neurriak hartzen zituztela. Horregatik animatu zituen bailara, auzo eta herri txikietako baserritarrak horietara biltzera. Esangura horretan, elkarrekiko sorospenaren egitekoari erreparatu zion, konfiantza oinarri askoren arteko baturak arriskuak hobeto jasatea zekarrelako. Areago, elkarrekiko familiaren sorospena suspertzen ahalegindu zen, modu horretara familia osoari eskaini ahal zitzaizolako babes, eta ez gizabanako bakarrari. Zahartzaroari zegokionez, MÚJICAK bezala, aseguruaren alde egin zuen, aurreikuspenak bihar-etziko ezbeharrak edo gabeziak saihesten zitzaizkelako<sup>183</sup>.

71. Bilakaera horretan, 1919an onartu zen lehenengo gizarte-asegurua Espainian, hain zuzen ere, itsasoko istripuei buruzkoa (1919ko urriaren 15eko Errege Dekretua). Baina gizarte-aseguruen artean, entzute handiena izan zuen erretiroei buruzkoa, 1921ean indarrean jarri zenak (1921eko urtarrilaren 21eko Errege Dekretua, 1919ko martxoaren 11ko Errege Dekretuak erretiroari buruz ezarri oinarriak aplikatzeko).

Garai horretan, zehatzago, 1920ko uztailaren 18tik 25era, Iruñean Eusko Ikaskuntzen II. Kongresua egin zen, eta bertan Gizarte Babesaren inguruko edozenbat gai jorratu ziren. Kongresuko konferentzia orokorrean azaldu zen gizarte-aseguruak Euskal Herrian aplikatzeko erakundeak zer-nolakoak izan behar zuten<sup>184</sup>. Erakunde horien artean, Aurrezki Kutxak, Aurreikuspen Kutxak eta Gizarte Idazkaritzak nabarmendu ziren

<sup>183</sup> CHALBAUD Y ERRAZQUIN, L. *Sindicatos y Cajas Rurales. Su administración y contabilidad*. Bartzelona: Oficina de Trabajo de la Acción Social Popular, 1913, 2. argitaralpena, 15. orr. eta h.

<sup>184</sup> II Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea celebrada en Pamplona del 18 al 25 de julio de 1920. Donostia: Editorial y prensa, S.A., 1920, 380-386. orr.

(halakoak probintzien arabera antolatu behar omen ziren). Esangura horretan, proposatu zen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako erakundeek elkarrekin jardun behar zutela, eta horretarako nahitaezkoa zela Euskal Gizarte Institutua eratzea. Bada, azken erakunde horretan lau herrialdeetako ordezkariak parte hartu behar zuten eta erakunde horrek zuzendu behar zituen Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-eginkizunik garrantzitsuenak.

Edonola ere, berebiziko garrantzia aitortu zitzaion Aurreikuspen Kuxtei, beraiek arduratu behar baitziren gizarte-aseguruen batasuna sustatzeaz probintzia bakoitzean nahiz Euskal Herri osoan.

Baina ikerlan honetako ondoreetarako, Kongresu horretako ekarpenik garrantzitsuenak Gregorio Mújicak egin zituen itxiera-ekitaldian, lan-taldearen egitekoa laburbiltzean<sup>185</sup>. Bere hitzak garrantzitsuak izan ziren kontuan harturik gonbidatuen artean José Maluquer eta Álvaro López-Nuñez jaunak zeudela, hurrenez hurren, INPeko kontseilari eskuordea eta idazkaria. MÚJICAK ez zuen aukera hori alferrik galdu, eta argi azaldu zuen euskal ordezkarien nahia eta gogoia. Esan bezala, euskal ordezkariak euskal probintzia bakoitzak gizarte-aseguruei begira bere erakundeak izatearen alde egin zuten, bai eta horiek guztiak koordinatuko zituen goi erakunde baten alde ere. Baina, aldi berean, INPrekin itun orokor bat egitea proposatzen zuten, Euskal Herrian askatasunez gauzatu ahal izateko INPk bultzatutako gizarte-ekintza. Horrenbestez, ez zebilen urrun gizarte-aseguruak Ekonomi Itunaren antzeko egitura batera biltzearen ideia. Azkenik, MALUQUERrek, esker-ono hitzetan, ez zion erantzun garbirik eman MÚJICARI, baina estatuko erregio desberdinen ongizateaz mintzatu zen.

---

<sup>185</sup> II Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea celebrada en Pamplona del 18 al 25 de julio de 1920. Donostia: Editorial y prensa, S.A., 1920, 482-483. orr.

### 3.2.3. II. Errepublika eta Francoren garaia

72. Eginak egin, esanak esan, gizarte-aseguruek bere bideari jarraitu zioten, probintziei inolako askatasunik aitortu gabe antolaketa-kontuetan. Aldi berean, gizarte-auzia areagotzen zihoan Espainian eta egoera horrek bat egin zuen II. Errepublikaren aldarrikapenarekin.

73. II. Errepublika aldarrikatu eta berehala, 1931an Konstituzioa onetsi zen<sup>186</sup>. Bertan, estreinakoz, eskumenen banaketa arautu zen, estatu zentralaren eta eskualde autonomoen artean. Bada, Gizarte Babesari begira honakoa ezarri zuen 15. artikuluan:

«Estatuari dagokio legegintza, eta eskualde autonomoei egokitu ahal zaie berorien betearazpena, Gorteen iritziaren arabera, honako gai hauetan:...

8. Gizarte-aseguruen eta seguru orokorren erregimena».

Halatan, argi geratu zen, euskal herrialdeek ezer gutxi egin zezaketela gizarte-aseguruen esparruan. Baina baziren bestelako babes-teknika batzuk ere. Bada, behin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eskualde autonomo gisa eratuta, Euskal Herriak izan zitzakeen eskumenak 1936ko «Euzkadiren Berjabetasun Araudian» (Estatutuan) jaso ziren. Horrela, arau horren 2. atalean honako hau jaso zen babes-ekintzari dagokionez.

«Erkalaren araudi nagusiak 16 eta 17'garren ataletan dionez, Euzkadi'ri dagokio ondoren ezartzen diran gaiei buruz legeak ematea eta bete eraztea.

... 2'garrena. Agiriko eta ixileko gizarte-laguntza eta beartsuendako babesa. Mota guzietako Batzorde on ematzailleak eratzea».

Beraz, Euskal Herriari ordura arte ongintza eta laguntza nahiz mutualismo moduan antolatutako babes-tekniken gaineko eskumena zegoen. Baina ordurako gerra zibila hasita zegoenez, «Euzkadiko Gobernuak» ezin izan zuen politika hori garatu.

<sup>186</sup> 1931ko abenduaren 10eko Gazeta de Madrid, 344. zk.

74. Gerra zibila amaitu ostean, Francoren erregimenak gizarte-aseguru desberdinen sarea osatu eta egonkortu zuen (familiako sorospenen arauketa 1938an, zahartzaroaren eta elbarritasunaren arauketa 1939tik 1955era bitartean, gaixotasun arruntaren arauketa 1942an, lanbide-gaixotasunen arauketa 1947an, lan-istripuen gizarte-aseguru berriaren arauketa 1956an...). Eta 1963an, Gizarte Segurantzarako jauzia eman zen abenduaren 28ko 193/1963 Legearekin, Gizarte Segurantzaren Oinarriei buruzkoarekin<sup>187</sup>. Urte batzuk geroago, 1966ko apirilaren 21eko Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Oinarriei buruzko Legearen testu artikuluduna onestekoak<sup>188</sup>, Sistemaren egitura finkatu zuen, kontribuzio bidezko eredia oinarri hartuta. Beraz, Gizarte Segurantzako Sistemaren babesaren izateko gizabanakoek nahitaez bete beharko zituzten Sistemari begira hiru harreman juridiko: afiliazioaren, kotizazioaren eta babesaren ondoriozkoak.

75. Francoren erregimenaren mende ere gizarte-aseguruen eta Gizarte Segurantzaren antolaketa estatuaren esku geratu zen, baina hainbat lanbide-sektoretan borondatez eratutako mutualismo-izaerako erakundeek bere horretan jarraitu zuten. Horiei gehitu behar zitzairen, halaber, Francoren garaian hitzarmen kolektiboen lekua hartu zuten lan-ordenantzen eta -erregelamenduen bidez eratutako nahitaezko eta borondatezko beste mutualitate batzuk, enpresa esparruan gizarte-asegurek lehenengo eta Gizarte Segurantzak gero eskainitako babesaren osatzea helburu zutenak.

#### 3.2.4. *Demokrazia berrezartzea eta 1978ko Konstituzioak Gizarte Segurantzari begira eratorritako eredia*

76. Demokrazia berrezarri ondoren Euskal Herriak etorkizunera begira babes-ekintzan izan ditzakeen ahalbideak zehazteko nahitaezkoa da

<sup>187</sup> 1963ko abenduaren 30eko EAO, 312. zk.

<sup>188</sup> 1966ko apirilaren 22ko EAO, 96. zk.

1978ko Konstituzioak Gizarte Segurantzari begira eratorritako ereduak oinarri edo abiapuntu hartzea.

77. Eredua hori, 41. artikuluan jasota dagoen hurrengoaren ezaugarriak:

«Botere publikoek herritar guztientzat Gizarte Segurantzako araubide publikoari eutsiko diote; sistema horrek behar besteko gizarte-laguntza eta prestazioak bermatuko ditu beharrezko egoeretan, eta, batez ere, langabezia-kasuetan. Laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango dira».

Egia esan, eredu horrek baditu nabarmentzeko moduko alde batzuk:

- (a) Gizarte Segurantzaren onurak herritar guztiei hedatu zaizkie.
- (b) Prestazioak behar bestekoak izatea bermatu du.
- (c) Botere publikoek oinarritzko eginkizuna eratziki zaie Gizarte Segurantzaren esparruan, hau da, autonomia pribatuaren egiteko prestazio osagarrien esparrura mugatu da.

Alabaina, manu horren garrantzia ezin da neurritz kanpo balioetsi. Hurrean ere, manu horren anbiguotasuna eta manu horrek Konstituzioan duen kokaleku sistematikoa aintzat hartzen badira, manua zeharo malgua dela ondoriozta daiteke. Legegile arruntari askatasun handia utzi zaio, Gizarte Segurantzako Sistema antolatu eta garatzeko.

Ildo horretatik, kritika asko egin dakioko artikulua horri:

- (a) Hasteko, Konstituzioak Gizarte Segurantzako Sistemari dagokionez ezarritako ereduak guztiz nahasia da. Horren arrazoia ondoko hau da: III. kapituluak, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriei buruzkoak, 41. artikuluan ez ezik, beste artikulua batzuetan ere jasota dago Gizarte Segurantzari estu lotutako gaiak, hala nola, familiaren babesa (39. artikuluan), enplegu osoa lortzera bideratutako politika (40.1 artikulua), prebentzio-neurrien bidez eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez osasun publikoa antolatu eta babestea (43.2 artikulua), urritu fisiko, zentzumen-urritu eta urritu psikikoentzako aurreneurri-, tratamendu-,

birgaitze- eta gizarteratze-politikak (49. artikulua) eta herritarrei zahartzaroan gutxieneko kaudimena bermatzea, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez (50. artikulua)<sup>189</sup>.

Bada, nahaste hori gainditzeko, korapilo hori askatzeko ahalegine-tan, ALARCÓN CARACUELEk zirkulu sekanteen adibidea baliatu du<sup>190</sup>. Autore horren arabera, 41. artikulua eta aipatu osterantzeko artikuluen arteko lotura zirkulu sekanteen adierazpide grafikoaren bidez uler daiteke. Bestela esanda, artikulua horiek badute bat egiten duten zatia, baina baita bat egiten ez duten zatia ere. Bat egiten duten zatian, gainerako artikuluek 41. artikulua garatzen dute, hau da, 41. artikulua Gizarte Segurantzari buruz ezarritako Sistema orokorraren alde jakin batzuk garatzen dituzte. Bat egiten ez duten zatian, artikulua horiek gainditu egiten dute Gizarte Segurantzaren ekintza-esparrua. Hartara, zati horiek botere publikoen beste gizarte-politika batzuen esparru dira. Horren adibide dira zahartzaroaren, desgaituen, familiaren edota osasunaren inguruko gizarte-politikak.

(b) Jarraitzeko, Konstituzioaren eredia guztiz anakronikoa da; arean ere, 1970eko hamarkadako krisien ondorioz, Europako estatuak murriztu egin zituzten Gizarte Segurantzaren xedeak. Espainian, ordea, aipatu diren artikuluen xedeak ikustea besterik ez dago, anakronismo horretaz jabetzeko [enplegu osoa lortzera bideratutako politika —40. artikulua—; herritar guztientzako Gizarte Segurantzako araubide publikoa eta beharrian-egoeretan (edozein beharrian-egoeretan?) behar besteko gizarte-laguntza eta -prestazioak bermatzen dituen Sistema —41. artikulua—...]. Labur-zurrean esanda, nahi eta ezinaren adibide garbia da Konstituzioaren eredia.

<sup>189</sup> BARRADA, A. Los derechos de Seguridad Social en la Constitución española de 1978. In *RSS*, 1979, 2. zk., 64. or.

<sup>190</sup> ALARCÓN CARACUEL, M.R. *La Seguridad Social en España*. Iruñea: Aranzadi, 1999, 50. or.

(c) Amaitzeko, 41. artikulua kokaleku sistematikoari dagokionez ere badago hamaika zeresan. Gizarte Segurantzarako eskubidea herritarren eskubideek babes gutxien duten eskubideen artean jaso da (III kapituluan, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriei buruzkoan). Horixe ondorioztatzen da, hain zuzen, Konstituzioaren 53.3 artikulutik. Bada, artikulua horren arabera «hirugarren kapituluan aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horiexek izango dituzte kontuan. Jurisdikzio arruntean halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea». Azken buruan, III. kapituluan jasotako eskubideek eta printzipioek informazio- edo orientazio-eginkizuna besterik ez dute legegilearentzat, botere judizialarentzat eta, oro har, botere publikoentzat.

78. Kritika horiek gorabehera, 41. artikulua behar bezala ulertzeko, horren zati desberdinak interpretatu behar dira:

(A) «Botere publikoak» eta «herritar guztientzako Gizarte Segurantzako araubide publikoa»

Konstituzioak ez du hausten aurreko egoerarekin (hots, 1966ko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko testu artikuludunaren egiturarekin). Esangura horretan, eutsi egiten zaio Gizarte Segurantzaren araubide publikoari, eta horixe da, hain zuzen, Gizarte Segurantzak eskaintako babesaren oinarritzko maila.

Oinarritzko maila horretan, funts publikoak erabiltzen dira prestazioak emateko. Eta funts horien iturri dira estatuaren aurrekontu orokorrak eta, batez ere, Gizarte Segurantzak bildutako kotizazio-kuotak.

Berrikuntza moduan, Konstituzioak Gizarte Segurantzako Sistemaren aplikazio-esparrua gainditu nahi du. Bada, 41. artikulua hitzez-hitzez-kotasunaren arabera, Gizarte Segurantzako araubide publikoa «herritar guztientzat izan behar da», eta ez legeak ezarritako betekizunak gauzatzen

dituztenentzat bakarrik. Halako betekizunak lirateke, berbarako, lanbidearen edo kontribuzioaren (kotizazio-kuotak ordaintzeko) irizpideak.

Horrenbestez, badirudi Konstituzioak eredu germaniarra, kontinentala edo kontribuzio bidezkoa gainditu nahi duela, eredu anglosaxoniarr, atlantiko edo laguntza bidezkoa igarotzeko. Azken batean, konstituzio-gilearen nahia da babestutako subjektuei begira eredu unibertsala ezartzea. Haatik, praktikak ezerezean utziko du ideia hori. Bestela esanda, Konstituzioaren berrikuntza mugatu egingo da.

Berrikuntza horren muga zein den ulertzeko, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bategina onestekoak (GSLOTBk)<sup>191</sup>, araututakoa hartu behar da kontuan. Esangura horretan, GSLOTBren 1. artikulua araber, Konstituzioaren 41. artikulua GSLOTBan ezarritakoaren araber ulertu behar da. Halaber, GSLOTBren 2. artikulua murriztu egin du Gizarte Segurantzako Sistemaren aplikazio-esparrua, esparru horretara biltzen dituelako, batetik, lanbide-jardueraren bat gauzatzen duten subjektuak, eta, bestetik, kontribuziorik gabeko babesa izateko baldintzak betetzen dituzten subjektuak. Orobat, aplikazio-esparru horretara biltzen ditu subjektu horiek euren kargura dituzten familiakoak edo halakoen parekoak.

Edonola ere, konstituzio-aginduaren eta horren lege-garapenaren artean ez dago inolako kontraesanik. Konstituzioaren berrikuntzak, hots, unibertsaltasun subjektiboaren printzipioak, jasandako murrizketa Gizarte Segurantzako Sistemak Konstituzioa indarrean jarri eta gero izandako bilakaeraren ikuspuntutik ulertu behar da. Bada, esan daiteke Konstituzioaren 41. artikulua aldi berean dela iraganeko jomuga eta etorkizunaren abiapuntu. Bestela esanda, apurka-apurka bada ere, Konstituzioa indarrean jarri zenetik, Espainiako Gizarte Segurantzako Sistema ahalegindu da Gizarte Segurantzako eredu mistorantz jotzen. Ondorenez, Gizarte Segurantzaren oinarritzko lotura juridikoa bi adar edo besotan erdibitu da: kontribuzio bidezkoa eta kontribuziorik gabekoa.

<sup>191</sup> 1994ko ekainaren 28ko EAO, 154. zk.



(a) Kontribuzio bidezko adarrean, oinarritzko lotura juridikoaren mende harreman juridiko instrumental batzuk daude (hots, afiliazioaren, kotizazioaren eta babesaren ondoriozko harreman juridikoak), eta horiek gauzatzea nahitaezkoa da botere publikoek Gizarte Segurantzaren eginkizuna bete dezaten.

(b) Kontribuziorik gabeko adarrean, babesaren ondoriozko harreman juridikoak baino ez daude, baina, praktikan, horiek mendeko izaera galdu eta oinarritzko lotura juridikoarekin nahasten dira.

Sistemaren izaera mistoa argi identifika daiteke Konstituzioa indarrean jarri eta gero GSLOLTBan egindako eraldaketetan. Duda-mударik gabe, eraldaketa horietarik garrantzitsuenak dira abenduaren 20ko 26/1990 Legeak, Gizarte Segurantzaren Sistemari kontribuziorik gabeko prestazioak ezartzekoak<sup>192</sup>, egindakoak.

(B) «Eutsiko diote»

Doktrinaren arabera, esapide horren ondorioz, legegileak eutsi egin behar dio, gutxienez, legeak egiteko unean aurretiaz babes-ekintzak zuen egiturari<sup>193</sup>. Hori dela eta, ulertzen da legegileak eutsi egin behar izan ziola Konstituzioa aldarrikatzeko unean zegoen egiturari, alegia, kontribuzio bidezko Sistema publikoari. Sistema horrexek eratu zuen, hain zuzen ere, etorkizunean egin beharreko garapenen gutxieneko araua.

Esapide horren atzean antzeman daitezke, berebat, atzeraeraginik ezaren printzipioa eta erakunde-bermearen printzipioa. Bi printzipio horien bidez hobeto uler daiteke «Konstituzioaren 41. artikulua aldi berean dela jomuga eta abiapuntu».

<sup>192</sup> 1990eko abenduaren 22ko EAO, 306. zk.

<sup>193</sup> RODRÍGUEZ-PIÑERO M. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S. La configuración constitucional de la Seguridad Social como condicionante necesario de su reforma. In *II Jornadas Universitarias Andaluzas de Derecho del Trabajo*. Madrid: Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, 1985, 272. or.

Atzeraeraginik ezaren printzipioaren bidez legegileak ezin du gutxitu Konstituzioa aldarrikatu aurretik Gizarte Segurantzak eskaintzen zuen babes. Legegilea, alderantziz, babes horretatik abiatu eta berau gehitzen ahalegindu behar da.

Erakunde-bermearen printzipioa dela eta, legegilea abiatu behar da Konstituzioak 41. artikuluan ezarri eredurantz. Esangura horretan, Konstituzio Auzitegiak hasieratik adierazi du Gizarte Segurantzza nahitaezko osagaia dela, konstituzio-printzipioei eusteko<sup>194</sup>. Arean ere, Gizarte Segurantzak bat egiten du Konstituzioaren 1. artikuluan jaso ideiarekin, hots, «zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoarekin». Gainera, Gizarte Segurantzza behar-beharrezko mekanismoa da Konstituzioaren 9.2 artikuluan hartutako konpromisoak gauzatzeko.

(C) «Gizarte-laguntza eta -prestazioak»

Kontzeptu horien anbiguotasunak, eta, batez ere, «laguntza» kontzeptuarenak, erabat zailtzen du interpretazioa. Hala ere, Gizarte Segurantzako Sistemak izandako bilakaerari esker, gaur egun posible da behar den moduko interpretazioa egitea.

Jakin badakigu, ikerlan honetako lehen atalean hala azaldu delako, gizarte-laguntza babes-teknika mota bat dena, eta horren aurrekariak zehaztu gabeko babes-teknika batzuk direna, alegia, ongintza eta laguntza publikoa. Modu berean, jakin badakigu gizarte-laguntzaren ideia estu lo-tzen zaiola gabezia-egoeraren kontzeptuari.

Halatan, Espainiako Gizarte Segurantzako Sistemari, laguntza bidezko babesaren ezaugarriak kontribuziorik gabeko adarrera bildu dira. Alabaina, teoriarik, behintzat, gizarte-laguntza beste bi modutan ere jaso da Espainian: bateko, Gizarte Segurantzaren oinarritzko lotura juridikoaren osagarri moduan (denborak aurrera egin ahala bere edukia hustuz joan bada ere), eta, besteko, Gizarte Segurantzaz kanpoko babes-teknika moduan.

<sup>194</sup> Ikusi Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 28ko 32/1981 epaiaren 3. Oinarri Juridikoa.

Labur-zurrean esanda, gizarte-laguntza izan daiteke Gizarte Segurantzako Sistemaren barrukoa nahiz kanpokoa. Gainera nabarmenak dira barruko eta kanpoko gizarte-laguntzaren arteko desberdintasunak:

(a) Eskumenei dagokienez, barruko gizarte-laguntzari aplikatzen zaio Konstituzioaren 149.1.17 artikulua, alegia, «estatuko eskumen eksklusibokoa da Gizarte Segurantzaren oinarritzko legegintza eta araubide ekonomikoa; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek betearaz ditzakete haren zerbitzuak». Kanpoko gizarte-laguntzari, ordea, Konstituzioaren 148.1.20 artikulua aplikatzen zaio, alegia, «autonomia-erkidegoen eskumenekoa da gizarte-laguntza»; ondorenez, autonomia-erkidegoek Gizarte Babesari dagokionez Gizarte Segurantzako Sistematik kanpo dagoen sistema autonomoa era dezakete.

(b) Barruko gizarte-laguntzara biltzen dira Gizarte Segurantzako araubide publikoak babestutako subjektuak bakarrik, eta kanpoko gizarte-laguntzara biltzen dira gizarteko subjektu guztiak, pertsona guztiak.

(c) Barruko gizarte-laguntza Gizarte Segurantzako araubide publikoko osagarri moduan egituratzen da, baldin eta gabezia-egoera egon eta interesdunak halaxe egiatzen badu. Haatik, kanpoko gizarte-laguntzak ekonomikoki ahulak direnen gizarte-beharrian desberdinak babesteko xedea du.

Bestalde, barruko gizarte-laguntzaren eta kontribuziorik gabeko prestazioen artean ere badaude desberdintasunak.

Lehenengo eta behin, ez da ahaztu behar kontribuziorik gabeko prestazioek Gizarte Segurantzaren oinarritzko lotura juridikoaren bigarren adarra edo besoa eratzen dutela, eta adar hori kontribuzio bidezko prestazioek eratu lehenengo adarraren alternatiba dela (bi adarrak elkarren artean baztertzailak baitira). Aitzitik, barruko gizarte-laguntzak osatu egiten du bi adar horiek eratutako babes-maila.

Bigarrenik, kontribuziorik gabeko prestazioen xedea da legezko betekizunak ez gauzatzeagatik kontribuzio bidezko adarreko prestazioetatik kanpo geratzen diren pertsonak babestea. Haatik, barruko gizarte-laguntzaren xedea da Gizarte Segurantzako araubide publikoaren bi adarren prestazioek estalitako gastuei gehitutako beste gastu batzuei aurre egitea (adibidez, protesi baten kostuei, osasun-laguntzaren eta aldi baterako ezgaitasunaren ala ezgaitasun iraunkorraren prestazioak jasotzen dituen subjektu bati begira).

Edonola ere, kontribuziorik gabeko prestazioek eta barruko gizarte-laguntzak badute alde erkidea: bi-biek gabezia-egoera babesten dute. Alabaina, kontribuziorik gabeko prestazioek eta barruko gizarte-laguntzak eskaintzen duten babes-maila ez datoz bat; izan ere, ez dute eginkizun bera. Hartara, kontribuziorik gabeko prestazioek eskubide subjektibo osoak eratortzen dituzte, halako prestazioak jasotzeko betekizunak gauzatzen dituzten subjektuen alde. Aitzitik, barruko gizarte-laguntzak zuhurtziarako izaera du; bada, GSLOTBren 55.2 artikulua arabera, erakunde kudeatzaileek gizarte-laguntza eman dezakete, horretarako aurrekontu orokorretan ezarri baliabideen arabera. Beraz, barruko gizarte-laguntza mugatua da.

(D) «Behar bestekoak»

Gizarte Segurantzako Sistemaren bilakaerak argitu du botere publikoek zehaztu behar dutela prestazioen behar besteko izaera hori, Gizarte Segurantzako Sistemaren inguruabar politiko, sozial eta ekonomikoen arabera.

Inguruabar horien arabera «behar bestekoak» kontzeptua estu lotzen zaio Gizarte Segurantzako araubide publikoak edo lehenengo babes-mailak eskaintako babesari. Horrenbestez, prestazioen behar besteko izaera desberdina da kontribuzio bidezko prestazioetan, kontribuziorik gabeko prestazioetan eta Gizarte Segurantzaren barruko gizarte-laguntzan.

(a) Kontribuzio bidezko prestazioak behar bestekoak dira halako prestazioak jasotzen dituen subjektuak aurretiaz zenbat ekarpen edo kotizazio egin eta horien araberakoak badira. Bestela esanda,

prestazio horiek behar bestekoak dira, kasuan kasuko ezbeharrak eragindako gertakizunen ondorioz subjektuak jasotzen dituen prestazioak aurretiaz zituen lan-errentak ordeztuko beste badira. Ildo horretatik, kontribuzio bidezko prestazioen behar besteko izaera estu lotzen zaio Konstituzioaren 35.1 artikuluari. Artikulu horren arabera, «espainiar guztiek eskubidea dute beren beharri-zanak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko». Hain zuzen, artikulua horretatik ondoriozta daiteke kontribuzio bidezko prestazioen behar besteko izaera alokairuen behar besteko izaeraren adinakoak izan behar dela.

(b) Kontribuziorik gabeko prestazioak behar bestekoak dira, babestutako subjektuak aurretiaz zehaztu eta egiaztatu den gabezia-egoerari aurre egiteko adinakoak badira, alegia, babestutako subjektuak bizimodua ateratzeko ez dituen gutxieneko lan-errentak ordeztuko adinakoak badira.

(c) Gizarte Segurantzaren barruko gizarte-laguntza behar bestekoa da, Gizarte Segurantzako araubide publikoaren babesari gihitutako gastu jakin batzuei aurre egiteko adinakoak bada. Nolanahi ere, Gizarte Segurantzaren barruko gizarte-laguntzaren zuhurtziazko izaerak eta berau aurrekontu orokorren arabera izateak asko baldintzatzen dute babesaren norainokoa.

(E) «Beharrian-egoerak»

Beharrian-egoerak dira Gizarte Segurantzako Sistemaren objektua edo xedea. Halakoen inguruan, badirudi Konstituzioaren 41. artikulua orokortasun objektiboa ezarri duela, hau da, badirudi edozein beharrian-egoera babesteko betebeharra ezarri duela, halakoen arrazoiak edo jatorria kontuan hartu gabe.

Berrito ere, Sistemaren bilakaerak argiro erakusten du adierazpen kategoriko hori praktikan asko murriztu dela; hurrean ere, Gizarte Segurantzaren objektu diren beharrian-egoera horiek mugatu egin dira, hala kontribuzio bidezko adarrean, nola kontribuziorik gabeko adarrean.

(a) Kontribuzio bidezko adarrean kontuan hartu behar dira lehen mailako arrazoiak (GSLOTBk tipifikatutako gertakizunak, ezgaitasun iraunkorra kasu) eta bigarren mailako arrazoiak (adibidez, ezgaitasun iraunkorraren arrazoia den lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna).

(b) Egia esan, Sistema publikoari kontribuziorik gabeko adarra gehitzean, zabaldu egin da «estaldura-ideala», baina ez da erdietsi aipatu orokortasun objektiborik.

Bestalde, kontribuziorik gabeko prestazioen bidez herritar guztiei hedatu zaie babes, kontuan hartu gabe herritar horiek inorentzat lan egiten duten edo bere gainean lan egiten duten. Alabaina, unibertsaltasun subjektiboranzko bidean, hedatze hori mugatua da.

Gainera, kontribuziorik gabeko babesaren objektua ez dira beharri-zan-egoerak, ezpada gabezia-egoerak. Modu horretara, kontribuziorik gabeko babesaren lehenengo muga gabezia-egoeraren araberakoa da; izan ere, egoera horretan daudela egiaztatzen duten subjektuek bakarrik izango dute kontribuziorik gabeko prestazioak jasotzeko eskubidea. Halaber, legeak mugatu egin ditu gabezia-egoerak, hau da, ez da babesten edozein gabezia-egoera. Ezgaitasunaren, jubilazioaren eta familia-prestazioaren gertakizunek eragindako gabezia-egoera bakarrik babesten da, eta legeak ezarritako baldintzetan.

(F) «Laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango dira»

Formula horren bidez Gizarte Segurantzako Sistemaren bigarren babes-maila ezartzen da. Horren xedea da lehenengo babes-maila edo Gizarte Segurantzako Sistemaren araubide publikoak eskainitako babes borondatez gehitzea edo hobetzea. Hori dela eta, borondatezko Gizarte Segurantzaz hitz egiten da, eta esan ohi da horrek osatu edo hobetu egiten duela nahitaezko eta gutxieneko edo oinarritzko gizarte-babeseko araubide publikoa.

Gainera, kontuan hartu behar da borondatezko Gizarte Segurantzak ez duela izaera publikorik. Bestela esanda, botere publikoek ez dute inolako betebeharririk halako babes-neurri osagarriak antolatu eta eskaintzeko, eta, ondorenez, babes-maila hori subjektu pribatuek kudeatu eta administra dezakete bakarrik.

### 3.2.5. *Euskal Herriak etorkizunari begira Gizarte-Babesean dituen ahalbideak*

79. Konstituzioaren 41. artikuluko azken aipamena (Laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango dira) oinarri hartuta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak ahalbide propioak garatu ditu.

80. Horrela, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren<sup>195</sup> lehenengo titulua Euskal Herriari dagozkion eskumenak zerrendatu ditu. Bada, 10. artikuluan, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak dituen eskumen esklusiboak jaso dira, eta zehazki, 23. paragrafoan, Gizarte Segurantzaz sartu gabeko mutualitateak aipatzen dira. Hartara, Estatutua indarrean jarri ondoren, Estatuak arlo zehatz horretan aurreikusitako eginkizun eta zerbitzuak Euskal Herriko Autonomia Erkidegora transferitzeko helburuarekin, 1982ko urriaren 15eko 3228/1982 Errege Dekretua aldarrikatu zen<sup>196</sup>.

---

<sup>195</sup> Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena (1979ko abenduaren 22ko EAO, 306. zk).

<sup>196</sup> 1982ko azaroaren 29ko EAO, 286. zk. Eskumen transferentzia hori dela eta, Eusko Jaurlaritzara hainbat gizarte aurreikuspenetarako erakundeen gaineko informazioa bidali zen, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak izango baitzuen ordutik aurrera horien gaineko eskumena. Hartara, aipatutako Errege Dekretuak beren-beregi zerrendatu ditu erakunde horiek. Horrela, adibide gisa, ondokoak aipatu daitezke: Arabako probintzian, esaterako, «Sociedad de Socorros Mutuos La Azucarera Alavesa», «Montepío de Conductores Alaya Automovilista», «Sociedad de Previsión Social para Socorros a Enfermos de la Empresa Heraclio Fournier», «Caja de Asistencia de Trabajadores de F. Otaole, Sociedad Anónjima» eta «Mutua de Previsión Social Echevarría»; Bizkaiari dagokionez, besteak beste, «Mutualidad de Obreros y Empleados de la Sociedad Anónima Echevarría», «Montepío de Conductores, Sociedad Automovilística Bilbaína», «Sociedad Benéfica de Socorros de los Obreros de la Fábrica de DEKL. EARLE», «Hermandad de Difuntos Barkartasuna» eta «Caja de Socorros de Previsión para Productores de los Talleres de

Ildo horretatik, Estatutuak beren-beregi aipatutako eskumen hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak 1983ko urriaren 27ko 25/1983 Legearen, Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetarako Erakundeei buruzkoaren (BGAE)<sup>197</sup> bidez, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan arauketa autonomoa ezarri zuen arlo horretan. Gainera, handik hilabete batzuetara, Legea garatu duen Erregelamendua onetsi zen<sup>198</sup>.

Bada, BGAEak dira Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan egoitza izanik izaera mutualista duten gizarte-erakunde independenteak. Horien bidez, gizarte aurreikuspen publikoko Sistemen aurrean, borondatezko gizarte aurreikuspenen oinarritutako eredu berria eskaintzen da. Era horretan, BGAEek, betiere euren gain hartzen dituzten gertakizunei begira eta inolako irabazteko asmorik gabe, bazkideari berari eta horren ondasunei babesa ematea dute oinarri, ustekabeko nahiz aurreikusi daitezkeen arriskuen aurrean.

Azaldutako definizio hori aintzat hartuz, ondokoetan labur daitezke BGAEen ezaugarri nagusiak<sup>199</sup>:

(a) Erakunde autonomoak eta independenteak dira. Bestela esanda, eratzeko beharrezkoak diren baldintzak bete ondoren, erakunde horiek izaera juridiko propioa eskuratzen dute.

(b) Lurralde esparru zehatzean eratu behar dira. Izan ere, erakundeek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan izan behar dute euren egoitza.

---

Zorroza»; eta, Gipuzkoari begira, berbarako, «Caja de Pensiones de Agentes de Aduanas», «Sociedad de Socorros Mutuos de Artesanos Jardines», «Mutua Previsora Mercantil de Guipúzcoa», «Caja de Previsión y Asistencia Social José María Aristrain» eta «Caja de Ayuda Mutua de Personal de Chocolates Elgorriaga, S.A.».

<sup>197</sup> 1983ko azaroaren 7ko EHAAA, 1983163. zk.

<sup>198</sup> 1984ko otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua (1984ko apirilaren 16ko EHAA, 64. zk).

<sup>199</sup> Horren inguruan ikusi URRUTIA, J.R. eta MANRIQUE, F. Evolución y retos de la previsión social voluntaria en Euskadi. In ZENBAIT AUTORE. *El Estado de bienestar en la encrucijada: nuevos retos ante la crisis global*. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2011, 184-185. orr.



(c) Izaera mutualista dute. Hain zuzen ere, erakunde horien oinarrian honako ideia hauek daude: bazkideen konfiantza; kudeaketa-jardueren inguruko gardentasuna; eta gobernu-jardueretan bazkideen parte-hartze demokratikoa.

(d) Borondatezko izaera dute. Sistema publikoan ez bezala, kasu honetan, atxikipena borondatezkoa da<sup>200</sup>.

(e) Helburu osagarria dute. Bada, euren xedea Sistema publikoak eskaintzen duen babesa osatzea da.

(f) Ez dute irabazteko asmorik. Hurrean ere, Legeak beren-beregi debekatu du, erakundeak berak nahiz bazkideek irabazteko asmoa izatea.

(g) Gertakizun jakin batzuen gaineko babesa eskaintzen dute. Bada, gertakizunen inguruan kontuan hartu behar dira arestian aipatu Erregelamendua eta horren baitan egin diren aldarazpenak<sup>201</sup>. Zehatz-mehatz, hurrengoak dira babesten dituzten gertakizunak: jubilazioa; heriotza; ezgaitasun iraunkorra; iraupen luzerako langabezia; eta gaixotasun larria. Eta erakunde horiek eman ditzaketen prestazioak hurrengoak dira: osasun laguntza eta ebakuntza kirurgikoak; osasun zentroetan egonaldiak; eta aldi baterako ezgaitasunaren; ehorzketaren; menpekotasunaren eta bazkide arrunten ondasunek zein kalte izan eta kalte horien ondoriozko kalte-ordainak.

Horrenbestez, 1983ko Legeak berebiziko garrantzia izan du Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan erakunde horiek euren egitekoa gauzatu ahal izateko. Halaber, ezin ahantz daiteke, legeek une historiko bako-

<sup>200</sup> Herritarren artean pentsioen borondatezko sistema osagarri horien erabilera sustatzeko helburuarekin, zerga-esparruan tratu mesedegarri edo onuragarriak ezarri dira.

<sup>201</sup> Bestela esanda, Erregelamenduak dioena aintzat hartu behar da, betiere, 2007ko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren Azken Xedapenetatik lehenengoak agintzen duen aldaketa kontuan harturik.

tzeko beharrezanean erantzun behar dietela. Horregatik, 1983ko Legeaz geroztik sortu diren premia sozial berriei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak unean-uneko konponbideak bilatzeari ekin zion lehenago zirkular, ebazpen eta bestelako arau mota desberdinen bidez.

Esangura horretan, gaur egungo gizartearen erronkek (biztanleria pasiboaren gehikuntza ikaragarriak, gizarteko zahartzaro-tasa nabarmen igozteak, ekonomia-krisi gogorrek...) legeriaren eguneratzea eskatzen zuten. Egoera berri horren aurrean. Egoera berri horren aurrean, Eusko Legebiltzarrak 2012ko otsailaren 23ko Legea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa onetsi du oraintsu. Hain zuzen ere, hurrengoak dira lege horren helburu nagusiak: euskal herritarren artean gizarte-aurreikuspen osagarria hedatzea, horretarako gehienbat sistema kolektiboak eta enplegu-izaerakoak sustatuz; BGAEn arauketa argitu eta eguneratzea, Europar Batasuneko nahiz estatuko legeriak azken urteotan sortu dituen kontzeptuak eta arauketak aintzakotzat hartuz; BGAEn kudeaketari begira gardentasuna, efizientzia, kaudimena, berrikuntza eta profesionaltasuna indartzea, eta botere publikoen zaintza- eta kontrol-mekanismoak indartzea, babestutako kolektiboen interesak babeste aldera.

Hala eta guztiz ere, lege horren baliagarritasuna ezin da balioetsi, harik eta berau garatzeko erregelamendua onetsi arte. Eta okerrago dena, beraren etorkizuna ere kolokan izan daiteke, Konstituzio Auzitegiak, 2012ko abenduaren 18ko probidentziaren bidez, onartu duelako Espainiako Gobernuak jarritako konstituzio-aurkakotasuneko errekurtsioa legegaren edozeinbat artikuluri dagokionez.

81. BGAEen esparruan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak dituen eskumenez gain, badira, azkenik, labur-labur bada ere, gogora ekarri beharreko bi kontu, bi-biak ere, *lege ferenda* gisa komentatzen direnak:

(a) Gogorarazi behar da, GSLOTBren 38.4 artikulua (apirilaren 22ko 4/2005 Legeak eragindako eraldaketen ondorioz<sup>202</sup>), debekatu

<sup>202</sup> 2005eko apirilaren 23ko EAO, 97. zk.

egiten duela Gizarte Segurantzako Sistemak eskaintzen dituen prestazioak hobetzea beste izaera bateko prestazio publikoen bidez. Hori legegintza-politikaren edo legegintza-borondatearen aukera besterik ez da. Bada gauzak bestela ulertzeko modurik ere, estatuaren egitura asimetrikoa aitortzen bada behinik behin. Esangura horretan, bitxia da oso mendekotasun-gertakizunarekin jazotakoa, kasu horretan estatu zentralak erabaki baitzuen gertakizun hori autonomia-erkidegoen gizarte-laguntzara biltzea<sup>203</sup>. Hain zuzen ere, aipatu artikulua bigarren idatz-zatiak ahalbidetzen du autonomia-erkidegoek, pentsionisten mesedetan, Gizarte Segurantzatik kanpoko beste laguntza batzuk ematea.

(b) Azken ideia horretatik abiatuta, fiskalitate-arloan euskal herrialdeek dituzten eskumenak gehiago baliatu beharko lirateke, formula berritzaileen alde eginez. Esate baterako, Nafarroako Foru Komunitatean, hori berori gauzatu da alarguntasun-pentsioei begira, kenkariak aplikatzen baitzaizkie diferentzia-kuota ezarri ondoren<sup>204</sup>.

---

<sup>203</sup> Abenduaren 14ko 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa (2006ko abenduaren 15eko EAO, 299. zk.).

<sup>204</sup> Ikusi horren inguruan Nafarroako Foru Komunitatearen 2008ko ekainaren 2002ko 4/2008 Legintzako Foru Dekretua (68. artikulua) (2008ko ekainaren 30eko NAO, 80).

## BIBLIOGRAFIA

AGUILERA IZQUIERDO, R., BARRIOS BAUDOR, G. eta SÁNCHEZ-URÁN AZAÑA, Y. *Protección Social Complementaria*. Madril: Tecnos, 2005, 2. argitaraldia.

ALARCÓN CARACUEL, M.R. *La Seguridad Social en España*. Iruñea: Aranzadi, 1999.

ALARCÓN CARACUEL, M.R. eta GONZÁLEZ ORTEGA, S. *Compendio de Seguridad Social*. Madril: Tecnos, 1991, 4<sup>a</sup> argitaraldia.

ALMANSA PASTOR, J.M<sup>a</sup>. *Derecho de la Seguridad Social*. Madril: Tecnos, 1991, 7. argitaraldia.

ALONSO OLEA, M. *Introducción al Derecho del Trabajo*. Madril: Civitas, 1994, 5. argitaraldia.

ARAGÓN RUANO, A. *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*. Donostia: Aranzadi Zientzi Elkarte, Munibe, 14. gehigarria, 2001.

— *La ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen zerbitzua, 2009.

ARIN DORRONSORO, J. Pueblo de Atáun. Los establecimientos humanos y las condiciones naturales. In *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, 1926, 6. liburukia.

ARRIETA IDIAKEZ, F.J. *La Seguridad Social de los trabajadores del mar en el Derecho español*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007.

— Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpengintzaren bidez: lan-zuzenbidea adibide gisa. In *Nomografia eta arau-idazketa elebiduna*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak, 2009.

— *Itsaso Aldetik. Ondarroako gizon eta emakumeen kontakizunak*. Bilbo: Arranondo Kultura Elkarte, 2011.

ARTAZA, I. *Derecho marítimo*, makinan idatzitako alea, argitaragabekoa.

ARTIÑANO y ZURICALDAY, A. El Señorío de Bizcaya, histórico y foral (1885). Faksimile-edizioa. In *Antiguos recuerdos de Vizcaya*. Bilbo: Amigos del libro vasco, 1985, IX. liburukia, 2. argitaraldia.

AYERBE, M.R. La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el servicio forestal de la Diputación de Gipuzkoa. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2005, 61. liburukia, 1. zk.

AZKUE, R.M. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo: 1903.

AZPIAZU ELORZA, J.A. *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*. Oiartzun: Gipuzkoako Kutxa Kultur Fundazioaren Argitalpenak, 1990, 1. liburukia.

BALPARDA y de las HERRERÍAS, G. *Historia Crítica de Vizcaya y de sus fueros*. Madril: 1945, III. Liburukia.

BARRADA, A. Los derechos de Seguridad Social en la Constitución española de 1978. In *RSS*, 1979, 2. zk.

BENÍTEZ DE LUGO REYMUNDO, L. *Tratado de Seguros*. Madril: Reus, 1955, 1. liburukia.

BIZKAIA ZERGINTZA ELKARTEA. MUTUA DE ACCIDENTES DE TRABAJO Y ENFERMEDADES PROFESIONALES DE LA SEGURIDAD SOCIAL. *Un siglo de protección social en Vizcaya 1900-2000*.

BLASCO DE IMAZ, C. *Los Fueros. Apuntes guipuzcoanos*. Irun: Ethos, 1966.

BLASCO LAHOZ, J.F., LÓPEZ GANDÍA, J. eta MOMPALLEN CARRASCO, M<sup>a</sup>.A. *Curso de Seguridad Social*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2001, 8. argitaraldia.

BORRAJO DACRUZ, E. Fundamento de la protección por accidente de trabajo: balance y perspectiva (Notas introductorias al estudio de la Ley de 1900). In ZENBAIT AUTORE. *Cien Años de Seguridad Social. A propósito del centenario de la Ley de Accidentes de Trabajo de 30 de enero de 1900*. Madril: Fraternidad-Muprespa, 2000.

CAREAGA de LEQUERICA, M.P.Y al prójimo como a ti mismo. Tríptico de la caridad vascongada. In *Zumarraga. Revista de Estudios Vascos*, 1955, 4. zk.

— Dinámica y evolución de la asistencia social vizcaína. In *Vizcaya. Revista de la Excelentísima Diputación Provincial*, 1968, 29. zk.

CARO BAROJA, J. *Ser o no ser vasco*. Madril: Espasa, 1998, 2. argitaraldia.

CASARIEGO, J.E. *Historia del Derecho y de las Instituciones Marítimas del Mundo Hispánico*. Madril: José Ruiz Alonso, impresor, 1947.

CHALBAUD Y ERRAZQUIN, L. *Sindicatos y Cajas Rurales. Su administración y contabilidad*. Bartzelona: Oficina de Trabajo de la Acción Social Popular, 1913, 2. argitaralpena

— *La troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2005.

CILLÁN APALATEGUI, A. *La comunidad foral de pastos en Guipúzcoa*. Donostia: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1959.

II Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea celebrada en Pamplona del 18 al 25 de julio de 1920. Donostia: Editorial y prensa, S.A., 1920.

COSTA y MARTÍNEZ, J. *Derecho consuetudinario y economía popular de España*. Faksimile-edizioa: Zaragoza: Guara, 1981, 2 liburuki.

D' ORS, F., HERNÁNDEZ-TEJERO, F., FUENTESECA, P., GARCÍA-GARRIDO, M. eta BURILLO, J. *El Digesto de Justiniano*. Constituciones Preliminares y Libros 1-19. Iruñea: Aranzadi, 1968, 1. liburukia.

DE GAMECHOGOICOECHEA y ALEGRÍA, F. *Tratado de Derecho marítimo español*. Bilbo: 1941, 1. liburukia, El Derecho Marítimo. El Personal Navegante.

— *Tratado de Derecho Marítimo Español*. Bilbo: 1941, 4. liburukia, Seguros Marítimos. Préstamo a la gruesa.

DE MADARIAGA, R. *El Derecho foral de Vizcaya en relación con la organización familiar*. Bilbo: Tipografía del Norte, 1932.

DE UNZURRUNAGA, P. *Derecho Mercantil Marítimo, Averías*. Madril: Reus, 1935, XIV. Liburukia.

DEL CAÑO ESCUDERO, F. *Derecho Español de Seguros*. Madril: 1974, 2. argitaraldia.

DEL PESO CALVO, C. De la protección gremial al vigente Sistema de Seguridad Social. In *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad de Madrid*, 1966, X. liburukia, 25. zk.

DONATI, A. *Los Seguros Privados. Manual de Derecho*. Bartzelona: Libería Bosch, 1960 (Gaztelaniazko itzulpena eta oharrak: VIDAL SOLÁ, A.).

DURAND, P. *La política contemporánea de Seguridad Social*. Madril: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 1991 (Gaztelaniazko itzulpena VIDA SORIA, J.).

— La política de Seguridad Social y la evolución de la sociedad contemporánea. In *RISS*, 1953, 1. liburukia, 3. zk.

ECHEGARAY, B. *Derecho Foral Privado*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1950.

— Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1925, 16. liburukia.

— La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco. In *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1932, 23. liburukia.

ECHEGARAY, C. *Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa (1924)*. Faksimile-edizioa: Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984.

EGUZKITZA, J.B. *Gizarte-Auzia*. Faksimile-edizioa: Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak bilduma, 1990, 42. zk.

ERKOREKA GERVASIO, J.I. *Análisis Histórico-Institucional de las Cofradías de Marreantes del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991.

ESCUDERO RODRÍGUEZ, R. eta NOGUEIRA GUASTAVINO, M. *Acción Protectora (I). Contingencias protegidas*. In *Derecho de la Seguridad Social*. DE LA VILLA GIL, L.E. (Zuz.) eta GARCÍA-PERROTE ESCARTÍN, I. eta MERCADER UGUINA, J.R. (Koord.). Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999, 2. argitaraldia.

FARIÑA, F. *Derecho y Legislación marítima*. Bartzelona: Bosch, 1955.

GARCÍA DE SALAZAR, L. *Las Bienandanaz e Fortunas*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1984, 4. liburukia, XX.etik XXV.enera arteko liburuak.

GARCÍA REDRUELLO, R. *Derecho consuetudinario en Vascongadas y Navarra (apuntes para un ensayo)*. Madril: Ministerio de Trabajo. Escuela Social de Madrid, 1944.

GARIBAY y ZAMALLOA, E. *Historia Universal de todos los Reynos de España (1628)*. Faksimile-edizioa: Leioa: Gerardo Uña, 1988, 1. liburukia.

GARRIDO y COMAS, J.J. *Tratado General de Seguros. Madril: Consejo de Agentes y Corredores de Seguros en España*, 1986, 1. bolumena, 1. liburukia.

GÓMEZ URANGA, M., OTAZUA, G. eta DE LA CAL, M.L. *Bertako pentsio-sistema nola eratu: hausnarketak*. Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa, 2005.

GOROSABEL, P. *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de Tolosa*. Zizurkil: Imprenta de Pedro Aristegui, 1956.

— *Noticia de las Cosas Memorables de Gipúzcoa (1899)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1967, 1. liburukia.

— *Noticia de las Cosas Memorables de Gipúzcoa (1899)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1967, 2. liburukia.

GUIARD LARRAURI, T. *Historia del Consulado de Bilbao*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 3. liburukia, 2. bolumena.

GUTIÉRREZ DE LA CÁMARA, J.M. *Derecho marítimo*. Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Ministerio de la Marina, Colección de Estudios de Derecho Internacional Marítimo, 1956.

HORMAECHE, R. *Leyes civiles de Vizcaya (1891)*. Faksimile-edizioa: Iruñea: Analecta, 2002.

IRUJO OLLO, M. *Instituciones Jurídicas Vascas (1945)*. Faksimile-edizioa: Tafalla: Txalaparta, 2006.

ITURRIZA, J.R. *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 1. liburukia.

— *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 3. liburukia.

— *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 4. liburukia.

— *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 5. liburukia.

— *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 6. liburukia.



— *Historia de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 8. liburukia.

IZTUETA, J.I. *Historia de Guipúzcoa (1847)*. Faksimil-edizioa: Bilbo: Lan Gran Enciclopedia Vasca, 1975.

JADO y VENTADES, R. *Derecho Civil de Vizcaya (1923, 2. argitaraldia)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004.

JAMAR, J. *El Fuero de Guipúzcoa. La cuestión social*. Bilbo: Biblioteca Bascongada de Fermín Herrán, 1900, 48. liburukia.

LANDÁZURI y ROMARATE, J.J. *Historia General de Álava (1798)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1973, 6. liburukia.

LEIZAOLA, J.M. *Obras completas*. Donostia: Sendoa, 1981, 3. liburukia.

LOBERA REVILLA, A. Bizkaiko suaroen berezitasun eta ezaugarriak. In *Bilbao*, 2003ko azaroa.

LORENTE SARIÑENA, M. eta GARRIGA ACOSTA, C. Certeza jurídica vs. justicia social: la Ley de Accidentes de Trabajo y el liberalismo español. In *Cien años de Seguridad Social. A propósito del centenario de la Ley de Accidentes de Trabajo de 30 de enero de 1900*. Madril: Fraternidad-Muprespa, 2000.

LUÑO PÉREZ, E. *El problema de la unificación de los seguros sociales fuera de España*. Madril: Publicaciones del Instituto Nacional de Previsión, 1934.

MADARIAGA ORBEA, J. *Historia social de Bergara en su época preindustrial*. Bergarako Udala, 1991.

MALDONADO MOLINA, F.J. *Las mutualidades de previsión social como entidades aseguradoras*. Granada: Comares, 2001.

MANRIQUE LÓPEZ, F. *Manual de Derecho de la Seguridad Social*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko argitalpen-zerbitzua, 1984.

MARTÍN GALINDO, J.L. *El caserío vasco como tipo de explotación agraria*. 1969, separata.

MARTÍNEZ de ISASTI, L. *Compendio historial de Guipúzcoa (1625)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972.

MONTOYA MELGAR, A. *Derecho del Trabajo*. Madril: Tecnos, 1997, 18. argitaraldia.

— La Seguridad Social española: notas para una aproximación histórica. In *RT*, 1976, 54-55. zk.

MUGARTEGUI, J.J. *Índice general del archivo de la Colegiata de Santa María de Cenarruza*. Faksimile-edizioa. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1984.

MÚJICA, G. Por los viejos. In *Euskalerraren alde*, 1921, 11. liburukia, 216. zk.

NAVAJAS LAPORTE, A. *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa (1973)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2009.

OLABARRI, I. *Relaciones laborales Vizcaya*. Durango: Leopoldo Zugaza, 1978.

ORDEIG FOS, J.M. *El Sistema Español de Seguridad Social (y el de la Comunidad Económica Europea)*. Madril: Editorial Revista de Derecho Privado. Editoriales de Derecho Reunidas, 1993, 5. argitaraldia.

PALOMEQUE LÓPEZ, M.C. eta ÁLVAREZ DE LA ROSA, M. *Derecho del Trabajo*. Madril: Editorial Centro de Estudios Ramón Aceres, S.A., 1999, 7. argitaraldia.

PONTIFICIUM CONSILIUM DE IUSTITIA ET PACE. *Compendium of the social doctrine of the church*. London: Burns & Oates, 2011.

POSADA, C. *Los seguros sociales obligatorios en España*. Madril: Revista de Derecho Privado, 1945.

POSSE y VILLELGA, J. *La vida social en el País Vásko. Lecciones pronunciadas en la VI semana social de Pamplona*. Durango: Imprenta y Librería de Florentino de Elosu, 1914.

— El Caserío. II. Familia y propiedad. In *Euskalerraren alde*, 1914, IV. urtea, 4. liburukia, 82. zk.

— El Caserío. VI. La acción asociada. In *Euskalerraren alde*, 1914, IV. urtea, 4. liburukia, 86. zk.

PUIG REBOLLO, M., FALCÓN y TELLA, R. eta LÓPEZ BENÍTEZ, M. *Naturaleza y régimen jurídico de las Cofradías de Pescadores*: Córdoba: Servicio de Publicaciones. Universidad de Córdoba, 1996.

REDONET y LÓPEZ-DÓRIGA, L. *Policía Rural en España*. Madril: Sobrinos de Sucesora de M. Minuesa de los Ríos, 1928, 2. liburukia.

- REHME, P. *Historia Universal del Derecho Mercantil*. Madrid: Revista de Derecho Privado, 1941, XVIII. Liburukia (Gaztelaniazko itzulpena: GÓMEZ ORBANEJA).
- RODA, D. *La beneficencia en Vizcaya*. Bilbao: Eléxpuru Hermanos, 1931.
- RODRÍGUEZ RAMOS, M.J., GORELLI HERNÁNDEZ, J. eta VILCHES PORRAS, M. *Sistema de Seguridad Social*. Madril: Tecnos, 1999.
- RUBIO PÉREZ, L.M. *La gestión del común*. León: Edilesa, 2009.
- RUMEU DE ARMAS, A. *Historia de la Previsión Social en España*. Madril: Editorial Revista de Derecho Privado, 1944.
- SAGARMINAGA, F. *Memorias históricas de Vizcaya*. Faksimile-edizioa: Etxebarri: Amigos del libro vasco, 1983.
- SANTANA, A., LARRAÑAGA, J.A., LOINAZ, J.L., ZULUETA, A. *Euskal Herriko baserriaren arkitektura. Historia eta tipologia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002, 1. liburukia.
- SOLANO y POLANCO, J. *Estudios Jurídicos del Fuero de Vizcaya (1918)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2005.
- THALAMÁS LABANDIBAR, J. *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino, el pescador, el obrero*. Donostia: Beñat Idaztiak, 1935.
- El colectivismo de los pastores vascos. In *Yakintza*, 1935, 3. liburukia, 17. zk.
- TRUEBA, A. *Bosquejo de la organización social de Vizcaya (1870)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2007.
- UNAMUNO, M. *Aprovechamientos comunes; lorra; seguro mutuo para el ganado, etc. (1896)* Faksimile-edizioa: El Derecho civil de Vizcaya antes del Código Civil. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2007.
- URÍA GONZÁLEZ, R. *El seguro marítimo*. Bartzelona: Bosch, 1940.
- URRUTIA, J.R. eta MANRIQUE, F. Evolución y retos de la previsión social voluntaria en Euskadi. In ZENBAIT AUTORE. *El Estado de bienestar en la encrucijada: nuevos retos ante la crisis global*. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2011.

URZAINQUI MIQUELEIZ, A. *Comunidades de montes en Guipúzcoa: las parzoneras*. Donostia: Cuadernos Universitarios. Deustuko Unibertsitatea, Historia eta Geografia Saila, 1990, 7. zk.

VELLÉ BUENO, E. *El asegurador frente al tercero responsable*. Madril: Vicente Rico, S.A., 1945.

VENTURI, A. *Los fundamentos científicos de la Seguridad Social*. Madril: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 1994 (Gaztelaniazko itzulpena: TUDELA CAMBRONERO).

VICARIO DE LA PEÑA, N. *Derecho consuetudinario de Vizcaya (1901)*. Faksimile-edizioa: Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea: 1995.

VILLANUEVA EDO, A. La asistencia médica rural en Vizcaya en 1827. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2000, 46. liburukia.

— La asistencia hospitalaria medieval en Bilbao. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 2003, 59. liburukia, 1. zk.

— La última reforma del Hospital de los Santos Juanes de Achuri. In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 2005, 61. liburukia, 2. zk.

ZENBAIT AUTORE. *Lan-zuzenbidearen ikasgaiak* (RAMÍREZ MARTÍNEZ, J.M., Zuz.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004, 12. argitaraldia (Euskarazko itzulpena: ARRIETA IDIAKEZ, E.J).

ZUBIKARAI BEDIALAUNETA, A. Cosas que no se olvidan. In *Ondarroa urtekaria*. Ondarroa: Udal Kultura Etxea, 1985.

— Baserriari begirakada bat. In *Zer. Bizkaitarrai-bizkaieraz*, 1990, 139. zk.